


Herritartasun globalerako hezkuntza. Eztabaidak eta erronkak



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



Herritartasun globalerako hezkuntza.
Eztabaidak eta erronkak



Mundubilduren bitartez Herritertasunarekiko Hezkuntzaren eta Garapenerako Hezkuntzaren arteko harremanen gaineko hausnarketa eta eztabaida plazaratu nahi dugu. Herritertasun globalaren kontzeptuaren inguruan, eta eskola inklusiboa eta ingurunean integratua sustatu asmoz, proiektu hau ikerkuntza- eta mintegi-saioak, dibulgaziozko hitzaldiak eta hainbat argitalpen bidez gauzatu da.

Argitaratzaileak:



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAIZIARTEKO LANIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Bilbao • Zubiria Etxea. UPV/EHU

Lehendakari Agirre etorbidea, 81 • 48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40 • hegoa@ehu.es

Donostia-San Sebastián • Villa Soroa. UPV/EHU

Ategorrieta, 22 • 20013 Donostia-San Sebastian

Tel.: 943 01 74 647

Vitoria-Gasteiz • Arabako Campus-eko Liburutegia. UPV/EHU

138 kutxatila - Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. • Faxe: 945 01 42 87 • hegoagasteiz@gmail.com

www.hegoa.ehu.es

Proiektu hau kofinantzatu duten erakundeak:



ETXERINDITZA ETA GIZARTE
GAITARAKO SARLA
Gizarte Gaitaratu Saileko Zerbitzua
Garapen Lanaberritarako Zuzendaritza



DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Vizcainako Gizarte eta Sozialen
Dibisioaren Kooperazio eta Garapen



Egileak: Miguel Argibay, Gema Celorio eta Juanjo Celorio.

4. atalerako: Ainhoa Garagalza eta Alicia López de Munain

Euskarazko itzulpena: Labayru Institutua

Diseniuma eta Maketazioa: Marra Servicios Publicitarios, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

ISBN: 978-84-89916-33-3

Lege zenbakia: Bi-1900-09



Aitortu-Merkataritzarako-Lan eratorririk gabe 3.0 Espainia

Creative Commons-en lizentziarekin dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar ituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili.

Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/deed.eu>

Aurkibidea

Aurkezpena	5
1. Herritartasunerako hezkuntzaren iragana eta oraina	9
1.1 Herritartasuna eta Hezkuntza Modernitatean	9
1.2. Estatuko herritartasunaren eta herritartasun kosmopolitaren arteko tirabirak	10
1.3. Herritartasunerako Hezkuntza Europar Batasunean	12
1.3.1. Europako jarraibideen aurrekariak eta bilakaera	15
1.3.2. Jarduteko ildoak eta gomendioak	18
1.4. Herritartasunerako Hezkuntza Estatu espainiarrean	19
1.4.1. Gizarte-balioetako hezkuntzaren noraezoko bilakaera	20
1.5. Herritartasunerako Hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan	22
1.5.1. Ikasgaia. Helburuak eta sekuentziazioa	24
1.6. Auziaren egoerari buruzko ondorioak	27
1.6.1. Koherentziaren auzia	27
1.6.2. Gaitasunen auzia	28
1.6.3. Eredua homologatzeko zailtasunak	31
1.6.4. Diskurtsoaren eta errealitatearen arteko kontraesana	32
2. Herritartasunerako Hezkuntza Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegitik	33
2.1. Garapenerako Hezkuntzaren bilakaera	33
2.2. Giza Garapena. Globalizazioaren beste aurpegia	34

2.3. Garapenerako Hezkuntzaren paradigma aldatzea	36
2.4. Herritartasun Globala	37
2.5. Garapenerako Hezkuntza instituzioen esparruan	39
2.6. Beste irakurketa eta proposamen batzuk	42
3. Ikuspegi bateratzaile baterantz. Zeharkakotasuneko esperientziak	53
3.1. Garapenerako Hezkuntza. Dimentsio askotako ikuspegi bat	53
3.2. Herritartasuna berriz pentsatzea	56
3.3. Ikasgelan, ikastetxean eta erkidegoan lan egiteko ildoak	61
3.3.1. Ikasgela Herritartasunerako gune gisa	63
3.3.2. Herritartasunerako Hezkuntzaren zeharkakotasuna ikastetxean lantzea	65
3.3.3. Erkidegoa tokikoa eta mundu-mailakoa eratzen duen ardatz gisa	70
4. <i>Amanda</i> . Erkidegoko esperientzia bat sistematizatzea	77
4.1. <i>Amanda</i> Sarea. Erakundeak, ibilbidea eta helburuak	77
4.2. Sistematizazioa. Helburuak, metodologia eta ikaskuntzak	80
Bibliografia	89
Eranskinak	93
Mundilab. Zeharkakotasuna eta Garapenerako Hezkuntza lantzeko Laborategia	95
<i>Amanda</i> . Iparrorratz agiria	101
<i>Amanda</i> . Denboraren lerroa	105
<i>Amanda</i> . Ikaskuntzen dokumentua	109

Aurkezpena

II. Mundu Gerra bukatu zenetik, bazirudien hezkuntza tresnarik egokienetako bat izan zitekeela bizikidetzak baketsua lortzeko oinarriak finkatze aldera. Itxaropen horrekin, hainbat joera sortu ziren hezkuntza-arloan, besteak beste, Nazioarteko Ulermenerako Hezkuntza, Giza Eskubide eta Bake Hezkuntza, edota Hezkidetzak.

Bitartean, deskolonizazioaren eta Gerra Hotzaren ondorioz, Garapenerako Hezkuntza eta Kultura Arteko Hezkuntza sortu ziren, Europaren bihotzean kultura askotako gizarteak sorrarazi zituzten migrazioko prozesuei eta lankidetzari loturik. Ipar eta Hegoaren artean garapen-arloan zegoen desberdintasunak, intentsitate txikiko gerrek, eta ekonomia-eta finantza-arloko globalizazioak biztanleen mugimendu handiak sorrarazi zituzten, eta tirabira berriak azaldu ziren nazioarteko harremanetan. Hala, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, hezkuntzari izaera kosmopolitagoa emateko beharra azaldu zen, eta, horren ondorioz, Hezkuntza Globala lortzeko proposamenak egin ziren, eta, orain dela gutxi, Herritartasun Globalerako Hezkuntza lortzeko proposamena aurkeztu da.

Izen aldetik horrelako aniztasuna egon arren, hori ez da inola ere nahastu behar proposamen eta edukien aldeko aniztasunarekin. Joera horietako bakoitzak ikuspegi berezia du, baina, hala ere, denek bultzatzen dute hezkuntza elkarre-
ragilea, irakasteko eta ikasteko prozesu berezi bat. Denek gaitasuna eman nahi diete pertsonari, parte hartzeko, argu-
diatzeko, gatazkak konpontzeko eta dagozkien eskubideak eta erantzukizunak beren gain hartzeko gai izan daitezten,
hala ikasgeletan nola eguneroko bizitzan. Azken batean, joera guztiek alderdi berbera hartu dute ardatz gisa: ezagu-
tzak, trebetasunak eta balioak ikastea, hartara, tokiko eta mundu-mailako erkidegoarekin dauden eskubideei eta
bete behar diren erantzukizunei buruzko kontzientziazioa pizteko.

Lan-ildo horiek babestu eta sustatu dituztenen artean honako hauek daude: Nazio Batuak, Europar Batasunak, Europako Kontseiluaren North & South Centre zentroa, lankidetzako instituzioak eta garapenerako gobernu kanpo-
ko erakundeak, hainbat talde pedagogiko, eta gizarte zibileko elkarteak eta mugimenduak. Ildo horretan, nazioarte-
ko lankidetzako erakunde publikoak eta garapenerako gobernu kanpoko erakundeak aitzindariak izan dira
Herritartasun Globalerako Hezkuntza politikako eta administrazio-esparru guztietan garatzeari dagokionez, eta
Ipar eta Hegoaren arteko harremanekin lotu dute, hau da, elkarren mendekoa den mundu globalizatuarekin.

Izan ere, lankidetzaren esparruan, aspaldi hasi zen elkarren menpekotasun globalari buruz hitz egiten eta beharrez-
kotzat jo zen elkartasuneko kultura berri bat sortzea, gaur egun nagusi den ereduaren aurrez aurre, hau da, ziurren
insolidarioa eta eutsiezina den, eta txirotasuna, indarkeria sortzeaz gain ingurumena suntsitzen duen eredu neolibere-
laren aurrez aurre.

Instituzioen arteko koordinazioa ez da egokia izan ez Europan, ez estatuan, ez eta autonomia-erkidegoan ere; era berean, hezkuntza-arloko agintariek eta garapenerako lankidetzaren esparruko agintariek erabili dituzten baterako estrategiak ez dira onak izan, eta, horrenbestez, horrelako ekimenek izan duten oihartzuna hasieran uste zena baina txikiagoa izan da.

Hirugarren sektorea hezkuntza-sistemaren aurretik ibili da zuzentasuna, kohesio soziala eta konpromiso solidarioa bilatzerakoan. Orain, barneko gatazka sozialen eta kohesioa lortzeko premiaren ondorioz, Europar Batasunak, kide diren estatuek eta autonomia-erkidegoek proiektu bat jarri dute abian, eta garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek eta gizarteko mugimenduek bultzatzen zutenaren oso antzekoa da. “Hezkuntza-arloko estrategia berri” hori Europa osoan sustatu da Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza izenarekin.

Herritartasunerako Hezkuntzak hezkuntza-arloan izandako aurreko joeren eragina jaso du, batez ere, Garapenerako Hezkuntzaren eragina. Lan pedagogiko askoren, eta kalitatezko unitate didaktiko eta eskolako proiektu askoren edukiak eta proposamen metodologikoak garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek prestatu dituzte, eta ikastetxe askotako irakasleen eta ikasleen arteko lankidetzeta estuari eta konpromisoari esker egin dute. Honako hau aukera ezin hobea da hezkuntzako eta lankidetzako erakundeak elkarren artean koordinatu daitezen, eta indarrak eta esperientziak bateratu ditzaten, Europako herritarren kohesioaren alde eta nazioarteko elkartasunaren alde.

Txosten honek hiru atal handi ditu. Lehen atalean herritartasunaren kontzeptuaren historia labur bat jaso dugu, eta kontzeptu hori biztanleen artean hedatzeko eta, orobat, gizarteko bizitza pertsonei dagozkien eskubideen eta betebeharren arabera kohesionatzeko hezkuntzak bete zuen zeregina azaldu dugu. Era berean, estatuak eskubide eta betebeharrak horiek sustatzeko eta bermatzeko betetzen duen eginkizuna nabarmendu dugu. Argi ikusten da hezkuntza tresnarik garrantzitsuenetako bat izan dela herritartasunaren ideia sustatzeko, XVIII. mendearen bukaeratik gaur egunera arte; eta zehatz adierazi dira bere bilakaeraren hainbat unetan izan diren aldaketak, testuinguru politiko eta ekonomikoaren arabera. Era berean, aditzera eman ditugu, gaur egungo testuinguruan, herritartasunak estatuko eta estatuz gaindiko mugarak arabera sortzen dituen tirabirak eta kontraesanak.

Ondoko lerroetan, barneko kohesioa bultzatzeko eta herritartasun arduratsuari buruzko jarraibide orokorrak hedatzeko, Europar Batasunak abian jarri dituen hezkuntzako estrategiak azalduko ditugu. Estrategia horiek, nolabait ere, Europako Kontseiluaren agindu bat dira, eta, beraz, Europar Batasuneko kide diren estatu guztiek jaso behar dituzte beren hezkuntza-arloko politiketan. Euridyce txostenean, zehatz azalduta dago estatu bakoitzak nola jokatu duen agindu hori bere gain hartzeko, hau da, ikasgai berri bat sortu eta ezarri duen, edota behar izan diren metodoak eta edukiak ezarri dituen Herritartasunerako Hezkuntzak zeharka uki ditzan ikastetxeen antolakuntza eta ikasgai guztien curriculumen edukiak.

Hala Estatu espainiarrean nola Euskal Autonomia Erkidegoan, formula misto bat hartu da aintzat; horren bidez, ikasgai berezi bat sortu da, kontzeptu eta prozedura aldeko zeharkakotasuna gomendatu da, eta ikastetxeetako irakaskuntzako eta antolakuntzako jarduerak guztietan balioak sartzeko adierazi da.

Kapituluaren bukaeran, irakurketa analitikoak egin dugu eta ondorioak paratu ditugu, eta, horien bidez, Europar Batasunean, Estatu espainiarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoan abian jarri diren ekimenek izan ditzaketen gaitasunak eta kontraesanak azaldu ditugu.

Bigarren kapituluan, Garapenerako Hezkuntza hartu dugu ardatz gisa. Ildo horretan, labur-labur deskribatu dugu haren garapena, eta, batez ere, azken aldia hartu dugu ardatz gisa. Aldi horri 5. belaunaldia esaten zaio, eta haren gakoetako bat Herritartasun Globala sustatzea da. Kapitulu horretan, 5. belaunaldiko Garapenerako Hezkuntzak eta Herritartasunerako zeharkako ardatza eta ikasgai berria denak batera dituzten helburuak, edukiak eta hezkuntzako metodoak nabarmendu ditugu. Agerian jarri dugu Garapenerako Hezkuntzak gero eta garrantzi gehiago duela lankidetzako agentzien eta instituzioen barruan, eta, era berean, gero eta eragin gehiago duela hezkuntza formaleko irakasleen eta adituen artean. Adierazpen hori argitzeko, berri labur bat eman dugu Herritartasunerako Hezkuntzari buruz idazten duten eta Garapenerako Hezkuntzako proposamenak, programazioak, metodoak eta edukiak etengabe aipatzen dituzten hainbat egilei buruz. Kapitulu aski deskriptiboa da, eta batez ere azpimarratzen du ezinbestekoa dela erakundeek eta ikastetxeek eta garapenerako lankidetzako agentziek eta instituzioek lankidetzan jardutea.

Hirugarren kapituluan, Herritartasun Globalerako Hezkuntzak bete behar dituen baldintza bereziak aztertu ditugu, esate baterako, hauek: nola aberastu ahal diren teoria eta praktika zeharkako beste lerro batzuen ekarpenekin, eta zein den garapenerako gobernu kanpoko erakundeek prestatutako material pedagogikoaren eta esperientzien ekarpena, batez ere, 5. belaunaldiko Garapenerako Hezkuntza hobetzen duten ekarpen berrienak, hau da, Herritartasun Globalerako Hezkuntza hobetzen dutenak. Proposamen desberdinen bidez, irudikatu nahi izan dugu nola sartu ahal den ikastetxearen kudeaketa curriculumen edukietan eta erkidegoko gizarte-bizitzan egiten den parte-hartzean.

Azkenik, eranskinetan, hirugarren kapitulu irudikatzeko hautatu diren esperientzia eta proposamen batzuk bildu ditugu.

Nahiko genuke txosten hau akuilu bat izatea Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren arloko pertsona eta erakunde arduradunen arteko lankidetzak sakontzeko

1. Herritartasunerako hezkuntzaren iragana eta oraina

1.1. Herritartasuna eta Hezkuntza Modernitatean

Herritartasunaren sorrerak Antzinate greko-latindarreko hiri-estatuaren eraikuntza filosofiko, etiko, juridiko eta administratiboarekin du zerikusia. Italiako Errenazimentuan, hiri-estatuak indarra hartu zuten berriz joera filosofiko neoplatonikoen eskutik. Hala ere, herritarrek estatu baten barruan dituzten eskubideei eta betebeharrak eman zaien bultzadarik handiena Ilustrazioak eman zion, hain zuzen, Ilustrazioaren zehaztasun politikoak, hau da, Frantziako Iraultzak. Askatasunaren, berdintasunaren eta adiskidetasunaren printzipio adieraziak ordutik aurrera hasi ziren garatzen, kontraesanekin eta atzerapenekin, estatu modernoaren esparruan.

Herri burujabea da estatu modernoa legeztatzen duena, eta, aldi berean, estatu modernoa herritarren erkidego gisa egituratzen da. Estatu berriek industriako iraultzen eragin nabarmena jaso zuten; izan ere, iraultza horiek ekoizpen-moldeetan eragin zituzten aldaketek era nabarmenean eraldatu zituzten garai hartako (XIX. mendeko) ekonomia-eta gizarte-egiturak. Modernitateari jarraiki, eskubideak eta betebeharrak onetsi behar zaizkie nazio bateko kideei; eskubide eta betebeharrak horien bidez, estatuak legezkotasuna hartuko baitu, baina eskubide horiek bete daitezzen babesteko eta laguntzeko betebeharra eta konpromisoa ere izango ditu. Hortaz, bada, proiektu “modernoaren” arabera, herritartasunaren auziak ezaugarri jakin batzuk ditu; hauek:

- a. Estatu-nazioaren muga geografikoak, politikoak eta kulturalak zedarrizten dituen gizarte-erkidegoaren definizioa.

- b. Batasunaren kontzientziarekin bat datorren nazio-erki-dego batekoa izatea -herritartasunaren gutuna-, guztienak diren osagai batzuen bidez: hizkuntza, historia, egituratze sozioekonomikoa, ohiturak, tradizioak, ikurrak eta abar.

- c. Guztienak diren osagai horiek funtsezkoak dira kohesio soziala lortzeko, eta hezkuntzako sistemek gako horiek hedatu behar dituzte, herritarrek haien berri izan ditzaten eta benetan erabil ditzaten. Hala, gizarteko profil berri bat eratuko duten nortasun nazionalaren ikurrak hartzen dira, estatu zentralista eta moderno bateko “herritarren gizartea” eratuko dutenak.

- d. Kide izateko eta elkarrekin bizitzeko jarraibideak ezartzen dira, eta jarraibide horiek herritarrek dituzten eskubideetan eta betebeharrak islatzen dira, eta haien ondorioz herritarrek *res publican* parte hartzeko dauden arauak finkatzen dira.

- e. Kontratu sozial batetik sortzen diren eskubide eta betebeharrak horiek erabakitzen, babesten eta bultzatzen dituen estatuaren boterea legeztatzen da. Teorian, ordezkarien ganberak zuzendu eta hobetu beharko lituzkete etengabe kontratu sozial horren baldintzak.

Orduan, hezkuntzak zeregin funtsezkoa bete zuen estatu-nazioaren nortasun-aldeko koheretia eta koheretia soziala lortzeko. Gizonek eta emakumeek gaitasun berriak ikasi behar zituzten, ekoizteko eredu berri batean jarduteko. Alabaina, estatuaren barruan, herritartasunerako eskubideak guztiz murriztuta zeuden gizarteko beheko mailakoentzat eta, oro har, emakume guztientzat. Izan ere, Ilustrazioaren

oinarrrian berdintasun eta unibertsaltasunaren balioak egon arren eta balio horiei jarraiki bereizkeriarik ez egiteko printzipioa sortu arren, emakumeak baztertuta zeuden arlo politikotik eta publikotik, eta ez zieten herritarren izaera onartzen. Horretarako, Cobo-k azaltzen duenez, argudio esentzialistak ematen zituzten: “Hori legezatzeko, horrela-koetan beti egiten zuten bezala, ontologiara jo behar izan zuten. Hala, bada, erabaki zuten emakumeen izaerak berak mendekotasuneko jarrera batean uzten zituela emakumeak, parte hartzen zuten gizarte-arloko harreman guztietan” (Cobo, 2008:26). Gizonak baizik ez ziren alfabetatzen; hala, garai hartako industriak eskatzen zituen gaitasun teknikoak ikasten zituzten eta kontzientzia aberkoia hartzen zuten, hau da, armadaren lerroetan sartzen ziren beharra zegoenean.

Hala, bada, ezaugarri horiek barneko kohesioa ematen zioten gizarteri; eta, aldi berean, bazterrean uzten zituzten edo aurkaratu egiten zituzten beste nortasun, beste estatu edota estaturik gabeko beste herri batzuk. Estatu-naziokokak ez ziren pertsonak gizartean izandako lorpenetatik kanpo geratzen ziren, eta estatuko mugen barruan lortuta-ko oinarritzko eskubideetatik kanpo ere bai.

Prozesu horrek alderdi txarrak eduki arren, hezkuntza modernoa izan zen politika-, ekoizpen-, gizarte- eta kultura arloko proiektu politiko berri bat oro har gizarteratzeko erabili zen tresna nagusia. XVIII. mendetik gaur egunera arte, estatu-nazioak historian barrena izan duen bilakaeran, barneko kohesioa eta nortasuna gizarteratzea bilatu zen hezkuntzaren bidez. Hortaz, estrategia hori praktika historiko bat izan da herritartasuna eraikitzeko.

1.2. Estatuko herritartasunaren eta herritartasun kosmopolitaren arteko tirabirak

Alabaina, askatasun, berdintasun eta anaitasunaren printzipioak unibertsal bilakatzeko izan zen benetako lehen saiakera 1948. urteko Giza Eskubideen Adierazpena izan zen. Dena dela, herritartasunaren ideiak estatu-nazioaren ikusmolde zaharkituari eta haren politikako eta kulturako nortasun-ikur estereotipatuei loturik jarraitu zuen.

Estatuaren ikusmoldea hain zurruna eta mugiezina izan arren, kontraesana dela badirudi ere, mundu osoko nazioek aldaketa larriak izan dituzte. Pertsonen eta estatuen bitzta guztiz aldatu da ekonomia- eta finantza-arloan izan den globalizazioaren ondorioz, migrazioko mugimenduen ondorioz, eta komunikabide, garraiobide eta teknologia berrien ondorioz. Estatuak hortxe daude, baina haien mugak eta haien nortasunaren ikurrak urtzen joan dira arian-arian, gizartean eta kulturen etengabeko mestizajea izan delako, eta ekoizteko eredu eta kontsumitzeko ohiturak bateratzen joan direlako. Aldaketez beteriko zurrunbilo baten erdian gaude, eta, hortaz, gogoeta egin behar dugu berriz herritartasunaren kontzeptuari buruz.

Herrialdeek ezin dute isolatuta aurrera egin, eta, horrenbestez, nazioz gaindiko erakundeek koordinatzen dituzten estatuen elkarteetako kide bilakatu nahi izaten dute. Erakunde horiek, azkenean, makro estatu handi bat kudeatzen dute. Makro estatu horren nortasuna, hizkuntza, mugak, esparru juridikoa eta ekoizpen-esparrua ere etengabeko kontraesanean daude kide diren estatuek dituztenekin. Zaila da justizia soziala lortzea, gizarteratzea, kulturen dagoen aniztasuna nahastea, eta tradizio desberdinak dituzten gizarteko taldeen arteko kohesioa eta elkarrizketa sustatzea, talde horiek maiz elkarren aurkakoak baitira. Kontraesanez beteriko egoera horri heltzeko, funtsezkoak diren aipamen batzuk izan behar ditugu kontuan, horiek aukera emango baitigute herritartasun global eta kosmopolita baten ezaugarri berriei buruz gogoeta egiteko.

1. Lehenengo ezaugarria da herritartasun berria eraikitzeko esparrua, munduan gaur egun dagoen egoeran, ezin dela bakarrik izan aldameneko tokiko esparrua, ez ondoko herrikoa, hirikoa, autonomia-erkidegokoa edo estatukoa. Estatuko esparrua ere ezin da izan. Globalizazioak elkarrekiko mendekotasunak eta eragin multipolarrak sorrarazten ditu, eta makro estatuek, esate baterako, Europar Batasunak, ezin dute hori alde batera utzi.
2. Bigarren ezaugarria da, globalizazioaren testuinguruan, herritarrek *res publican* parte hartzeko duten esparrua mugak gainditzen dituzten gai unibertsalei

lotuta dagoela: energia, ekoizpena, kontsumoa, ingurumena, pobrezia, garapena, giza eskubideak, eta abar. Kontraesana dago kulturako mestizajearen, aniztasunaren, eta komunikabideen, elikaduraren, aisialdiaren, garraioaren edo turismoaren arloko multinazionalak sorrarazten duten prozesu bateratzailearen artean. Arazoak unibertsal bihurtzen direnean, konponbideak unibertsal bilakatzeko beharra sortzen da. Konponbideak nahitaez egongo dira lotuta giza garapenarekin, kulturako eskubideen errespetuarekin, genero-arloko berdintasunarekin, ingurumena zaintzearekin eta giza eskubideen errespetuarekin, horiek guztiak mundu osoko estatu guztien babesaren eta bermearen men-dean garatu beharko bailirateke.

3. Hirugarren ezaugarria da mugimendu alterglobalizazioaren eztanda. Nazioarteko gizarte-mugimendu horrek gogor salatzen ditu finantza-kapitalaren, nazioarteko erakunde ekonomikoaren eta multinazionalen gehiegikeriak, bai eta desberdintasuna areagotzen duen sistema orokor baten ondorioz sortzen diren bidegabekeriak ere. Ez du ukatzen gertakari batzuk unibertsal bilakatu direla; aitzitik, gizarteko mugimendu honek ahalegina egiten du hautabideak proposatzeko, eta, horrenbestez, pertsonen ongizatea, giza eskubideen errespetu unibertsala eta gatazken konponbide baketsua oinarritzat hartuko dituzten beste garapen-eredu batzuk sortu ahal izateko.
4. Laugarren ezaugarria da, esandakoarekin bat etorrira, hezkuntzaren bidez, herritartasuna eraikitzeke ikuspegi global bati heldu beharko zaiola. Prozesu hori konplexua da eta zailtasunez beterik dago, baina onugarria izango da herritartasun kosmopolitaren parametroen barruan demokrazia eta bizikidetzaren sendotu ahal izateko. Errespetuan oinarritutako bizikidetzaren unibertsala ardatz gisa hartzen duen hezkuntzaren bidez, subjektu sozial berriak prestatuko ditugu, iraunkortasuna eta giza eskubideen hedapena oinarritzat hartzen dituzten garapen-eredu berriak aldarrikatzeko eta eraikitzeke gaitasuna izango duten subjektuak, herritartasun globalaren gutun berriaren nahitaezko sarrera gisa.

Izan ere, herritartasun arduratsua eraikitzeke funtsezko osagai gisa iraganean eta orain hezkuntzak betetzen duen zereginaz esandakoa berresteko, Europar Batasunak eta bera osatzen duten estatu bakoitzak ahalegina egin dute guztien nortasuna, kide izateko zentzua eta batera bizitzeko jarraibide batzuk sortzeko; eta jarraibide horiek hezkuntzaren bidez gizarteratu beharko lirateke, hain zuzen, Herritartasunerako Hezkuntzaren bidez.

Alabaina, behar-beharrezkoa da hausnarketa kritiko bat sustatzea, Herritartasunerako Hezkuntzak gaur egun duen izaera askotarikoa eta kontraesankorra erakusteko. Zaila ematen du logika eta ikuspegi bakar bat adieraztea gai honi buruzko irakurketetan eta izan ditzakeen aukeretan. Izan ere, gutxienez, lau joera hauek bereiz ditzakegu:

- a. Europar Batasuneko interesen arabera proiektatu dena, hau da, proiektu europarrak berak talde gisa duen funts urria dela-eta kezkatuta dagoena. Europar Batasuneko erakundeek behin eta berriz agertu dute kezka, Europar nortasuna oso ahula delako nazioetako/estatuetakoko nortasun ugariarekin erkatuta; eta, horrez gain, azpian dagoen aniztasun hori biltzeko gaitasuna izango duen Europako Herritartasun Demokratioaren alde egin dute.
- b. Estatuko eta autonomia-erkidegoetako proposamenek, Europako agindua aprobetxatuz, Herritartasunerako Hezkuntza barne hartzen duten legeak eta dekretuak onartu dituzte presaka. Alabaina, ez da adostasunik egon irakaskuntzako edukiak, baliabideak eta prestakuntza homologatzerakoan; eta, horren ondorioz, ezin da jakin proposamenen inpaktua nolakoa izango den.
- c. Sektore batzuk mesfidantzaz ikusten dute hori guztia, prozesu berrietan boterea gal dezaketelako, eta estatuen/nazioen arabera antolatuta dagoen herritartasunaren ikuspegi zaharrari heltzen diote. Horren ondorioz, kontuan hartzen duten herritartasunaren ereduak, batera nahasten dira osagai eta argudio kontserbatzaileak eta liberalak, eta hor agertzen den herritartasunaren eredu politikoa eta estatuaren esparrura murriztua dago.

d. Gizarte-mugimendu kritikoen interesek eta kezkek herritartasun berri bat eskatzen dute, tokiko eta mundu mailako gakoak oinarritzat hartzen duena, globalizazioaren baldintza eta arazo berriei aurre egin ahal izateko. Auzi horren arabera, tokiko bizitzan gero eta eragin gehiago duten mundu osoko harremanetako gako analitikoak sartu behar dira herritartasunaren profiletan, eta aldearantziz; hau da, mundu osoko harremanetan eragina izan dezaketen eta tokiko bizitzan egiten diren jarduerak ere barne hartu behar dira. Dirudienez, hartu nahi diren jarrera analitikoak alde batera utzita, globalizazioa ezinbesteko esparrua da, eta, zentzuzkoa denez, ezin da alboratu, eta gizarte- eta hezkuntza-arloan egin nahi den beste proposamen batekin ordezkatu.

Bosgarren belaunaldiko Garapenerako Hezkuntzan arreta jarrita duen ikuspegi batetik ikusita, Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren aldeko erronka da gune nagusietako bat. Ildo horretan, eztabaida dagokion tokian jarri behar da berriz, eta, hala, nabarmenak diren gakoak hartu behar dira kontuan, hala nola, generoko ikuspegia, kultura artekotasuna, giza eskubideak eta gizarte zibilak eredu bidezko eta zuzenagoak eraikitzeke lanetan parte hartzea.

1.3. Herritartasunerako Hezkuntza Europar Batasunean

Europar Batasuna osatzen duten estatu kideen kopuruak gora egin du, orain hogeita zazpi herrialde baitaude barruan, eta hori albiste ona da. Hala ere, igoera hori oztopoa da merkaturaren arautuko duten arauen inguruan adostasuna lortzeko, eta zaildu egiten ditu administrazio-, legegintza-, politika- eta hezkuntza-arloko kudeaketa eta kudeaketa juridikoa. Traba da baterako erabakiak hartzeko adostasuna egon dadin, eta arazoak sortzen ditu barruko koherentzia izateko bateratze-prozesuetan.

Zaila da koherentzia politikoa lortzea, tradizio, kultura eta hizkuntza desberdinak dituzten estatuen artean. Egoera horren ondorioz, Europar Batasuna puzzle bat da, politika, kultura, ekonomia, teknika eta hizkuntza aldetik. Hala, bada, estrategia politikoak erabili behar dira estatu guztien eta haietako bakoitzaren jarduerak koherenteak izan dadin;

eta estatu bakoitzaren bereizgarriak zaindu behar dira. Horrez gain, nortasun bat eta kide izateko zentzu berri bat sustatzen da makro estatu horri lotuta, Europar Batasunak osatzen duen “nazioz gairik nazio” horri lotuta. Ikusten denez, helburu horiek kontraesanetan daudela ematen du, eta, beraz, xede horiek lortzeko prozesua zailtasunez betirik egongo da.

Europar Batasuneko instituzio politikoek (Presidentziak, Parlamentuak, Batzordeak, Kontseiluak, auzitegiek eta beste batzuek) urte asko daramatzate bidean, eta ondo finkatuta daudela ematen du. Alabaina, Europako lurretan bizi diren pertsonak ez dituzte ondo ezagutzen Europako instituzioak, horiek urruti ikusten baitituzte. Horrez gain, sarritan, instituzio horiek oztopo gisa ikusten dituzte, beren tokiko politikak garatzeko traba moduan, Europako instituzioek hartzen dituzten erabakiak ez baitatoz beti bat nazio-ko ikuspegiarekin.

Europar Batasunak estrategiak eraiki nahi ditu oraingo egoera beste bide batetik eramateko, oraingo egoera Beck-ek demokrazia “zombi” deitu zuen kategoriatik oso gertu dagolako. Honela definitu zuen Beck-ek kategoria hori: “[...] instituzio demokratikoak zentzu formalean hortxe daude oraindik, baina, berez, herritarrek eta politikoek ez dute hor parte hartzen [...] Lotura, lokarri bat falta da Europako herritartasunaren eta instituzioen artean. Oraindik ere, demokrazia aldetik dagoen gabezia da proiektu europarraren ahulgunea.” (Beck, 2008:3-8). Egile horrek proposamena egiten du demokrazia berriz definitzeko, estatu-nazioaren barruan demokraziak dituen muga zurrinak leunduz, hartara, berak demokrazia kosmopolita deitzen duen ikuspegi zabalago bati ongietorria egiteko. Ikuspegi hori hobeto bateratu ahal izango litzateke eraiki nahi den gune europarrarekin eta globalizazioak sorrarazi duen prozesu orokorrarekin. Egile horri jarraiki, European lau alderdi garrantzitsu hauek hartu behar dira kontuan:

1. Neo-liberalismoari egindako kritika.
2. Gizarte-arloko zeregin eta ikuspegi bat garatzea.
3. Ikuspegi eta zeregin demokratikoa sendotzea.
4. Ikuspegi eta zeregin ekologikoa garatzea.

Europar Batasuna osatzen duten herrialdeen aniztasuna kontuan hartuta, Batasunak ondo bermatu behar du herrialde horiek guztiak demokratikoak direla, herrialde horietan botereen banaketa dagoela, eta herrialde horietako herritarren banakako eta taldeko eskubideak sustatzen direla. Baterako oinarri hori bermatu ondoren, Europar Batasunean sartuta dauden pertsona eta gobernu guztiek Europako instituzioak ezagutu, indartu eta bultzatu beharko lituzkete.

Ez da erraza hainbesteko aniztasuna (gizarte, ekonomia, erlijio, kultura-arloko aniztasuna eta abar) bateratzea estatu bakar baten barruan, eta are zailagoa da oraindik erantzun egokiak ematea Europar Batasuneko kide diren estatuen multzoko herritar guztiei. Ohitura eta sinesmen desberdinekiko tolerantzia eta begirunea uztartu behar dira, baina baterako esparru baten barnean; eta esparru horrek ohitura eta sinesmen horiek hartu behar ditu barne, eta ahalegina egin behar du liskarrik edo bereizkeriarik egon ez dadin kultura, erlijio edo filosofia-aldeko arazoak direla-eta.

Europar Batasuneko herrialde eta hiri bakoitzean, prozesu desberdin bat egin beharko da hori guztia lortzeko. Argi dago politikak homologatu beharko direla aukera aldetik dagoen desberdintasuna arindu ahal izateko; izan ere, aukera aldeko desberdintasun horren ondorioz, gizartearen ehuna urratzen da, eta hala estatuko nola Europako instituzioek sinesgarritasuna galtzen dute.

Gizarte kohesionatu bat eraikitzeke eta, aldi berean, kalitate oneko ekoizpen-merkatu homogeen bat lortzeko, hau da, era askotako diziplinatan eta ekoizpeneko sektore ugarian lehiatzeko edota aitzindari izateko gaitasuna duen merkatu bat izateko, azpiegitura onak eta irakaskuntzako metodo berdintsuak eta homologagarriak izan behar ditugu Europar Batasuneko lurralde osoan. Estatu modernoak eratu zirenean gertatu zen bezala, orain ere hezkuntza da tresnarik egokiena gizarte- eta kultura-arloak bateratzeko.

1. Koadroa: Europar Batasunean eta kide diren estatuetan kezka gehien pizten duten arazoak

- Estatuetakoguneen eta Europako gunearen artean dagoen kontraesana.
- Europako herritartasunaren barruan egoteko kontzientziaren gabezia.
- Europako instituzioen ezagutza urria eta balorazio txikia.
- Kide diren herrialdeetan dagoen hizkuntza- eta kultura-arloko aniztasuna.
- Hezkuntza-arloko homologazioaren gabezia. Kalitatea, programazioa, edukiak, gaitasun zientifikoak, teknikoak edo lanbidekoak, eta horiei dagozkien titulazioak.
- Gizartean adostuta dauden kultura-nortasun, nortasun erlijioso eta laiko, eta jokaera edo jarrera etiko ugari bateratzeko dagoen zailtasuna.
- Hondatze demokratikoa eta soziala.

Iturria: Bertan eginda.

Maila horietan guztietan, alerta-deiak izan dira, eta horrek erakutsi digu gizarte- eta erlijio-arloko liskarrak, estalita egon arren, hortxe daudela. Ikastetxeetan azaltzen hasi den terrorismoa, arrazakeria, xenofobia, genero aldeko indarkeria, erlijio aldeko tolerantziarik eza, edota indarkeria kezkatzeko moduko adierazleak dira, eta gizartean izan daitezkeen hausturak erakusten dizkigute. Neurri egokiak hartu behar dira nahasmendu horiek konpontzeko, eta bide estrategikoak jarri behar dira abian, gizartean hausturarik egon ez dadin, kohesioa lortzeko aukera egon dadin, eta, hortaz, Europar Batasunean bizi diren pertsonen arteko elkarbizitza baketsua, jasanbera eta demokratikoa izan dadin, berdin dio pertsona horiek herritarrak diren edo ez, edota “paperak” dituzten edo “paper bakoak” diren. Gizartean koherentzia lortu nahi denez, ez da komenigarria bigarren mailako herritarren multzorik edo “herritarrak” ez diren pertsonen sektorerik sortzea. Izan ere, horrek gizartean baztertuta geratzeko arriskuan jarriko ditu pertsona horiek, giza eskubideen urraketa erraztuko du, eta gizartean dauden tirabirak inolako beharrik gabe areagotuko ditu.

2. Koadroa: Europako gunean bat-etortzea eta kohesioa lortzeko erronkak

- Estatu demokratiko laikoa bultzatu behar da, erlijio- edo ideologia-arloko talde desberdinen arteko elkarbizitza bidezkoa lortzeko, eta gutxiengoen eskubideak zaintzeko.
- Estrategiak indartu behar dira baterako esparru juridiko politikoa lortzeko, eta, horren bidez, Europako gunean elkarrekin bizi diren pertsonen segurtasuna, eta banakako eta taldeko askatasuna bermatzeko.
- Komunikazioa eta trukea sustatu behar da, eta horretarako, norberaren jaioterriko hizkuntzaz gain, Europako hizkuntza ofizial bat edo gehiago jakin beharko da.
- Gizarte-, kultura- ekonomia-, hezkuntza-, lanbide- eta lan-arloak bateratzeko estrategiak jarri behar dira abian hogeita zazpi estatuetan, eta estatu horien barruan dauden gutxiengoak eta etorkinen erkidegoak ere hartu behar dira aintzat.
- Gizartean dagoen gatazka gutxi behar da, ahulen dauden sektoreak babesteko neurriak adostuz.
- Kohesio soziala bultzatu behar prestakuntzako aldi guztietan, eta, horretarako, Europar Batasuneko kide diren estatu guztietan homologagarriak diren titulazioei eta gaitasunei buruzko adostasuna lortu behar da.

Iturria: Bertan eginda.

Europar Batasuneko kideak ekonomia-, gizarte- eta politika-arloan bateratu daitezen lortzeko, goian adierazitakoa bete behar izateaz gain, beste erronka batzuk ere egongo dira. Alabaina, goiko erronka horiek dira Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzak Europar Batasuneko kide diren hogeita zazpi estatuetan sustatzen duen strategiari zuzen lotuta daudenak.

Bestalde, argi adierazi eta azpimarratu behar da abian jarri den hezkuntza-arloko estrategia nahitaezkoa dela, baina, hala ere, ez dela aski gizarte-, kultura-, ekonomia-, politika- eta erlijio-arloan edota arlo juridikoan dauden arazo guztiak arrakastaz konpondu ahal izateko. Arlo horietako bakoitzean estrategia bereziak garatu behar dira, eta, gainera, estrategia horiek ez dute kontraesanean egon behar bata bestearekin. Baterako jardueren arteko koordinazioa alde batera utzi edo atzeratuz gero, abian jarri diren estrategiek porrot egingo dute, batez ere, hezkuntzako estrategia, eta, bereziki, hori baldin bada kohesio soziala lortzeko prozesua konpontzeko egin den proposamen bakarra.

Kontu horiek guztiak eta beste auzi batzuk jakinda, Europar Batasuneko Batzordeak eta Europako Kontseiluak ahalegi- na egiten dute Europako gunean gizartea eta kultura bate-

ratuko dituzten estrategiak prestatzeko. Haien iritzi, hezkuntza da tresnarik egokiena epe luzeko kontzientziarazioko lanari ekiteko. Ildo horretan, adin gutxiokoekin hasi behar da, eta adinekoak ere barne hartu behar dira. Hala, gaur egun herrialde bakoitzean dauden biztanleak biharko Europako herritar bilakatzea lortuko dugu.

“Herritartasunerako Hezkuntzak gizarte jakin bateko kide guztiak hartu behar ditu barne [...] *Herritartasun arduratsua*, era batean edo bestean, Europako herrialdeko guztietako politiketan sartu behar den kontzeptu unibertsal bat dela jo behar da [...]. Izan ere, esan daiteke haurrak eta gazteak eskolatzeak duen xede nagusietako bat hauxe dela: gizartean parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, balioak eta gaitasunak ematea, eta gizartearen ongizatea hobetzen laguntzea.” (Eurydice, 2005:59).

Europako herritarren politika-, kultura-, ekonomia- eta gizarte-arloko kohesioa lortzea funtsezko gako bat da - edo hala izan beharko luke, behintzat- Europar Batasuneko herrialde guztietan. Hortaz, kohesio hori lortzeko, Europako Batzordeak “[...] 2004. urtean egin zuen *Guztione etorkizuna eraikitzea. Zabaldutako Europar Batasunak dituen erronka politikoak eta aurrekontuko*

baliabideak (2007-2013) izeneko jakinarazpenean [...] argi adierazi zuen Europako herritartasuna garatzea zela Europako Batasunaren ekintza-esparruan zegoen lehen-tasun nagusietako bat”.

Ideia nagusia hauxe da: “europarrak herritar gisa dituzten eskubideez eta erantzukizunez kontzientziatzea, Europa bateratzeko prozesuan eraginkortasunez aritu daitezen

lortzea, eta Europako kide izateko sena eta nortasuna haiengan sustatzea”. (Eurydice, 2005:3).

1.3.1. Europako jarraibideen aurrekariak eta bilakaera

Europako esparruan, aurrekari batzuk, estrategiaren aurrerapen bat eta jarraibide zehatzago batzuk aurkitu ditzakegu.

3. Koadroa: Herritartasunerako Hezkuntzaren bilakaeraren kronologia

1995-2004	UNESCOK Herritartasunerako Hezkuntzako programak bultzatu zituen <i>Giza Eskubideen arloko Hezkuntza</i> sustatzeko hamarkadan.
1996	<i>Hezkuntzak altxor bat du gorderik</i> izeneko Delors txostenean ikaskuntzaren lau zutabeak jaso ziren.
1997	Europako Kontseiluak <i>Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza</i> proiektua garatzeari ekin zion.
1999	Ministroen Kontseiluak <i>Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzari buruzko Adierazpena eta Programa. Herritarraren eskubideak eta erantzukizunak oinarritzat hartzen duena</i> izeneko onetsi zuen maiatzaren 7an, Budapesten.
2000	Europako Kontseiluak <i>Lisboako Estrategia</i> onetsi zuen, Europar Batasuna mundu osoko ekonomiari lehikorrena izan zedin lortzeko eta 2010. urtea iritsi aurretik enplegu betea izateko.
2001-2002	Hezkuntzako Errendimendua Ebaluatzeko Nazioarteko Elkartek (IEA) <i>Hiriko Hezkuntzaren Azterketa</i> egin zuen nazioartean.
2004	Europako Batzordeak erkidegoko programa bat jarri zuen abian herritartasun eraginkorra bultzatzeko.
2005	Europako Kontseilua. <i>Hezkuntzaren bidezko Herritartasunaren Urte Europarra</i> .
2006	<i>Europako Erreferentziako Esparrua. Etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunak</i> izeneko sortu zen.
2006-2009	<i>Guztiantzako demokrazia ikastea eta bizitzea</i> izeneko programa jarri zen abian, eta gaur egun garatzen ari da.

Iturria: Bertan eginda.

Europar Batasuna eratzen duten estatu guztien hezkuntzar-arloko proposamenen baterako orientabideak zehatzeko eztabaidak 2000. urtean hartu zuen indarra. Urte horretan, Lisboan bilduta zegoen Europako Kontseiluak erabaki zuen Europako erreferentzia-esparru berria ezarri behar zela, eta

esparru horretan oinarritzko gaitasun berriak finkatu behar zirela “globalizazioaren aurrean eta ezagutzan oinarritutako ekonomietara izandako lerratze-prozesuaren aurrean Europak emandako erantzunaren funtseko neurri modura”¹.

¹ *Europako Parlamentuak 2006ko irailaren 26an, lehenengo irakurketan, hartu zuen jarrera. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak etengabeko ikaskuntzarako dauden funtsezko gaitasunei buruz egindako gomendio bat onartze aldera hartu zuen jarrera hori; hemen: www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P6-TA-2006-0365+0+DOC+XML+Vo//ES*

Kontseiluak 2004. urteko azaroan onetsi zuen eta hezkuntzaren zereginari buruzkoa zen txosten batean, berriz ematen da aditzera hezkuntzak laguntza ematen duela guztiona den kulturako ondarea gizartean zaintzeko, eta, era berean “oinarrizko gizarte- eta hiri-balioak ikasteko, hala noka, herritartasuna, berdintasuna, tolerantzia eta begirunea bezalako balioak ikasteko”². Ideia hori nabarmentzeko modukoa da, alde batetik, zuzeneko lotura duelako hurrengo urteetan indarra hartuko duten Herritartasunerako Hezkuntzako proposamenekin, eta, bestetik, onarpena ematen diolako kide diren estatu guztiek, gero eta handiagoa den gizarte- eta kultura-arloko aniztasunari aurre egiteko, beren gain hartu behar duten zereginari. Alabaina, erreferenterik hurbilena hauxe dugu: Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak, 2004. urteko abenduaren 13an eta 14an Sofiako hitzaldian sortutako proposamenari jarraiki, aditzera eman zuenean 2005. urtea *Hezkuntzaren bidezko Herritartasunaren Urte Europarra* zela.

Egun horretan abian jarri zen prozesua 2006. urtean bukatu zen, ondoz ondoko bilera ugari izan ondoren, eta haren emaitza *Europako Erreferentziako Esparrua* izan zen. Tresna horren bidez, behar bezala bermatu nahi da gazteek etengabeko ikaskuntza lortzeko beharrezkoak diren gaitasun guztiak ikasiko dituztela, eta, era horretan, hobeto prestatuta egongo direla helduak direnean eta lan-arloan.

4. Koadroa: Europako erreferentziako esparrua

- Ama-hizkuntzan komunikatzea.
- Atzerriko hizkuntzetan komunikatzea.
- Matematika-arloko gaitasuna, eta zientzia eta teknologiko oinarrizko gaitasunak.
- Gaitasun digitala.
- Ikasten ikastea.
- Gizarte- eta hiri-gaitasunak.
- Ekimenaren sena eta enpresa-izpiritua.
- Kulturako adierazpena eta kontzientzia.

Iturria: Bertan eginda.

² Idem.

³ Idem. Eranskina. *Etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunak, Europako erreferentziako esparru bat.*

Globalizazioak eta prozesu horrek azkar aldatzen den munduan izango duen inpaktuak dituzten erronkaren azterketan, elkarrekiko lotura ugari agertzen da, eta, hortaz, horri jarraiki, herritar bakoitzak “gaitasunen sorta zabala garatu behar du, era malguan egokitu ahal izateko”³ merkatuak ezartzen dituen erritmo ekonomikoen ondorioz azkar aldatzen diren baldintza horietara. Arrazoibideak arreta gehiago jartzen du ezagutzaren gizartean eraginkortasunez ibiltzeko beharrezkotzat jotzen den horretan -Europar Batasunak laguntza eman nahi baitu ezagutzaren gizartea garatzeko-, zehaztapen handiak egiten ibili beharrean, hezkuntzako sistemak gizarteratzeko eta zuzentasuna lortzeko guneak izan daitezken. Hala, beraz, tradiziozko gaitasunez gain -hau da, irakurtzeko eta idazteko gaitasunez, eta oinarrizko aritmetikako gutxieneko gaitasunez gain-, beste gaitasun batzuk garatzen dira, hala nola, informazioaren gizarteko teknologiarekin eta ekintzailearen espirituarekin zerikusia duten gaitasun berriak.

Hezkuntza “gaitasunen” araberako ikaskuntzara biratzeko erabiltzen diren argudioek ideia batekin dute zerikusia, hain zuzen, honako honekin: gaitasun horiek bizitza osoa ikaskuntza, norberaren errealizazio osoa, herritartasun eraginkorra, kohesio soziala eta enplegarritasuna bermatu ahal izango dutela ezagutzaren gizartean.

Gaitasun hitza aski anbigua da jakintza eraginkortasunez eraiki dela iradoki ahal izateko, hau da, pertsonen gaitasuna jaso dutela ezagutza zientifiko, humanista edo sozialeko arlo desberdinetan, eta, ondo egiaztatuta dagoenez, adituak dira arlo horietan. Aldi berean, hitz horrek beste interpretazio hau izan dezake: ezagutza teknikoagoak ikas daitezkeela, eta ezagutza horietan lehiakortasunak duela lehentasuna, gaitasunaren edo ahalmenaren gainetik. Bertsio horixe da joera sozio-humanistatik askatzen dena, eta teknologiari eta enplegu-arloko malgutasunari lotuta dauden ekoizpeneko beharrezkoen joera pragmatika indartzen duena.

Ideia ona da etengabeko prestakuntzaren bidez gizartera tzea, horrek pertsonen gaitasuna ematen baitie ekoizteko sektorean izan daitezkeen aldaketei egokitzeko. Alabaina,

ideia horrek berekin dakar enpresen nahikariak bete behar izateko mehatxua. Lan-arloan dagoen ezegonkortasuna ezin da soilik konpondu langileek gaitasunak hartzeko egiten duten ahaleginaren bidez. Langabezia Damoklesen ezpataren modukoa da, egonkortasuna eta kohesio soziala

bultzatu beharrean, gehiago sustatzen baitu bazterkeria eta ziurgabetasuna. Gaitasunen araberako ikaskuntzak konpondu gabe uzten du kontraesan hori, edo, bestela esanda, konpontzen du, baina paperaren gainean soilik, erabilitako hitzak duen anbiguotasuna dela-eta.

5. Koadroa: Gaitasunen definizioak

- Europar Batasuna (2004): Norbanako guztiek errealizazio eta garapen pertsonala, gizarteratzea eta enplegua lortzeko behar dituzten ezagutzen, trebetasunen eta jarrerren multzo bat da, nahitaezko hezkuntzaren bukaeran garatu behar dira, eta bizitzan barrena geroago egingo den ikaskuntzaren oinarria izan beharko lukete.
- González eta Wagenaar-ek, “trebetasunak eta gaitasunak parekatzen dituzte, eta honela definitzen dituzte: *ezagutzea eta ulertzea* (ikasketa-arlo baten ezagutza teorikoa, ezagutzeko eta ulertzeko ahalmena), *nola jokatu behar den jakitea* (ezagutza hori egoera jakin batzuetan modu praktikoa eta eragingarria ezartzea) eta *nola izan behar den jakitea* (balioak hartzea besteak hautemateko eta gizarteko testuinguruan bizitzeko modua osatzen duten zati gisa) (González eta Wagenaar, 2003:80)”⁴.
- Definition and Selection of Competencies (DeSeCo) (2002): Proiektuak oinarrizko hiru gaitasun hauek zehazten ditu: Era autonomoan jardutea: gaitasuna izatea norberaren eskubideak, interesak, erantzukizunak defendatzeko, bizitzako planak eta norberaren proiektuak egiteko, ulertzeko eta testuinguruaren arabera era batean edo bestean jokatzeko. Tresnak elkar eragiteko erabiltzea: gaitasuna izatea hizkuntza, ikurrak eta testuak, jakintza, informazioa eta teknologia berriak erabiltzeko. Gizarteko talde heterogeneoen baitan elkar eragitea: gaitasuna izatea beste pertsona batzuekin harreman onak izateko, lankidetzan aritzeko, kudeatzeko eta gatazkak konpontzeko. (DeSeCo, 2002).
- “Gogoan izan dezagun oinarrizko gaitasunak honako hauek direla: [...] gizarteko egoera ulertzea, lankidetzan aritzea, elkarrekin bizitzea, herritartasun anitza erabiltzea eta gizartea hobetzeko hitz ematea baliabide egokiak erabiliz, hau da, era askotako ezagutzak eta trebetasun konplexuak baliatuz [...]. Hala, bada, oinarrizko gizarte-gaitasunak pertsona batek eguneroko arazoei eraginkortasunez aurre egiteko, eta hurbilen duen ingurunea moldatzeko eta aldatzeko erabiltzen dituen portaerak eta jokabideak dira. Pertsonak gizartean jasotzen duten estimuluaren bidez ikasten eta garatzen dituzte gaitasun horiek, bai eta prestakuntzako prozesuen, gizarteko berrindartze-prozesuen eta bizitzan barrena hartzen duten esperientziaren bidez ere.” (Nieto, 2007:1).
- “Hala, bada, gaitasun bat da kognitiboak diren eta ez diren hainbat baliabide mobilizatzeko gaitasuna edo ahalmena izatea, hartara, hainbat egoeratan era egokian eta eraginkortasunez aritu ahal izateko; baliabide horiek bizitzan zehar eskuratu ahal dira, hezkuntza formalaren, hezkuntza informalaren edo norberak izandako esperientziaren bidez.” (Bolívar, 2007:129). “Hortaz, ez dira gutxieneko edukiak, baizik eta etorkizunean arlo pertsonalean eta lanbide-arloan garatu ahal izateko, eta gizarteko bizitzan parte hartu ahal izateko beharrezkoak diren oinarrizko edukiak.” (Bolívar, 2007:141).

Iturria: Bertan eginda.

⁴ Hemen aipatua: Boni et al. (2006:98).

Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzak garatu behar duen estrategiak hezkuntza-arlokoa izan behar du. Alde batetik, Europar Batasuneko politika-, gizarte- eta kultura arloko inkoherentzia guztiak arindu behar ditu, eta, bestetik, ondo bermatu behar du Europako gune guztian oinarritzko gaitasunak hartuko direla bizikidetza baketsua izateko, eta zientzia-, teknika- eta lan-arloko garapena lortzeko.

1.3.2. Jarduteko ildoak eta gomendioak

Europar Batasuna ahalegin handiak egiten ari da, eta herritartasun demokratikorako hezkuntza sartzeko proposamenak hedatu ditu eta lehenetsuzkotzat jo ditu; esan liteke kide diren herrialde guztiek onartu behar duten ezinbesteko agindua dela Europako Kontseiluak ahalik eta sektore gehien mobilizatu nahi du, Batasuneko herrialde guztietan Herritartasunerako Hezkuntza sustatze aldera, eta, era horretan, pertsonen eta taldeen bizikidetzarako gune bateratua lortze aldera. Era horretan, elkarren artean hain desberdinak diren pertsona eta talde horiek eskubideen eta betebeharren oinarritzko arau batzuk partekatuko dituzte, kultura aldetik dituzten bereizgarrien gainetik, beren jatorrizko herrialdeak dituen berezitasunen gainetik, eta beren egoera ekonomikoaren eta prestakuntzako mailaren gainetik.

Hala irakasleak prestatzeari nola baliabide pedagogikoak sortzeari dagokienez, Eurydice txostenean hauxe ematen da aditzera: “Herritartasunerako Hezkuntzaren arloan honako hauek izango dute aholkularitza emateko ardura: hezkuntzako agintariek, fundazio publikoek edo pribatuek, hezkuntza ikertzeko zentroek, eta giza eskubide, demokrazia eta bakerako hezkuntzaren eremuan lanean aritzen diren gobernu kanpoko erakundeek.” (Eurydice, 2005:61).

Europako Kontseiluaren mezua Europar Batasuneko herrialde guztiek bete behar duten agindu bat da, araututako prestakuntzari dagokio, Lehen Hezkuntzan hasi eta unibertsitate-ra iritsi arte, eta sektore ez-formaleko hezkuntza iraunkorra ere hartzen du barne. Bestalde, agindu horretan ez dago inolako mugarik adinari, gizarte-baldintzei, sexu edo generoari, edota kulturako jatorriari dagokienez. Bestela esanda, hauxe lortu nahi da: pertsona guztiak gaitasuna jaso ahal izatea bizikidetza demokratikoan parte hartzeko, banakako

eta taldeko giza eskubideak zainduz eta babestuz. Era berean, bultzagarri bat da programa, metodo eta baliabide pedagogikoei, eta irakasleak prestatzeko ikastaroei begira, horiek berriz antolatu beharko baitira, Europako biztanle guztien eragina izan beharko lukeen hezkuntzako maxi-estrategia honi jarraiki. Europako Kontseiluak sakon aztertzen ditu auzi horiek guztiak orain garatzen ari den eta 2006-2009 denboraldikoa den *Guztionezko demokrazia ikastea eta bizitzea* izeneko programan.

Adituen batzorde batek prestatu dituen zuzentzarako horietan, lehenetsun hauek finkatzen dira:

- “Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzako politikak eta estrategiak sendotzea Europar Batasuneko kide diren estatu guztietan.
- Zubiak eraikitzea nolabait murriztu ahal izateko estrategia politiko orokorrenetako printzipio-adierazpenen eta Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzako praktikak hezkuntza formalean edo hezkuntza ez-formalean garatzeko dagoen prozesu eragingarriaren artean dagoen tartea.
- Kalitatezko hezkuntza bermatzea Europako herritar guztientzat, batez ere gizarteko talde “ahulentzat”.
- Parte-hartze demokratikoa indartzea ikastetxeak kudeatzeko lanean.
- Irakasleen prestakuntza sustatzea eta areagotzea.
- Jardunbide egokiak adierazteko eta elkarri trukatzeko sistemak hobetzea.
- Sozietate zibil gehiena prozesu horren barruan sartzea, eta instituzioek eta giza eskubideen arloan espezializatu-ta dauden garapenerako gobernu kanpoko erakundeek ere parte hartzea.” (Europako Kontseilua, 2006:3-4).

Zeregin hori izugarri handia da, eta, hortaz, Europako, estatuko edo autonomia-erkidegoko instituzio guztiek eraginkortasunez hartu behar dute parte. Era berean, ikastetxeetako agintariek, irakasleek eta ikastetxeek berek, eta hezkuntza-erkidego osoak eta gizarteko beste eragile batzuek ere hartu behar dute esku, bereziki garapenerako

governuz kanpoko erakundeek. Erakunde horien zeregin nagusia nabarmentzen da, eta onartzen da aitzindariak direla giza garapena, elkartasuna genero-arloko berdintasuna eta kulturako aniztasuna bezalako balioetan oinarritutako hezkuntzan. Isilbidez onartzen da Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzak eta Garapenerako Hezkuntzak dituzten oinarriak eta helburuak bat etortzen direla.

Nabarmena da ez dagoela adostasunik, ez koordinaziorik, Batasuneko estatu guztietan homologatu ahal izateko, Herritartasunerako Hezkuntzak eduki beharko litzuzkeen gutxieneko edukiak finkatzerakoan. Era berean, sumatzen da gabezia bat dagoela Europako aginduaren araudian; gabezia horrek aukera ematen du zuzentarauak modu okerrean ezartzeko, eta, gainera, estatu bakoitzak bere nahierara egin dezake interpretazioa, eta ez zaie zehapenik ezartzen hezkuntzako proposamen hau saihesten edo desitxuratzen duten estatuei.

1.4. Herritartasunerako Hezkuntza Estatu espainiarrean

Estatu espainiarrean dauden gatazkak, gutxi gorabehera, Europar Batasunean dauden gatazka horietan dira, baina eskala txikiagoan gertatzen dira. Demokrazia eta botereen banaketa ondo sendotuta dagoen errealitate bat dela ematen du. Hala ere, ez dugu ahaztu behar biztanle askok diktadura frankistaren garai luzea nozitu zutela eta orduko prestakuntza jaso zutela. Zoritxarrez, Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, Herritartasunerako Hezkuntzak tradizio ahula du Estatu espainiarrean. “Gure orain dela gutxiko iraganak ondo azaltzen du zer dela-eta ez den erraza izan [...] hiriko hezkuntza edo herritartasunerako hezkuntza gure curriculumaren barruan sartzea.” (Bolívar, 2007:163). Kultura demokratikoak eta parte hartzeko joerak sustrai ahulak dituzte herrialde honetan, hala arlo politikoan nola prestakuntza-arloan.

Kontua ez da demokraziari uko egitea, edo azken 30 urteetan Espainiako gizarteak aurrerantz egin duen jauzia ezeztatzea. Ez, kontua da instituzioak eta jardute demokratikoak sendotzea, eta Estatu espainiarraren eta Europar Batasunaren arteko loturak finkatzea. Orain dela gutxikoa

den Hezkuntzako Lege Organikoak (2006) Herritartasunerako Hezkuntza sartu du hezkuntzari buruzko eztabaiden agendan, Europar Batasunak Europako herritartasuna bultzatzeko duen hezkuntzako estrategiaren ondorioz.

Estatu espainiarrean, badira ondo aztertu behar diren ñabardura batzuk. Jakinaenez, Europar Batasunak bultzatzen duen Herritartasunerako Hezkuntzak, Estatu espainiarrean, Hezkuntzako Lege Organikoak berretsi duen hezkuntzako proposamen bat izateaz gain, oso eztabaidatua izan den gai bat da, eta oihartzun handia izan du komunikabideetan. Baldintza horietan, oso zaila izan da eztabaida lasaia eta kritikoa izatea, Herritartasunerako Hezkuntza curriculumeko ikasgai gisa ezartzeak eragingo dituen arazoei buruz eta horrelako garrantzia duen proposamen batek hezkuntza-arloan eduki beharko lukeen etorkizunari buruz. Gizarteko plataformek eta mugimenduek, eta hezkuntzako eragileek eta irakasleek izan duten parte-hartzea aski mugatua izan da. Alabaina, gizarte- eta hezkuntza-arloko eztabaidan auzi batzuk nabarmendu dira, nahiz eta oihartzun urria izan komunikabideetan. Hona hemen auzi horietako batzuk:

- Ikasgai modura duen curriculum-estatusaren eta zeharkako ikuspegiaren arteko loturaren arazoa.

Ministerioak proposatu du ikasgai berezi modura hartu behar dela, eta Lehen Hezkuntzako 5. mailan eta DBHko 3. mailan sartu behar dela curriculumean. Argudio laburrak emanez, ikuspegi hori bultzatu da, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legean (1990), gizartean garrantzi handia duten hezkuntzako ikuspuntuak eta arazoak aztertzeko, proposatu zen zeharkako-tasunaren aurrez aurre: Giza Eskubide eta Bake Hezkuntza, Hezkidetzeta, Ingurumen Hezkuntza... Ikuspegi horiei guztiei buruz hausnarketa eta eztabaida sakona izan behar da, eta curriculumean hartu behar dira aintzat, zalantzarik gabe, hainbat galdera pizten baitizkigute: Zer-nolako harremana dute Herritartasunerako Hezkuntza izeneko ikasgaiak, oinarritzko gaitasunek, eta Herritartasunerako Hezkuntzak beste arlo batzuetan eta ikastetxeko antolakuntza demokratikoan duen zeharkako ekintzak? Nola lotzen da proposamen hori zeharkakoak diren beste ildo batzuekin?

Herritartasunerako Hezkuntza kontraesanean al dago balioetan hezteko dauden gainerako hezkuntzekin? Prestakuntza-arloan dituen proposamenak eta edukiak antzekoak baldin badira, zergatik ez ditugu kapitalizatzeko Garapenerako Hezkuntzaren arloan dagoen esperientzia, materialak eta prestatu diren metodoak?

Esate baterako, Herritartasunerako Hezkuntza aberas-teko baliagarriak diren ikuspegi desberdinen arteko lankidetzak estua sorraraziko duen guztia, ez soilik curriculumeko ikuspegi arloan, hezkuntzako jardute erregularran baliatu eta erabil daitezkeen estrategien eta baliabideen eremuan ere bai.

- Beste eztabaia garrantzitsu bat herritartasunaren eskalari dagokiona da.

Estatu espainiarraren proposamenean, herritartasunak, lehenbizi, barneko kohesio soziala indartzen du, eta ahalegina egiten du Europako zuzentarau batzuk betetzeko. Hala ere, beste logika batzuetatik ikusita, mundu osoan nagusi den globalizazioak dakarren esparruaren azterketak herritartasun global kosmopolitaren auzia nabarmentzen du oroz gain.

Horrela ulertuta, herritartasun hori eraikitzean, genero aldeko berdintasuna lortu behar da, gizonen eta emakumeen arteko botere-harreman bidezkoak berreraiki ahal izateko. Horrez gain, herritartasun horrek kultura artekoa izan behar du, era eta itxaropen askotako nortasunak eta inguruneak hartu behar ditu barne, eta proposamen etiko batean nahastu behar ditu, giza garapeneraren premisak oinarritzat hartuta.

- Estatuaren zeregin arautzailea.

Estatuak gizartea arautzeko gaitasuna berreskuratu behar du berriz, eta, horretarako, boterea duten talde pribatuei aurre egin behar die, talde horiek, beren interesak babeste aldera, demokraziaren eta kohesio sozialaren oinarriak ahultzen dituztelako. Hargatik, gutxienez, bi arrazoi garrantzitsu daude Estatu espainiarrean Herritartasunerako Hezkuntza sustatzeko:

1. Europar Batasunak emandako agindua eta egindako gomendioak onartzea, Europar Batasuna osatzen duten herrialdeen arteko bat-etortzea lortzeko.

2. Estatuan hain tradizio laburra duen kultura demokratikoa indartzea, eta zuzentasuna, giza eskubideak eta herritarren parte-hartzea bultzatzea barneko demokratizazioa lortzeko berme gisa.

Hezkuntzako Lege Organiko berriaren hitzaurrean, aurrekari hauek aipatzen dira: ELGEren (Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundearen) Hezkuntzako ministroen bilera (Paris, 1990), bilera horretan guztiontzako kalitatezko prestakuntza proposatu baitzen; eta UNESCOk deitutako Hezkuntzako Nazioarteko 47. Biltzarreko topaketa, bertan, 14 urte igaro ondoren, berriz proposatu baitzen zuzentasuna eta kalitatea bateratu behar zirela hezkuntzako eskaintzan. “Gaitasun” hitzarekin gertatzen den bezalaxe, “kalitate” hitzak hamaika gaizki-ulertu eta kontraesan biltzen ditu.

Zoritxarrez, hezkuntzako kalitatea gutxitan jartzen da harremanetan curriculumeko edukien egokitasunarekin, edo berritzaileak diren metodo eta baliabide didaktikoekin. Txosten burokratikoetan kalitateaz hitz egiten denean, batez ere ikastetxea kudeatzeko eraginkortasunari egiten diote aipamena; eta horrek azaleko seriotasun estatistikoren kutsua ematen die ikastetxean egiten diren jarduerari eta produktuari. Ikastetxeetan ezartzen diren kalitateko baremoak, normalean, iruzur bat dira eta kaltegarriak izaten dira zuzentasunari begira. Gizarteko egoerarik ahulenean dauden auzoek edo pertsonak ikastetxe gatazkatsu bat izango dute; bertan, ikasketaren emaitzak denik eta eska-senak izango dira, eta, era horretan, gero eta urrutiago egongo dira kalitateetik eta zuzentasunetik.

1.4.1. Gizarte-balioetako hezkuntzaren noraezko bilakaera

Gogoan izan dezagun Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legeak (1990) Balioen Hezkuntza, Giza Eskubide eta Bake Hezkuntza, Garapenerako Hezkuntza, Kultura Arteko Hezkuntza, Ingurumen Hezkuntza, Hezkidetzak eta horrelakoak proposatu zituela, zeharkako lerro gisa, arlo eta ikasgai desberdinetako curriculumeko edukietan horren eragina sartu ahal izateko. Ekimen hori bultzatu zen, Bizikidetzarako Hezkuntza izeneko ikasgaiak porrot egin zuelako Irakaskuntza Ertainen Erreformaren barruan (IEEn).

Zoritzarrez, zeharkakotasuna ere ez zen eraginkorra izan (Bolívar, 2007:151). Zeharkako ikuspegi gehienak ez ziren ikasgaietan sartu. Kasurik onenean, eskolaz kanpoko jarduerekin batera garatu beharreko curriculum paralelo gisa hartu ziren. Ikastetxe gehienetan, bakea, garapena, giza eskubideak edo kontsumo kritikoa testigantza modura bai-zik ez ziren azaldu.

Hala, beharbada zeharkakotasunak lortu dituen emaitza kaskarrak nolabait arintzeko, Lege honetan erabaki da Herritartasunerako Hezkuntza ikasgai berri modura sartzea. Hala ere, formula misto bat erabili da, hau da, alde batetik, ikasgaia da, eta, bestetik, ikastetxeko ikasgai eta jarduera guztien zeharkako gaia da aldi berean -ikastetxearen antolakuntza eta funtzionamendu demokratikoa ere barne hartuta-.

“Herritartasunerako Hezkuntza: haren xedea da ikasle guztiei gune bat eskaintzea, hausnartzeko, aztertze eta ikertzeko erregimen demokratiko baten oinarritzko ezau-garriei eta funtzionamenduari buruz, Espainiako Konstituzioan eta giza eskubideen adierazpen unibertsaletan eta itunetan ezarrita dauden printzipioei eta eskubideei buruz, eta, orobat, ingurune globalean herritartasun demokratikoaren funtza osatzen duten balio orokorrei buruz. [...] ikastetxeko bizitza osoan izan behar du eragina, eta balioen hezkuntzaren barruan garatu behar da, baina aldi berean ikastetxeko jarduera guztien zeharkako gaia izan behar du. Ikasgai berriak aukera emango du guztion bizitzari buruzko alderdi batzuk sakonago aztertze, eta lagungarria izango da herritar berriei prestakuntza emateko.” (Hezkuntzako Lege Organikoa; 2006:955).

Behar bezala arautu eta azaldu gabe dagoen irtenbide salomoniko horrek ziurgabetasuna eta zalantzak pizten ditu egin behar denari buruz; eta, aldi berean, aitzakia ederra da, zuzentarauen anbiguetatearen babesean, proposamen bat ere garatu nahi ez duten horientzat.

Estrategiarik teknikoenak eta pragmatikoenak Lanbide Heziketari, unibertsitateko prestakuntzari, lan-merkatuari, enpresaburuei, Estatu espainiarreko eta haren autonomia-erkidegoetako ekonomia- eta ekoizpen-egiturari, eta Europar Batasunean txertatzeko prozesuari daude lotuta.

Hala, hauxe ematen da aditzera: “Europa eraikitze prozesuaren ondorioz, nolabaiteko bateratze bat sortzen ari da hezkuntza eta prestakuntzako sistemetan, eta, horren ondorioz, hezkuntzako helburu orokorrak finkatu dira XXI. mendearen hasierarako. Datorren hamarkadan, ezagutzen oinarritutako ekonomia lehiakorragoa eta dinamikoagoa izatea lortu nahi da, ekonomiaren hazkunde eutsia lortzeko, eta, horrekin batera, enplegua hobetzeko, hala arlo kuantitatiboan nola kualitatiboan, eta kohesio soziala indartzeko. Asmo hori ondo islatu hezkuntza-arloan guztionak diren helburuak prestatzerakoan”. (Hezkuntzako Lege Organikoa, 2006:952).

Ohar horrek aditzera ematen duenez, Europar Batasunarentzat eta kide diren eta Batasunaren aginduak betetzen dituzten estatu guztientzat, hezkuntza barneratzaileak kontrasteanean dauden bi joera ditu: alde batetik, tresna egokia izan behar du aniztasunarekiko begirunean eta giza eskubideen sustapenean oinarritutako bizikidetzeta eta kohesio soziala lortzeko; eta, beste aldetik, erantzun egokia eman behar die lehiakortasunean eta ekoizpen-molde- en etengabeko aldaketan oinarrituta dagoen merkatuak dituen gorabeherei eta beharri zeharri.

Unibertsitateko prestakuntzako mailan, askoz nabarmenagoa da bi bide desberdin horien artean dauden tirabirak, Lanbide Heziketaren eremuan baino. Boni-k adiera zizue- nez: “Azken batean, Europako unibertsitatea bi tirabirarekin iritsi zen XX. mendearen bukaerara eta, gure ustez, bi tirabira horiek eragin handia izango dute Goi-mailako Hezkuntzako Europako Espazioaren garapenean. Alde batetik, bistan da goi-mailako hezkuntzan aurre egin behar zaioela eredu neoliberalari [...] eta balio humanistak berreskuratu behar direla. Baina, bestetik, globalizazioaren dinamikek eragina dute unibertsitatean, eta, horren ondorioz, unibertsitateak nahitaez hartu behar ditu kontuan produktibitatea hobetzeko prozesua, irakaskuntzaren eta ikerketaren kalitatea, berrikuntza, enpresa-kudeaketa eta horrelakoak.” (Boni; 2006:96).

Herritartasunerako Hezkuntzaren xedea hauxe da: “[...] ikasle guztiei gune bat eskaintzea, hausnartzeko, aztertze eta ikertzeko erregimen demokratiko baten oinarritzko

ezaugarriei eta funtzionamenduari buruz, Espainiako Konstituzioan eta giza eskubideen adierazpen unibertsalean eta itunetan ezarrita dauden printzipioei eta eskubideei buruz, eta, orobat, ingurune globalean herritartasun demokratikoaren funtsa osatzen duten balio orokorrei buruz.” (Hezkuntzako Lege Organikoa, 2006:955).

Aditzera ematen denez, helburu hori lortzeko, irakasleek bete behar dute zereginik garrantzitsuena, eta, hortaz, Legearen III. Tituluan, “[...] lehentasun berezia ematen zaio irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzari” (Hezkuntzako Lege Organikoa, 2006:956). Izan ere, III. Tituluan, irakasleen prestakuntza orokorra, hainbat ikasgai emateko behar diren titulazioak, teknologia berriak, atzerriko hizkuntzak eta berdintasun-arloko gaiak aipatzen dira, eta genero-indarkeriaren arloko osoko babes-neurriak nabarmentzen dira. Alabaina, ez da esaten Herritartasunerako Hezkuntzako ikasgaia garatzeko prestakuntza berezi bat eman behar denik, ez eta ezagutzaren arlo guztietan zeharkako gaia izan behar duenik ere. (Hezkuntzako Lege Organikoa, 2006:983-985). Jakina denez, horretarako, inbertsio ekonomiko handia egin beharko da, eta irakasleen gaitasunari lortzeko homologatuta dauden edukiak dituzten prestakuntzako ikastaroak egin beharko dira; dena dela, horrelakoak ez dira agertzen ezta diskurtsoan ere.

Europar Batasunak iradokitzen duenez, zubiak egin beharko dira adierazpenen eta jarduteen artean dagoen pitzadura hori ixteko. Horrek dakartzan erronkak eta zailtasunak handiak izan arren, Hezkuntzako Lege Organikoa tresna egokia izan liteke adin-tarte desberdinetan eta gizarteko talde desberdinekin lanean hasteko, erkidegoko zentzua sortzeko eta pertsonen banakako eta taldeko eskubideen errespetua oinarritzat hartzen duen etika garatzeko. Europan gertatzen den bezala, adostasuna lortu behar da curriculumeko edukietan, irakasleen prestakuntza bereziaren arloan, eta homologatzeko, lana ebaluatzeko, eta legea aldatzen dutenei edo betetzen ez dutenei zigorra jartzeko aukera emango duen legearen araudietan. Legea behar bezala araututa balego, autonomia-erkidegoetako gobernu batzuek edo erlijio sektore fundamentalista batzuek egin dituzten kontu barregarri batzuk saihestu ahal izango ziren.

1.5. Herritartasunerako Hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoan

Hezkuntzako Lege Organikoa ezartzen ditu Estatu osoan oinarritzekoak diren gutxieneko irakaskuntzak, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan; alabaina, autonomia-erkidegoei dagokie bi aldi horietako curriculumak finkatzea.

Euskal Dekretuak ere erreferentziako esparru europarra eta Hezkuntzako Lege Organikoa bera hartzen ditu oinarritzat, Oinarritzeko Hezkuntzarako curriculumaren proposamena egiteko; alabaina, argi onartzen du ikuspegi global hori *Euskal Herriko* ikuspegitik hartzen duela. Dekretu horrek garrantzizkoak diren bi berrikuntza jasotzen ditu, aurreko legegitzako esparruekin alderatuta.

1. Lehenengo aldiz, curriculum bakarra finkatzen da derrigorrezko hezkuntza osoan, hau da, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan; horrela, aldi horiek Oinarritzeko Hezkuntzaren barruan sartuta geratzen dira. Hortaz, continuum bat ezartzen da bi aldien artean, eta horrek esan nahi du, besteak beste, neska-mutilek lortu beharko dituzten helburuak eta gaitasunak derrigorrezko eskolatze-aldiko 10 urteak igaro ondoren ebaluatuko direla. Horrela, curriculumak zentzu orokoragoa eta bateratzaileagoa hartzen du.
2. Hezkuntzako Lege Organikoarekin gertatzen den bezala, eta *Europako Erreferentziako Esparruan* adierazten diren eskakizunei erantzute aldera, bigarren berrikuntza curriculumaren gaitasun-izaerari buruzkoa da. Dekretuak bi maila proposatzen ditu gaitasunei dagokienez.

Alde batetik, *Hezkuntzako gaitasun orokorrak* daude, hezkuntza orokorrerako erreferentziako ardatz nagusiak dira, eta arlo eta materia guztietan hartu behar dira aintzat. Sei ardatz nagusi azaltzen ditu, hau da, Delors txostenean (1996) adierazitako lau ardatzak eta Lisboaren ondorioz (2000) ezarritakoak:

1. Arduraz bizitzen ikastea.
2. Ikasten ikastea eta modu kritikoa pentsatzen ikastea.

3. Bi hizkuntza ofizialetan eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean komunikatzen ikastea.
4. Elkarrekin bizitzen ikastea.
5. Pertsona gisa garatzen ikastea.
6. Egiten ikastea eta ekimena izaten ikastea.

Bestetik, *Oinarrizko gaitasunak* daude, eta hauxe dira: “testuingurura egokituta dauden ezagutzak, trebetasunak eta abildadeak, jarrerak eta balioak era bateratuan batzea; izan ere, Oinarrizko Hezkuntza egiten duten ikasle guztiek gaitasun horiek guztiak eskuratu behar dituzte beren garapen eta errealizazio pertsonala lortzeko, eta, era berean, herritar eraginkorrak izateko eta gizarteratzeko”⁵. Kasu horretan, ikasleek tokiko, estatuko eta Europako esparruan eta mundu osoan ahalik eta eraginkortasunik handienarekin jarduten ikas dezaten behar diren gaitasunak azaltzen ari direla jotzen da. Curriculumari gaitasun-izaera hori emateak esan nahi du orain oinarrizko gaitasunak izango direla ebaluazioaren erreferentea. Azken batean, jakitea eta egiten jakitea, ezagutza eta ekintza, teoria eta praktika bateratu nahi dira.

Europako esparruan eta Hezkuntzako Lege Organikoaren esparruan bezala, badirudi Dekretuaren atzean dagoen kezkarik handienetako batek zerikusia duela oraingo egoera ekonomikoarekin eta gizarte lehiakorrago lortzeko asmoarekin, malgutasuna, berrikuntza eta ekintzailearen espiritua nortasuneko ikur nabarmen gisa hartzen dituen gizartea lortzearekin: “Gaur egungo gizarteak era askotako testuingurutan eta aldakortasun handiko baldintzetan ezagutzak aplikatzeko gaitasuna duten pertsonak behar ditu, sorkuntza eta berrikuntzak egiteko ahalmena erakutsiz aldaketei erantzuteko gai diren pertsonak”⁶.

Bestalde, Dekretuak ildo estrategiko hauek jasotzen ditu:

1. Ikastetxeen autonomia eta hezkuntzako erkidegoaren parte-hartzea. Autonomiak esan nahi du ikastetxeek curriculumaren zehaztasun-mailak hartuko dituztela

beren gain, hain zuzen, Ikastetxearen Ikaskuntzako Proiektua eta Curriculumeko Proiektua zehazteari dagozkionak -eta antolakuntzako beste alderdi batzuk ere bai-. Aski interesgarria da hezkuntzako erkidegoaren parte-hartzea eta eskolako arrakastaren auzia harremanetan jartzea. Onarpen horren ondorioz, ekimenak azal daitezke barneratzaileagoa den eta inguru-nearekin harreman hobea duen eskola eraikitzeko, zuzentasunaren aldeko neurri eraginkorragoak hobeto onar ditzakeen eskola. Ikuspegia bateratzailea da eta parte-hartzea bultzatzen du, zeharkakotzat jo izan diren hezkuntzako ildo guztiek beti aldarrikatu duten moduan, batez ere Garapenerako Hezkuntza eta Generoa (Hezkidetz) eta Kultura Arteko Hezkuntza izenekoek egin duten bezala.

2. Hizkuntzen tratamendua. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparruari jarraiki, beste ildo estrategiko bat hauxe da: autonomia-erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzak eta atzerriko hizkuntza bat edo bi behar bezala ezagutzea. Inguruneak gaztelaniaren erabilera errazten duenez, eta hasieratik desabantailan dagoenez, euskara hizkuntza nagusia izatea proposatzen da, baina gaztelaniaren erabilera ere onartzen da ikasteko hizkuntza gisa.
3. Aniztasunaren tratamendua, zuzentasuna, elkartasuna eta aukera-berdintasuna bezalako balioak oinarritzat hartzen dituen ikuspegi barneratzaile batetik. Ildo estrategiko hau gidatzen duen oinarria da, alde batetik, ikasle guztien ikaskuntza berma dezaketen tresnak ezartzea, eta, bestetik, baldintza pertsonalak, gizarte, ekonomia- eta kultura-arloko baldintzak edo beste arlo batekoak diren baldintzak oztopo ez izatea ikasleak erabat garatu eta gizarteratu daitezken. Horretarako, bizikidetzarekin eta tutoretza-zereginarekin zerikusia duen guztia indartzea proposatu da. Ideia nagusia da hezkuntza aldetik dauden banakako beharrez arduratzea, eta Oinarrizko Hezkuntzako zikloa ingurune normalizatu eta barneratzaile batean bermatzea. Aniztasunerako laguntza hori zehazte aldera, era asko-

⁵ 175/2007 DEKRETUA, azaroaren 16koa, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duena. (EHAA, 218., asteartea, 2007ko azaroaren 13a). 26.044 or.

⁶ Idem. 26.038 or.

tako neurriak eskaintzen dira: talde arruntetan hezkuntzako beharrian bereziak dituzten ikasleei laguntza ematea, bitan banatzea, berrindartzea, curriculum-a egokitzea, irakasle bakoitzeko dagoen taldea murriztea, eskolatze osagarria, edota hezkuntzako esku-hartze bereziak egiteko proiektuak.

Esku-hartze orokorreko proiektuak aski interesgarriak direla ematen du. Proiektu horiek egoerarik ahulenean dauden tokietako ikastetxeek prestatzen dituzte, ikastetxeko edo aldiko esku-hartze orokorreko ikuspegitik hezkuntzako beharriari erantzuna emateko. Horrez gain, *Esku-hartze bereziko proiektuak* daude, gizarte- edo kultura-egoera ahulekoak direlako hezkuntzako beharrian bereziak dituzten ikasleei zuzenduta.

Arlo honetan dagoen berrikuntza bat da adierazleen sistema bat prestatzea, osabidezko hezkuntza eskaintzeko beharriari erantzuna emateko. Zeregin hori Hezkuntza Sailaren esku egongo da, eta, era horretan, maila sozioekonomikoko eta kultura-mailako adierazleen sistema bat garatuko da, hartara, abiaburuko egoera ahulen osabidezko hezkuntza-politika bat prestatu ahal izateko. Horren bidez, aurrera egin ahal izango da euskal hezkuntzako sistemaren ikuspegi barneratzailearekin.

Filosofia hori izanda, Dekretuak Oinarrizko Hezkuntzak duen prestakuntzako izaera nabarmendu nahi du, izaera hezigarria azpimarratu beharrean. Hori garrantzitsua da, batez ere Bigarren Hezkuntzari dagokionez. Izan ere, orain arte, ikasle bakoitzaren garapen osoa bermatu beharrean, gehiago arduratzen zen aurre-batzilergoko ikasleak prestatzeaz. Hala ere, badirudi ez diotela ukorik egiten prestakuntza-arloan akademikoago den izaera horri, aurreko araudian nagusitzen zen horri.

Hala, aditzera ematen da “Oinarrizko Hezkuntzaren xedekak lortu ahal izateko behar den curriculumak ikasleek goi-mailako ikasketetan sartzeko behar den prestakuntza jaso behar duela, baina hobeto bateratu behar dituela pertsonaren garapenean dauden dimentsio guztiak;

hortaz, hezigarriagoa izan behar du, eta gehiago zuzendu behar da gauzak egiten jakitera”⁷.

Badirudi garrantzitsua dela berriaz aipatzea hezkuntza-erkidegoko eragile desberdinen arteko lankidetzaren behar dela -gizarte-eragileen lankidetzaren ere bai-. Horrela, ikastetxeak ardatz nagusiak izango dira, eta, haietatik abiatuta, ondo koordinatu ahal izango da koherenteagoa izango den eta ingurunean txertatuta egongo den hezkuntzako ekintza.

Bizikidetzaren kontzeptuan berrikuntzak daude, pertsonen arteko harreman adeitsuagoak erraztuko dituzten oinarrizko arauak betetzeaz gain, bakearen aldeko praktika onuragarria ere sustatzen baita, eta giza eskubideei, justiziarik, elkartasunari eta gizarteratzeko prozesuari lotuta dauden balioak garatzen baitira.

Beste erreferentzia batzuk tokikoa eta mundu mailakoa lotzen dituzte curriculumaren multzoan, esate baterako, Oinarrizko Hezkuntzak dituen helburuen artean, euskal kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko osagaiak ikasteaz eta bizitza osoan zehar etengabeko ikaskuntza lortzeaz gain, garapen iraunkorrarekin konpromisoa hartuta duen herritartasun eraginkorrari prestakuntza ematea aipatzen denean. Giza eskubideen ikuspegian aipamen berezia egiten diote generoaren auziari eta kultura arteko hezkuntza onartzeak ingurune barneratzaileagoak sustatzeko duen garrantziaz; hori guztia oinarri egokia da kritikoa den eta justizia sozialarekin konpromisoa hartuta duen herritartasuna eraikitzeko.

1.5.1. Ikasgaiak, Helburuak eta sekuentziarioak

Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza izeneko ikasgaiak balioetan oinarritutako printzipio batzuk eta zenbait ikuspegi orientatzaile biltzen ditu.

1. *Herritartasun globala* da norbanakoaren nortasuna eraikitzea, gainerako nortasunekin eta kultura-aniztasunarekin “begirunea” izanda. Dagozkigun arazo sozialak ulertu behar ditugu, tokiko eta mundu mailako

⁷ III Eranskina. *Oinarrizko gaitasunak*. (EHAA. 218. zenbakiaren eranskina, asteartea, 2007ko azaroaren 13a). 8 or.

dimentsiotik hartuta. Bestalde, harremanetan jartzen da justizia, elkartasuna, lankidetzeta, gainerako pertsonen zaintza, erantzukizuna, parte-hartzea eta begirunea bezalako balioekin.

2. *Giza eskubideak* ezinbesteko ikuspegia dira “parte hartzea bultzatzen duen eta justiziarekin, elkartasunarekin eta desberdintasunak gainditzeko xedearikin konpromisoa hartu duen demokrazia eraikitze”⁸.
3. *Genero-arloko* ikuspegiak -gaur egun ere emakumeek pairatzen dituzten indarkeriazko egoerak eta bereizkeria aintzat hartuta-, eta *kultura arteko* ikuspegiak -immi-grazioak izan duen hazkundearen ondorioz- ezartzen dutenez, nortasun anitzen eraikuntza da erronkarik nabarmenetako bat, gero eta kultura aniztunagoak diren gizarteetan.
4. *Eskola barneratzailea* egituratzeko zuzentasun eta aukera-berdintasuneko irizpideak hartu beharko dira

aintzat, ikasle guztiek zehaztuta dauden gaitasunak har ditzaten, eskolan arrakasta izan dezaten, eta jarduteko oinarri eta aipamenean multzo bat batera izan dezaten. Horrela, bizikidetzeta errazagoa izango da esparru demokratiko batean.

Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza izeneko ikasgaia beti agertzen da Oinarrizko Hezkuntzak dituen bi aldietan. Lehen Hezkuntzari dagokionez, hezkuntza horrek dituen hiru zikloetako azken zikloan irakatsiko da. Bigarren Hezkuntzan, ikasgaia emateko bi materia baliatuko dira: Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza, lehenbiziko hiru ikasturteetako batean, eta Etika eta Gizabide Hezkuntza DBH-ko laugarren mailan.

Ikasgaiaren edukiak 3 multzotan antolatuko dira Lehen Hezkuntzan, eta 6 multzotan, berriz, Bigarren Hezkuntzan, ondoko taulan jasota dagoen moduan.

6. Koadroa: Herritartasunerako Hezkuntzaren eduki multzoak		
Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	
Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza	Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza	Etika eta Gizabide Hezkuntza
1. Multzoa. Norbanakoak eta pertsonen arteko eta gizarteko harremanak.	1. Multzoa. Baterako edukiak. Sarrera modukoa den multzo honetan, gaitasunak lortzeko estrategia eta trebetasun erabilgarriak biltzen dira.	1. Multzoa. Baterako edukiak. Sarrera modukoa den multzo honetan, gaitasunak lortzeko estrategia eta trebetasun erabilgarriak biltzen dira.
2. Multzoa. Erkidegoko bizitza.	2. Multzoa. Bizikidetzeta.	2. Multzoa. Nortasuna eta alteritatea.
3. Multzoa. Gizartean bizitzea.	3. Multzoa. Parte-hartzea.	3. Multzoa. Teoria etikoak.
	4. Multzoa. Mundu askotariko bat.	4. Multzoa. Etika eta politika.
	5. Multzoa. Generoa eta gizarteko rolak.	5. Multzoa. Gaur egungo munduan dauden gizarteko arazoak.
	6. Multzoa. Demokraziarantz aurrera egitea.	6. Multzoa. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.

Iturria: Bertan eginda.

⁸ Idem. 213 or.

Edukien multzo hori sakontasun-maila desberdinarekin ikasiko da, aldiaren arabera. Multzoa bateragarria da Garapenerako Hezkuntzak duen ikuspegiarekin, horren arabera, hezkuntzako prozesuaren bidez, kontzientzia kritikoa piztu nahi baita munduko errealitateari buruz, politikoki eraginkorra eta konprometitua den herritartasun globala sustatu nahi baita, eta gizartea mugiarazi nahi baita giza-giaren garapenaren alde.

7. Koadroa: Dimentsioen elkarren arteko harremanak



Iturria: Morillas, M.D. (2006:12).

⁹ V. Eranskina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. *Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza*. (EHAA. 218. zenbakiaren eranskina, asteartea, 2007ko azaroaren 13a). 529 or.

¹⁰ Idem. 528 or.

Bestalde, hori guztia ikuspegi etiko baten ondorioa da, balio jakin batzuen aldeko hautua egin behar baita oraingo errealitatearen eta gizateriak mende hasierako garai honetan gainditu behar dituen arazo larrietako batzuen irakurketa kritiko bat egiteko. Izan ere, jarrera hori ondo azalduta dago Bigarren Hezkuntzarako *Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza* garatzen duen eranskinean: “Ikuspuntu etiko berri horrekin, egungo gizartearen berezko zenbait arazo azter daitezke; adibidez: kolektibo batzuen bereizkeriaren faktoreak, globalizazioa, herritartasun globalaren kontzeptua, giza garapen iraunkorra edota baita lankidetzeta eta bakerako kultura bat sortzea ere”⁹.

Garapenerako Hezkuntzan ikuspegi aldetik dagoen aniztasun hori eta irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuetan lortu nahi den aurrerapena -hala pertsonala, nola globala- bat datoz euskal curriculumak gidatzen duten hezkuntzako oinarrietan azaltzen denarekin, eta Giza Eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza izeneko ikasgaiaren eta, orobat, DBH-ko 4. mailan emango den Etika eta Gizabide Hezkuntza ikasgaiaren dauden eduki bereziekin.

“Laugarren mailako «Etika eta Gizabide Hezkuntza» irakaskaiak «Herritartasunerako Hezkuntza» irakaskaiak dituen helburu berak hartzen ditu; beraz, osagarriak dira. Halere, desberdin bideratuta daude, eta sakontasun-maila desberdinean lantzen dira. Azken hori, epai kritikoaren heziketarekin lotuta, herritar-balioak eraikitzean oinarritzen da, eta lehenengoa, berriz, epai moralaren heziketari lotutako balio moralak eraikitzean. Dударik gabe, eremu komun bat dute, eta, askotan, zaila da epai moralak gainerako epai kritikoetatik bereiztea, elkarri laguntzen baitiote. Edonola ere, Etika eta Gizabide Hezkuntzak askatasunari eta erantzukizunari ematen die lehentasuna, gizarte demokratikoetako balioespen-testuinguruan kokatuta. Gizarte horietan, etikoki balioetsuz hartzen dira bakea, gizarte- eta genero-berdintasuna, norbanakoaren desberdintasuna errespetatzea (horiek direnak direla), solidaritatea eta abar”¹⁰.

1.6. Auziaren egoerari buruzko ondorioak

Hala Europako hezkuntzako planek, nola estatukoek eta autonomia-erkidegokoek oinarritzko demokratizazioa bateratu nahi dute, begirunea, bizikidetzeta eta gatazkak elkarriketen bidez konpontzea bezalako gaitasun humanistak erabiliz. Gaitasun horien bidez, gutxitu nahi dituzte gizarte-eta kultura-arloko sektore desberdinen artean sortzen diren tirabirak eta liskarrak.

Denek nabarmentzen dute hezkuntzako prozesuak oinarritzko osagaiak direla, eta gizarteko aldaketa bultzatzeko baliagarriak direla (Eurydice, 2005; Hezkuntzako Lege Organikoa, 2006; Euskal curriculum, 2007).

Beharbada ulertzeko modu hori optimistegia izango da, batez ere kontuan izanik hezkuntza ezinbestekoa dela baina ez dela aski ekonomia-, politika- eta kultura-arloko zenbait auzi konpontzeko, eta, azken batean, bizikidetzeta, instituzio demokratikoekiko begirunea, edota aniztasunarekiko estimua erraztu ahal izateko. Dirudenez, abiaburutzat hartzen da gizartea eskolaren isla bat dela, eta gizarteko arazo guztiak hezkuntzako arazoak direla.

Hala ere, eskolak, ikastetxeak eta unibertsitatea gizarteko egituren, joeren eta zantzuen isla dira. Egia da bi aldetako norabidetan doazen eraginaren lurralde bat dagoela, baina “[...] zalantza ez da gizartea aldatzea gero eskola aldatzeko, edo alderantzizko prozesua betetzea, baizik eta elkarrekiko bitartekotza-lana egitea” (Bolívar, 2007:105), horrenbestez, hezkuntzako programa on batek eragina izango du aspian duen gizarteko ingurunearen baitan, “[...] baina erantzukizun guztia ikastetxeen bizkar utzita, ez gara oso urrutira iritsiko [...], izan ere, eskola ez da hezkuntzan dagoen ingurune bakarra, eta, era berean, irakasleak ez dira hezkuntzarloan dauden eragile bakarrak” (Bolívar, 2007:105). Gizarteko inguruneak dituen esparrua eta gunea askoz zabalagoak dira eskolak edo hezkuntzako erkidegoak dituenak baino.

Ekonomia- eta kultura-arloko globalizazioa, eta prozesu horrek giza eskubideen urraketan, inpaktu ekologikoan eta ingurumenaren hondamenean, indarkeriazko gatazketan,

edo ekonomia-, kultura- eta sexu-arloko zapalkuntzan izango dituen ondorioak aipatzen dira, nolabait herritartasunerako hezkuntzaren beharrezko justifikatzeko, herritartasunerako hezkuntzak aurre egin beharko baitio gaur egungo munduan nagusi den gizarteko garapen konplexu horri.

Dirudenez, argi dago herritar kritikoek baizik ezin dietela aurre egin ekonomia-, gizarte- eta kultura-arloan gaur egun dagoen garapen-ereduak ekartzen dituen erronkei. Hala, bada, herritar horiek gai izan behar dute gertakarien arteko mendekotasunak zehazteko, aginpidea duten botereei dagozkien erantzukizunak emateko, giza eskubideen urraketan aurrean haserretzeko, justizia sozial gehiago eskatzeko, erabakiak hartzerakoan parte-hartze demokratikoa eskatzeko, konpromisoak hartzeko, eta banaka eta taldeka gizartean egin behar den eraldatze-prozesuan parte hartzeko.

Alabaina, Herritartasun Demokratiko Globalerako Hezkuntza sustatzeko estrategia benetan gauzatu ahal izateko Europar Batasun osoan, kide den herrialde bakoitzean eta autonomia-erkidego bakoitzean, behar-beharrezkoa da kontuan izatea kontraesan nabarmen batzuk daudela proposamen orokorren espirituaren edo hitzaren eta proposamen horiek gauzatzeko erabiltzen diren baliabide edo bitarteko batzuen artean.

1.6.1. Koherentziaren auzia

Sinesgarritasuna lortzeko, ezinbestekoa da ahalik eta koherentziarik handiena egotea zehaztutako erronken eta prestatutako erantzun estrategikoen artean. Ikusi ahal izan denez, hiru arau-esparruak elkarren berdinak dira ia, eta proposamenak handitik txikira agertzen dira hurrenez hurren, kaxa txinarrak balira bezala. Denek dute iturri bereko eragina, eta denek dituzte arazo eta kontraesan berberak.

1. Hezkuntzako estrategia beharrezkoa da, baina ez da aski gizarte-, ekonomia-, politika- eta kultura-arloko kohesio-arazoak konpontzeko.
2. Hezkuntzako eta gizarteko balioen arteko kontraesana. Gainerako arloetan aldaketa lortzeko politikak eta

- estrategiak falta direla sumatzen da; politika horiek koherenteak izan behar dute Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzako estrategiarekin, eta ez dira haiekin kontraesanean egon behar.
3. Nahasgarria eta kontraesankorra da, alde batetik, norbanakoaren eta taldearen etikari lotuta dauden balio demokratikoen berrikuntza bultzatzea, eta aldi berean, bestetik, prestakuntza tekniko iraunkorra eskatzea, gupidagabeko lehiaren zerbitzuan eta erregulaziorik gabeko merkatu askearen hazkunde ekonomikoaren zerbitzuan.
 4. Generoko berdintasuna hainbeste azpimarratzea kontraesankorra da oraindik aski sexista den, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea galarratzen duten oztopoak kentzeko politika erabakigarriak behar dituen gizarte batean. Hori, eskolaren esparrura eramanez gero, aldaketak egin beharko liriteke egituretan, curriculumean eta irakasleen prestakuntzan bertan.
 5. Aniztasunaren balorazioa egitea desiragarria eta nahi-taezkoa da, baina, besterik ez bada ere, ez dator bat legezko immigrazioari eta immigrazio *alegalari* ematen zaien tratamendurekin eta, orobat, atal honetan giza eskubideak etengabe murrizteko dagoen joerarekin.
 6. Xahutzea, kontsumoa eta gastua ekonomia bide onetik doala argitzen duen adierazle modura hartzea ez dator bat kontsumo kritikoa, herritartasun arduratsua eta ingurumenarekiko begirunea bezalako ideiekin.
 7. Gai publikoetan parte-hartze demokratiko eta arduratsua sustatzea ez dator bat ikasleen, ekologisten, feministen, sindikatuen eta beste mugimendu alternatibo batzuen aurka -esate baterako, antiglobalizazioko mugimenduen aurka- poliziek egindako errepresioarekin eta deskalkifikazioekin.
 8. Zaila da kohesio soziala lortzea halako sistema batean, hau da, aberastasuna esku gutxi batzuetan biltzea errazten duen, eta -finantza-kapitala edo tokiko edota nazioz gairikoa enpresa handiak kontrolatu edo zerga-petu beharrean- soldatak kontrolatzen, eta kaleratzeak eta kontratazioak malgutzen dituen sisteman.
 9. Giza eskubideak babesten dituen herritartasun globalaren alde egitea ideia laudagarria da, baina ez dator bat lpar eta Hegoko herrialdeen arteko harreman desorekatuekin, txirotasunaren hedadura bermatzen duten esku-hartze ekonomiko edo militarrekin, gizartean dagoen desberdintasunarekin, eta beste leku batzuetan giza eskubideak urratzeko dauden joerekin.
 10. Komunikabideetan, zineman, telebistako sailetan, bideojokoetan eta arte edo aisialdiko beste bide batzuetan, ez diete kontrolik egiten indarkeriaren apologiari, eta ez dute zehapenik jartzen; joera horrek sinesgarritasuna kentzen die gatazkak bide baketsuak erabiliz konpontzeko eta elkarriketak izateko proposamenei.
- Bidegurutze filosofiko baten aurrean gaude, eta, horiek horrela, aberastuta dauden eta era formalean demokratikoak diren herrialdeetan, giza eskubideei dagozkien balioetan hezi nahi dituzte, baina ez dira gauza gizartean dagoen desberdintasuna berriz egituratzeko (Fernández Liria, Fernández Liria eta Zahonero, 2007). Beren herritarrak bizikidetzaren kontzeptio arduratsu eta adeitsu bati jarraiki hezi nahi dituzten pertsona horiek gerra eta politika neokolonialeetan sartuta ibili dira, eredu ultra liberalaren ondun-goseak bultzatuta. Neoliberalismoak ekartzen duen ekonomia- eta gizarte-ereduaren oinarrian, aberastasuna gero eta gehiago metatzen da biztanleriaren ehuneko urri baten eskuetan, eta, beraz, urritasuna eta pobrezia gero eta gehiago zabaltzen da biztanle gehienek artean. (Garapenerako Nazio Batuen Programa, Urteko txostenak, 1992-2007).

1.6.2. Gaitasunen auzia

Cuadernos de Pedagogía izeneko aldizkariaren argitalpen-artikuluak, Carbonell-ek sen handiz aditzera ematen duenez, “«Gaitasunarekiko mania» izendatzeko era berri bat da -hitzak aldatzen dira, baina kontzeptuak ezer gutxi, eta beti irakatsi nahi izan dena modu modernizatuago batean izendatzeko erabiltzen da: kultura aintzat hartzeko, mundua

ezagutzeko, modu etikoan jokatzeko eta bizitzan duintasunez ibiltzeko beharrezkoa den jakintza.” (Carbonell, 2008:3).

Carbonell-ek berriz esaten du kasu horietan oinarritzen direla sekula izan diren proposamenik onenak, orain dela gutxi Gardner edo Delors-ek egin dituzten proposamenak kontuan izanda, azken batean, horiek gai berari buruz egindako aldaerak baizik ez baitira.

Taula honetan ikusten dugunez, estatuko eta euskal esparruan zehaztuta dauden oinarritzko gaitasunen artean dagoen bat-etortzea erabatekoa da, terminologia aldeko aldaketa txiki batzuk alde batera utzita. Bestalde, gaitasun horien eta Europako esparruan zehaztatuta dauden gaitasunen artean dagoen bat-etortzea erabatekoa da ia, alde batera utzita hizkuntza-gaitasunak European xehakaturata agertzen direla eta Hezkuntzako Lege Organikoan eta euskal curriculumean, berriz, multzokatuta daudela, eta matematiketako

8. Koadroa: Oinarritzko Gaitasunen konparaketa		
Europako Erreferentzia Esparrua	Hezkuntzako Lege Organikoa	Euskal curriculumaren dekretua
Ama-hizkuntzan komunikatzea.	Hizkuntzazko komunikazioko gaitasuna.	Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
Atzerriko hizkuntzetan komunikatzea.		
Matematikako gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarritzko gaitasunak.	Matematikako gaitasuna.	Matematikarako gaitasuna.
	Ezagutzako eta mundu fisikoarekiko elkarreragineko gaitasuna.	Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.
Gaitasun digitala.	Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala.	Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
Ikasten ikastea.	Ikasten ikasteko gaitasuna.	Ikasten ikasteko gaitasuna.
Gizarte- eta hiri-gaitasunak.	Gizarteko eta herritartasuneko gaitasuna.	Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
Ekimenaren sena eta enpresa-izpiritua.	Autonomia eta ekimen pertsonala.	Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
Kulturako adierazpenak eta kontzientzia.	Kulturako eta arteko gaitasuna.	Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.

Iturria: Bertan eginda.

gaitasuna eta gaitasun zientifikoak, bestalde, Europako esparruan multzokatuta daudela, eta bigarren bi kasuetan, ordea, banatuta.

Aspalditik, pedagogian “ikaskuntza nabarmen” hitza erabiltzen da berariaz erakusteko, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuaren bukaeran, norbanakoak eta taldeak gai direla kontzeptu, prozedura edo jarrera aldetik hartu dituzten ezagutzak aplikatzeko, ikasgelen barruan eta kanpoan azaltzen den edozein egoeretan.

Beste batzuetan, argi eta garbi aipatu da gaikuntza, edota ezagutzak, trebetasunak eta balioak eskuratzea. Carbonell-ek dioen bezala, ideia berberaren bertsio desberdinak dira. Beharbada, “gaitasun” hitzaren hautuak hiztegia modernizatzeke xedea izango du, berritzailea izan nahi duen diskurtso baten ikur gisa. Alabaina, badirudi hitza hautatu dela aski anbiguo delako, eta, hortaz, aukera ematen delako herritartasun demokratikoaren aldeko berrikuntza metodologiko eta etiko gisa hartzeko, baina merkatu teknologikoari eta lan-merkatuari erantzuna emateko duen alde teknikoaz baztertu gabe.

Bestetik, Carbonell-ek nabarmentzen du ikasgai bakoitzak dituen eduki bereziak pisu gehiago dutela oraindik ere oinarritzko gaitasunek baino, eta desoreka hori ezin izango dela zuzendu eskolako gramatika aldatzen ez bada, hau da, eskolaren egitura, funtzionamendua eta curriculumaren kontzepzioa aldatzen ez bada. “Orduantxe, oinarritzko gaitasunei buruz soilik hitz egitea erretorika huts bilakatzen da, edukirik ez duen gailu teknokratiko.” (Carbonell, 2008:3).

Zalantzarik gabe, “gaitasun” hitza hautatzeak eztabaida ugari piztu ditu. Alde batetik, Carbonell-ek adierazi dituen arrazoiengatik, eta, bestetik, Bolívar-ek eman dituen argudioengatik: “enpresa- eta lanbide-arloko «gaitasun» hitzaren hasierako jatorria ikusita, oso susmagarria da gaitasunetan oinarrituta dagoen prestakuntzako sistema, politika neoliberaleri lotuta dagoelako, eta politika horiek merkatuaren eskarien eta giza baliabideen kudeaketaren mende jartzen baitute hezkuntza”. (Bolívar, 2007:143).

Beste alde batetik, auzi erretorikoak edo lexikoak direla argudiatuz eztabaida hori erabakita utzi arren, arazoa berriz azalduko litzateke alde guztiz pedagogikoan eta didaktikoan. Ez dago batere argi gaitasun horietako bakoitzak duen edukia, ez eta helburu horiek lortzeko metodo egokiak zein diren. Emandako denbora askoz laburragoa da, ohiko curriculumak garatzen emandakoa baino.

Elkarrekin bizitzen eta parte hartzen ikasteko, jasanbera izateko, eta iritzi edo ohitura desberdinak begirunez hartzen ikasteko, prozesu luzea behar da, eta horren jarraipena eta ebaluazioa ez dira oso ziurrak. Aitzitik, hizkuntza, zientzia eta teknologiaren ikaskuntza funtzionaltan, aski da guztiz abstraktuak diren edukiak saihestea, eta praktikan arreta gehiago jartzea: era horretan, behar bezala bermatuko dugu ikasleek ikasitakoa errepikatu ahal izango dutela eskolaz kanpoko munduan eta lan-munduan.

Arazoa da elkarrekin bizitzeko dauden gaitasunik garrantzitsuenak direla -hau da, gizarte bakoitza multzo bidezkoago bilakatzeko, eta gizarte horretan begirunean eta elkartasunean oinarritutako banakako eta taldeko etika lortzeko gaitasunak- era lausotuagoan adierazi direnak eta zailago frogatu ahal izango direnak. Era lausotuan zehaztutako “gaitasunak” sortzea kontraesana da berez, inoiz ezin izango baita jakin gaitasun bat hartu den, ez eta zein mailatan hartu den ere, gaitasun horren itxura, edukia, etorkizuna eta mugak zehaztugabeak direlako. Hausnarketa horiek guztiak ikusita pentsa dezakegu “gaitasuna” tresna bat direla ikaskuntza emankorretan eta errentagarrietan eraginkortasuna bilatzeko prozesua definitzeko, eta horren osagarria banakako eta gizarteko apaindura moral bat dela, eta bertan inork ezin duela ondo bermatu bere eraginkortasuna.

Irakaskuntza-arloko nahasketa hori ikusita, prozesuen edukietan, prozeduretan, jarraipenean eta ebaluazioan dauden hutsune ugariak kontuan izanda, euskarri bat aurkitu nahi da, ikasgaiaren curriculumak antolatzeke eta hierarkiatan banatzeko. Askotan gertatzen den moduan, hutsune programatikokoaren aurrez aurre, ikasgaiaren edukiak benetan zehazten dituztenak ez dira ez estatua, ez ikastetxeak, ez eta irakasleak ere; argitaletxeek egiten dute zeregin hori.

Egoera gaiztoa da, testuliburuaren argitaletxeek azkar jartzen baitituzte beren produktuak merkatuan, merkatuko kuota handiagoa lortzeko, milaka ikastetxek eta hezkuntzako erkidegoek egindako eskaintza etekin handikoa baita. Hezkuntzak eraldatzeko duen lehenetasuna azkar-azkar egindako formatu txiki bilakatzen da, merkatuaren beharri-zanei erantzuteko.

“Testuak curriculumaren teoria islatzen du zehazten dituen zereginetan; hala, beraz, ez da soilik informazioaren euskari teknikoa, horretaz gain, curriculuma egiteko eta ulertzeko modu bat ere bada.” (Martínez Bonafé, 2002:23). Martínez Bonafé-k berak aipatzen ditu Freinet-ek gidaliburuari buruz egin zituen hausnarketak, horrek esan baitzuen gidaliburuak *astunak* zirela eta etorkizunik ez zutela (Martínez Bonafé, 2002:27). Eztabaida luzea egin beharko genuke testuliburuak *per se* onak edo txarrak diren adierazteko, baina, aitzitik, komenigarria izango litzateke ikasgai berezi honetako gidaliburuaren kalitatea beste batzuekin alderatzea.

Jares-ek (2008) oso azterketa interesgarria egiten du Herritartasunerako Hezkuntzako testuliburuari buruz. Haren ustez, testuliburuaren egitura eta edukiak ezagutzea ezinbestekoa da ikasgai hori nola aurkezten eta azaltzen den ebaluatzeko. Jares-ek Anaya, Casals, Editex, Laberinto, Octaedro, Pearson Alhambra eta SM argitaletxeen testuliburuak aztertzen ditu. Testuliburu gehienek kontzeptuzko akats larriak dituzte, ez dute diktadura frankistari buruz hitz egiten, aditzera ematen dutenez txiroek berek dute txirotasunean egoteko errua, sexua eta generoa nahasten dituzte, sarritan sexistak dira, etengabe hitz egiten dute tradiziozko familia katolikoari buruz, eta bazter uzten dituzte beste mota batzuetako familia guztiak. Testuliburu horietako askok ia ez dute aipatzen elkarteen mundua, ez eta Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak ere, nahiz eta horiek guztiak gizarte-ehuna mugiarazten eta kontzientzia solidarioa pizten duten mugimenduak izan. Haietako askok nahastu egiten dute elkartasuna karitatearekin edo errukiarekin. Batzuek gizartean dagoen desberdintasuna justifikatzen dute, eta gehienek ez dute aipatu ere egiten bakea edo giza eskubideak sustatzeko hezkuntza. Gatazkari buruzko ikuspegi negatiboa dute denek, eta

gehienbat kultura aniztasunean kokatzen dute gatazka, gizakien arteko gainerako harremanetan gatazkarik egongo ez balitz bezala. Azterketa oso sakona da, benetan merezi du irakurtzea eta erreferentziatzat hartzea eztabaidak egiteko, zehazki, gidaliburuetan aztertzen den ikasgai berri bat jartzea absurdoa den edo ez erabakitzeke; izan ere, “[...] gidaliburu horiek jasotzen dituzten kontzeptuak eta balioak ikasgaiak berak dituen helburuen eta edukien aurka daude” (Jares, 2008:69).

1.6.3. Eredua homologatzeko zailtasunak

Hezkuntzako estrategiaren auzi bereziei dagokienez, argi dago Europar Batasunaren aginduak ez zuela aurreikusita ikasgai ezartzeko eredu edo araudi argi bat, irakaskuntzako prestakuntzari eta edukiei buruzko zuzentzarauak beteko zirela bermatzeko. (Eurydice, 2005). Hargatik, txosten honetako mapetan, herrialde batzuek materia *ad hoc* bat sortu zuten, eta horren edukiek Europako zuzentzarauak ezarritakoa betetzen dute. Beste batzuek zeharkotasunera jo dute, eta Europako Kontseiluaren oharrak hartu dituzte aintzat, ikastetxeko jardura guztiei, eta arlo eta ikasgaietako curriculumen edukiei buruzko orientazio gisa. Beste herrialde batzuk biak hartu dituzte, ustez osagarria den araubide misto batean. Estatu espainiarrean azken aukera hori hartu da.

1. Ez da oso fidagarria hezkuntzaren aldeko hautua egitea kohesio soziala lortzeko tresna gisa, kontuan hartzen badugu hezkuntzan egiten den inbertsioa zein urria den; izan ere, Europako BPGd-ren %1,4koa da batzuek beste, eta Estatu espainiarrean, berriz, kopuru horretatik behera dago.
2. Ekimen hori ondo zabaldu behar da, eta, horretarako, lehenetasuna eman behar dio hezkuntza publikoari eta laikoari. Horixe da kohesioa eta aukera-berdintasuna lortzeko lehen urratsa. Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza pribatuak eta itunduak duten pisua kontraesanean dago gizartean zuzentzasuna lortzeko adierazpenarekin.
3. Oinarritzat hartzen da ikastetxe guztietan uniformetasuna eta berdintasuna dagoela. Hala ikastetxe

publikoetan, nola pribatuetan edo itundutakoetan. Auzo batean zein bestean kokatuta egon, badirudi ez dagoela maila aldeko baldintzarik, ez eta mugarik ere, ekonomia eta kultura-arloko baliabideen aldetik. Ustez, pertsona guztiek, hala irakasleek nola ikasleek, mezu bera jasoko dute, eta ildo bereko erantzuna emango dute denek.

4. Adostasun estrategikoa dago, baina ez dago homologaziorik politketan, programazioetan, edukietan, metodo pedagogikoetan edota irakasleen prestakuntzan.
5. Ez da irizpiderik ezarri materialen kalitateari dagokionez, ez eta ikasgaia emateko ardura duten irakasleen profilaren aldetik ere.
6. Kontraesankorra da gaitasunen araberako ikaskuntza proposatzea eta, aldi berean, ikasgaien araberako tradiziozko curriculumari eustea.
7. Ez dago argi nola bateratuko den ikasgai berri bat abian jartzeko prozesua eta, aldi berean, haren edukien zeharkako izaeraren sustapena.
8. Ez dago argi zein izango diren hezkuntzako erkidego osoaren -garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak barne hartuta- lankidetzara arautuko duten parte hartzeko kanalak.
9. Ez da aurreikusi kalitateko kontrolak egitea, jarraipen eta ebaluazioko metodorik ezartzea, edo zehatzeko tresnak egotea, eska daitezkeen gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten instituzio publikoei edo pribatuei begira, ez eta baldintza horiekin kontraesanean erortzen diren edo horiei uko egiten dieten instituzioei begira ere.
10. Ikasleen eta Gurasoen Elkartek osatzen dituzten kideen jatorria anitza denez, zailtasun handia dago “[...] gizartean eta ikasgeletan dauden kultura desberdin guztiak islatuko dituen curriculum eklektiko bat prestatzeko.” (Gimeno 2001:249; hemen: Bolívar 2007:65).

1.6.4. Diskurtsoaren eta errealitatearen arteko kontraesana

Hori guztiaren ondorioz narraziozko diskurtsoa erabiltzen da, irakasleek aurkituko dituzten zailtasunak ezkutatzeko edo disimulatzeko. Herritartasun globalaren eta demokratiakoaren bultzatzaile onenek ere, dirudienez, ez dute ikusi “koska handia dagoela adierazpen erretoriko handien eta eskoletan, hezkuntzan, bizitzan barrena, eta erkidegorik zabalenean adierazpen horiek gauzatzeko benetan hartzen diren neurri zehatzen artean.” (Bolívar, 2007:163).

Herritartasuna ez da soilik eskola, eta eskolak “[...] ezin du epe luzean jarraitu gizartean ez dauden balioak aldarrikatzen.” (Bolívar, 2007:109). Dirudienez, herritar guztiek -adin eta gizarte-baldintza guztietako herritarrek- gaitasun batzuk ikasi behar dituzte parte hartu eta beren iritzia eman hala izateko, edota beren ikastetxeko, erkidegoko, nazioko, estatuko edo Europar Batasuneko kudeaketa politikan ere eragina eduki ahal izateko. Itxura denez, Herritartasunerako Hezkuntzak, berak bere kabuz, ezin ditu horrelako tamaina eta garrantzia duten aldaketak bere gain hartu, eta gainera ez du egin behar.

Osagai horiekin, zaila izango da kalitatezko hezkuntza ematea, hau da, gizarteko zuzentasuna, herritartasun europarraren ideia, eta tokiko edo mundu osoko giza garapenean parte-hartze arduratsua bultzatuko duen hezkuntza ematea.

2. Herritartasunerako Hezkuntza Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegitik

2.1. Garapenerako Hezkuntzaren bilakaera

Ondoko koadroan ikus daitekeenez, Garapenerako Hezkuntzak bilakaera garrantzitsua izan du. Elkartasunaren eta lankidetzaren aldeko mugimenduak sortu zuen, eta 90eko hamarkadatik aurrera, 5. belauniko Garapenerako Hezkuntza bilakatu da. Haren bereizgarri nagusia Herri-tartasun Globalerako Hezkuntzari ematen dion bultzada

da, horrela giza garapena eta horrek berekin dakartzan guztia sustatzen baitu, hau da, generoko ikuspegia, ingurumena, taldeko eta banakako eskubideak, justizia eta zuzentasuna, hala tokian nola mundu osoan. Horrez gain, parte hartzeko eta herritartasun arduratsua izateko gaitu behar diren pertsonak dituzten eskubideak eta betebeharrak aipatzen dira, gaur egun Europako Kontseiluak aipatzen duenaren ildotik.

9. Koadroa: Garapenerako Hezkuntzaren bilakaera				
Kronologia	Ikuspegia	Garapen / Garapenerako Lankidetzaren kontzeptua	Garapenerako Hezkuntza	Garapenerako Hezkuntzaren helburuak
50-70	Karitatea- Laguntza ematekoa.	Garapenkeria / Modernizazioaren paradigma. Laguntza teknikoa.	Hondamenezko irudiak eta mezuak. Estereotipoak berrindartzea. Ikuspegi paternalista.	Funtsak biltzea.
70-80	Kritiko-Solidarioa.	Mendekotasunaren paradigma. Elkartasun politikoa. "Oinarritzko beharrianak" asetzea.	Garapenerako Hezkuntza hezkuntzako prozesu gisa. Garapenaren / Azpigarapenaren arazoak azpimarratzea. Elkarmenpekotasuna Nazioarteko bidegabeko ordena salatzea. Erantzukizun historikoa.	Desberdintasunaren arazoiei buruz kontzientziatzea.

80-90	Hezkuntza Globala.	Garapen iraunkorra. Demokrazia sendotzea. Erkidegoa garatzea eta parte hartzea.	Ezagutza kritikoa. Eurozentrismoa zalantzan jartzea. Burujaibetza lortzeko hezkuntza. Bestelako ikuspegiak (generoa, bakea, giza eskubideak, ekologia...).	Elkarmenpekoasun globala ulertzea.
90-200?	Herritartasun Globalerako Hezkuntza.	Giza garapena. Globalizazio neoliberala. Gobernagarritasuna. Tokiko garapena.	Paradigma aldatzea: baztertzea / barneratzea. Herritartasun unibertala (giza eskubideak). Justizia soziala. Mugimendu altermundialistak. Presio politikoa. Teknologia berrien gero eta erabilera handiagoa. Komunikazioa eta kultura. Kultura aniztasuna eta Kultura artekotasuna. Garapenerako Hezkuntzaren multidimentsionalitatea.	Herritartasun Globalaren kontzientzia sustatzea. Herritarrek parte hartzeko eta ekintzak egiteko prozesuak sortzea. Garapenaren, justiziaren eta zuzentasunaren arteko lotura berrestea.

Iturria: Bertan eginda.

Izan ere, azken urteetatik hona, Garapenerako Hezkuntzak azken helburu gisa zehaztu du kontzientzia kritikoa zabaldu behar dela herritarren artean, hartara, Gizakien Garapenaren alde mugi daitezen eta konpromisoa har dezaten hala Ipar nola Hegoaldeko herrialdeetan.

Giza Garapen kontzeptua Nazio Batuen Garapenerako Programan jasota zeuden proposamenetatik sortu zen 1990. urtean, urte hartan urteko hainbat txosten prestatzen hasi baitziren -giza garapenari buruzko txostenak-, eta txosten horiek 190 herrialdek arlo horretan izan zituzten aurrerapenak eta atzerapenak erakutsi baitzituzten. Hala ere, kontzeptu hori lankidetzaren eremuan eta, bereziki,

hezkuntzaren munduan lortzeko zehaztapenak Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek egindako proposamenen ondorioa izan ziren. Horixe da 5. belaunaldiko Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegia.

2.2. Giza garapena. Globalizazioaren beste aurpegia

Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik gaur egunera arte, nazioarteko harremanen esparruan oso aldaketa garrantzitsuak izan dira, eta, horien ondorioz, Garapenerako Hezkuntzaren edukiak aldatu eta egokitu behar izan dira.

10. Koadroa: Mundu osoan izandako aldaketak

Ekonomiakoak	Lankidetzakoak	Politikakoak
Kanpoko zorra haztea. Doitzeko planak ezartzea (Nazioarteko Moneta Funtsa, Munduko Bankua).	Nazioarteko lankidetzarako politiken krisia. Elkartasun ideologikoaren krisia.	Ekialde eta Mendebaldearen arteko tirabira Ipar eta Hegoaldeko ardatzera aldatzea.
Aberastasuna esku gutxitan biltzea. Krisialdi ekologikoa. Kontsumoan egindako gehiegikeriak.	Teknologia, kultura eta finantza aldetik dagoen mendekotasuna handitzea.	Behe intentsitateko gerrak eta gatazka kronikoak ugaltzea.
Munduko Merkataritza Antolakundeak araututako merkatua. Ekonomia pribatizatzea. Hegoaldeak mundu osoko merkataritza arloan duen partaidetza larriki murriztea.	Pobrezia eta bereizkeria handitzea. Pobrezia gehien nozitzen dutenak emakumeak izatea. Errefuxiatuak diren eta lekuz aldatuta dauden biztanleen kopuruak gora egitea.	Estatu-nazioaren krisia. Multinazionalak eta finantza-arloko talde espekulatiboek gero eta botere gehiago izatea.
Ipar eta Hegoaldearen arteko trukearen baldintzek okerrera egitea.	Laguntza humanitarioen eta larrialdiko laguntzen sinesgarritasunaren krisia. Proiektuetarako lankidetzara arloan dagoen nekea.	Ameriketako Estatu Batuen nagusitasuna. Segurtasunaren, fundamentalismoaren eta nazioarteko terrorismoaren teoria (Irailaren 11, Afganistango gerra, Irakeko gerra, Martxoaren 11). Nazioaz gaindiko erakundeen esku-hartze armatuak. Nazio Batuen Erakundea. NATO. Bakea edo menperatzea? Nazioarteko erkidegoaren koldarkeria.

Iturria: Bertan eginda.

Garapenerako mendebaldeko ereduaren hegoaldeko herrialdeetan ezartzeak, alde batetik, nazio horien esplotazioa ekarri du, eta, hala, herrialde horiek alderdi txirotu eta eze-gonkor bilakatu dira, eta, beste aldetik, herrialde horiek erabakitze ahalmena galdu dute nazioarteko kontzertuan eta nazioz gaindiko instituzioetan (NBE, Nazioarteko Moneta Funtsa, Munduko Bankua, Munduko Merkataritza Erakundea, etab.). Hargatik, Garapenerako Laguntza Ofiziala edo garapenerako gobernu kanpoko erakundeen lankidetzako politikak berriz aztertu behar dira, nazioarteko esparru berri horretara egokitzeko.

“Auzo globalean”, zoritxarrez, begi-bistakoa da era kaxkarean orokortu den garapenak larriagotu egiten dituela biztanleriaren sektore askok munduko nazio guztietan -gehien “garatuta” dauden nazioetan ere bai eta emakumeengan batez ere- nozitzen duten pobrezia, segurtasun eza eta bazterkeria. Gizakien bizitzari eta natura zaintzeari begira dauden auzirik garrantzitsuenak lehen eskualde batera murriztuta edo gehienez herrialde bateko mugen barruan itxita zeuden; baina orain ez daude esparru horretara murriztuta, eta, beraz, tokiko ekintzek eragina izaten dute multzo osoan, eta alderantziz. Horren ondorioz, 1990. urtean, Gizakiaren Garapenerako Lehen Txostena argitaratu eman

zenezan, globalizazioari buruz hitz egiten hasi zen. Txosten horrek Munduko Bankuak urtero aurkezten dituen txostenen aurkako ikuspegia azaltzen du. Giza garapena erronka bat da, pertsonak eta kulturek duten balioaren garrantzia berrindartzeko eta, aldi berean, adierazle makroekonomiko handien sinesgarritasuna gutxitzeko.

Dubois-i jarraiki (2007), Giza garapen kontzeptuaren arabera “garapenaren oinarrian dagoen prozesuak aukera ematen die pertsonari beren gaitasunak zabaltzeko edo handitzeko eta, horren bidez, nahi duten bizimodua hautatu ahal izateko. Hortaz, bada, prozesu horrek zalantzan jartzen du garapenaren oinarria kapital fisikoaren hedapena dela dioen ustea, eta, gainera, gizakien aktiboaren garrantzia azpimarratzen du. [...] Gizakiak ezartzen ditu egoeraren erdigunean: pertsonak aldi berean baitira politiken helburu eta beren garapenaren oinarritzako tresna. Pertsonak ardatz gisa hartzen dituen garapenak ordezkatu egiten du ondusunak ardatz modura hartzen dituen garapen-moldea”. Munduko Merkataritza Erakundearen arauak Hegoaldeko ekonomietan duten inpaktuak, hezkuntza mundu osoan merkataritzako gai bihurtzeko egindako ahaleginak, eta horien antzeko kontuek eragin zuzena dute pertsonen bizitzan, eta erronka garrantzitsuak dira giza garapena bultzatzeko zereginean esku hartu nahi duen Garapenerako Hezkuntzarako.

Aldi honetan asko sakondu da Garapenerako Hezkuntzak duen esanahia; Boni eta Baselga-k diotenari jarraiki, “eten-gabeko hezkuntzako prozesu bat da, lagungarria da Ipar eta Hegoaldearen artean ekonomia-, politika-, gizarte- eta kultura-arloan dauden harremanak ulertzeko, elkartzasunari eta justizia sozialari lotutako balioak eta jokaerak sustatzen ditu, eta gizakiaren garapen iraunkorra lortzeko ekintzako bideak bilatzen ditu”. (Boni eta Baselga, 2003:402).

Dena dela, beharbada, Garapenerako Hezkuntzak oraingo egoeran duen berrikuntzarik handiena da, alde batetik, lehenetasuna ematen diela kulturako auziei, genero-arloko

berdintasunari edo orain nagusi den garapen-ereduak gizartearen eta ingurunean dituen inpaktuei, eta, bestetik, gizartearen partaidetza arduratsua bultzatzen duela Hegoaldeko eta Iparraldeko pertsonen bizitzan eragina duten auzi horiei heltzeko.

2.3. Garapenerako Hezkuntzaren paradigma aldatzea

Gaur egungo testuinguruan, paradigma aldatzen ari da munduko errealitatearen azterketa egiterakoan, eta, horri jarraiki, egokia da barneratzea / baztertzeta¹¹ ikuspegi kontuan izatea, eta garai batean Hegoa-Iparra ikuspegiaren azterketari eman zitzaion garrantzi berbera ematea. Garapenerako Hezkuntzak, prestakuntza-arloan dituen proposamenen bidez, konpromisoa hartzen du erkidegoan parte hartzeko kontzientzia pizteko gizartearen, hartara, gizarteko bazterkeria salatzeaz eta giza eskubideak babesteaz gain, aldi berean, emakumeen eta egoera ahulean dauden beste talde batzuen jabeakuntza bultzatzeko, talde horien ekarpena ezinbestekoa baita giza garapenerako.

Garapenerako Hezkuntza. Ezinbesteko lankidetzako estrategia bat izeneko txostenean argi eta garbi azaltzen da ideia hori, aditzera ematen baita “azken hamar edo hamabost urteetan, kontuen ikuspegi alternatibo bat garatu dela, eta garrantzi nabarmena hartu duela. Ikuspegi orokorrago bat da, mundu mailako gizarte bat xedetzat duena, herrialde eta kontinente guztietan desberdintasuna eta bidegabekeria dituen mundu bat. Toki guztietan daude aberatsak eta txiroak. Lerro ikusezin batek banatzen du mundua zeharka. Desberdintasun eta bidegabekeria hori mundu osoan barrena nagusi den egitura baztertzaila baten ondorioa da. Pobreziaren aurkako borrokak bazterkeriaren aurkako eta barneratzearen aldeko borroka izan behar du.” (CONGDE koordinakundearen Garapenerako Hezkuntzako Taldea, 2005).

¹¹ Barneratzea / baztertzeta gaiaren inguruko eztabaidak hartzen ari duen garrantzia aditzera ematen duen adibide bat honako hau da: Concord koordinakundeak 2005. urtean Suedian antolatutako Garapenerako Hezkuntzako Udako Eskolak auzi hau hartu zuen aztergai modura.

Baztertzen duen globalizazio ekonomikoaren aurrez aurre, Garapenerako Hezkuntzak elkartasunaren globalizazioa sustatu nahi du. Ikuspegi horrek aukera ematen du Herritartasun Unibertsal kontzeptua garatzeko eta, hortaz, tokiz aldatzeko askatasuna baimentzen duen eta pertsona guztiei -haien jaioterria edo bizitokia edozein delarik ere- giza eskubide osoak izatea bermatzen dien mundu mailako gizarteko kidetasuna indartzeko; bestalde, era horretan, bere izaera unibertsala gauzatzen du.

Gure ustez, guztiz garrantzitsua da 5. belaunaldiko Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegi hori; hona hemen arazoak:

- Laguntza ematen du Garapenerako Hezkuntzak justizia soziala lortzeko ardatz gisa duen dimentsio politikoa azpimarratzeko, eta ahalegina egiten du kontzientzia pizteko aberastasuna eta boterea banatzerakoan munduan barrena dauden desberdintasunei buruz, desberdintasun horien arazoiei eta ondorioei buruz, eta, era berean, herritarrek gaur egun dagoen egoera aldatzeko bete behar duten zereginari buruz.
- Garapenerako Hezkuntzako harremanak, trukeak eta sareak tokian bertan eta mundu mailan indartu behar direla arazoitzen du, era horretan, benetako helburua zein den ez ahazteko: pobrezia eta bazterkeriaren aurkako borroka.
- Horrez gain, aukera ematen digu lankidetzaren esparrutik kanpo aritzen diren baina guk egiten dugun azterketa bera eta ematen ditugun hautabide berberak dituzten beste talde eta mugimendu batzuekin -esate baterako mugimendu altermundialistekin- harremanetan jartzeko. Goian aipatutako txostenean jasota dagoenez, “Munduko herritarren arteko itun berriak bilatzen jarraitu behar dugu nahitaez [...] Ildo horretan, sareek garapena ikaste-ko egitura bat eratuko dute.” (CONGDE koordinakundearen Garapenerako Hezkuntzako Taldea, 2005).

2.4. Herritartasun Globala

Garapenerako Hezkuntzak, elkartasuna era arduratsuan erabiltzeko jendea sentsibilizatzen eta gaitzen egiten duen

lanean, agerian utzi nahi du alferrikakoa dela merkataritzako balantza edo kanpoko zorra zergarik gabe edukitzea, beste aldetik pertsona gehienak gizartean baztertuta baldin badaude, eta hezkuntza edo osasun-laguntza jasotzeko gizarte- eta kultura-arloan parte hartzeko eta duintasunez bizitzeko behar diren segurtasuna eta begirunea izateko modurik ez baldin badute.

Bestetik, CONCORD koordinakundearen eta, bereziki, Garapenerako Hezkuntzari buruzko Forumean Garapenerako Hezkuntzaren eta Lankidetzaren arloko estrategia europar berriari buruz izan den eztabaidari dagokionez, alderdi hauek sartzeari proposatu da:

- Garapenerako Hezkuntza eta Europar Batasuneko garapenerako politiken esparruan sentsibilizatzeko jarduerak barneratzea eta indartzea.
- Garapenerako Hezkuntzako eta sentsibilizatzeko estrategia koherenteak eta barneratzaileak prestatzea eta ezartzea, hala estatuan nola Europa osoan.
- Komunikazioaren erabilera eraginkorragoa sustatzea, garapenari buruzko gaiak gizartean hobeto ulertuta egon daitezen.
- Jardunbide egokien trukea bultzatzea eta laguntzea gobernu kanpoko erakundeen, gobernuen eta estatu bereko bestelako eragileen artean; eta trukeerako aukerak zabaltzea, hala Europar nola nazioartean. Horrenbestez, Garapenerako Hezkuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna, eta sentsibilizazioa hobekiago dira.

Garapenerako Hezkuntza eskoletako curriculumetan sartzeko egin diren proposamen zehatzei dagokienez, oroz gain nabarmentzen da herritartasun globalak behar-ko lukeen herritar-motak ezaugarri hauek eduki beharko lituzkeela:

- Munduan gertatzen denaz jakitun egongo da (zentzu zabalean) eta munduko herritar gisa duen zeregin zehatzaz jabetuta egongo da.

- Aniztasuna zaindu eta balioetsiko du.
- Ondo ulertuko du mundua nola dabilen arlo guztietan: ekonomia-, politika-, gizarte-, kultura-, ingurumen- eta teknologia-arloan.
- Haserretu egingo da gizartean dagoen bidegabekeria ikusita.
- Erkidegoan parte hartuko du eta laguntza emango dio hainbat mailatan, tokiko mailatan hasi eta mundu osoko mailetara iritsi arte.
- Jarduteko prest egongo da, mundua leku orekatuagoa eta iraunkorragoa izan dadin.
- Ekintza horietarako hartu behar diren erantzukizunak hartuko ditu bere gain.

11. Koadroa: Herritartasun globala lortzeko funtsezko gakoak

Trebetasunak	Ezagutza eta ulermena	Balioak eta jarrerak
<ul style="list-style-type: none"> • Pentsamendu kritikoa. • Argudio egokiak emateko trebetasuna. • Bidegabekeriari eta desberdintasunari aurka egiteko trebetasuna. • Pertsoneri eta gauzei begirunea izatea. • Lankidetzak eta gatazkak konpontzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Justizia soziala eta zuzentasuna. • Aniztasuna. • Elkarmenpeotasuna. • Garapen iraunkorra. • Bakea eta gatazkak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Norberaren errespetua eta kontzientzia. • Enpatia. • Gizartea bidezkoa izan daitekeela eta jende guztiak tratamendu berdina jaso behar duela pentsatzea. • Aniztasuna balioestea eta errespetatzea. • Ingurumenarekin arduratsua den pertsona izatea. • Jendeak gizartea eraldatzeko laguntza eman dezakeela pentsatzea.

Iturria: Geuk egina, Oxfam erakundearen dokumentu oinarritzat hartuta (2006).

2006ko abenduaren 6tik 8ra bitartean Garapenerako Hezkuntzari buruzko III. Kongresua izan zen Vitoria-Gasteizen. Bertan, zabal eztabaidatu ziren auzi horiek eta, gainera, bertan ordezkariak zuten taldeek -garapenerako gobernu kanpoko erakundeek, unibertsitateak, irakasleek, instituzioek eta sektore ez-formalak- beren gain hartu zuten 5. belaunaldiko Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegia. Era berean, bertan, talde horiek onartu zuten oso garrantzitsua dela herritartasun globalerako proposamena bultzatzea eta hezkuntza formalaren esparruetan sar dadin sustatzea.

Garapenerako Hezkuntzari buruzko III. Kongresuan indartu zen joera hori CONGDE koordinakundearen Garapenerako Hezkuntzako taldearen jarreraren agertzen zen (2005).

Educación para el Desarrollo: Una Estrategia de cooperación imprescindible (Garapenerako Hezkuntza: Ezinbesteko lankidetzako estrategia bat) izeneko agirian jasota dagoenez, “Garapenerako Hezkuntza kontzientzia kritikoa, eta pertsona arduratsuak eta eraginkorrak sortuko dituen prozesu gisa hartu behar da, era horretan, hala Iparraldean nola Hegoaldean, elkartasunarekin engaiatutako gizarte zibil bat eraiki ahal izango baitugu, parte hartzeko eta erantzukizuna banatzeko ikuspegitik aintzat hartuta, eta politika-, ekonomia- eta gizarte-arloko erabakiak hartzerakoan pertsona guztien eskaerak, beharrak, kezkek eta azterketak hartuko baitira kontuan.”

Bestalde, agiri horretan estrategia orokor hauek proposatzen dira:

- “Garapenerako Hezkuntzak hezkuntza-arloko joera bat eraiki behar du, hezkuntza formaletik abiatuta, herritartasun globala bultzatzeko, eta ondo aztertu behar du nola egin daitekeen gai kolektiboekiko kezka duten eta gizarte- eta politika-arloko prozesuen garapenean nabarmendu nahi duten herritar eraginkorrak eta adituak lortzeko.
- Prozesu horrek “hainbat hezkuntzarako” gaikako ardatzak bateratu behar ditu (garapenerako, bakerako, ingurumeneko, kultura aniztasunerako, generorako, giza eskubideetarako hezkuntza, etab.)
- Bi zutabe hauek hartu behar ditu oinarritzat: kognitiboa (errealitatearen ezagutzari, azterketari, arrazoibideei dagokiena) eta jarrerazkoa (balioei eta bertuteei, jarrerei eta portaerei dagokiena).
- Prozesu hori oinarritik hasita eraikiko da -gaur egun egiten ari den bezala-, eta irakasleen partaidetza bereziki garrantzitsua da.
- Garapenerako Hezkuntzaren helburuek agerian egon behar dute maila guztietako hezkuntzako curriculumetan, zeharkako ardatz eta ikasgai gisa.”

2.5. Garapenerako Hezkuntza instituzioen esparruan

Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeek Egindako presioaren ondorioz, garapenerako lankidetzak gero eta gehiago hartu du kontuan Garapenerako Hezkuntzak bete ahal duen eta bete behar duen zeregina, alde batetik, herritarren kontzientzia soziala lankidetzako politiken alde mugiarazteko, eta, bestetik, munduko egoerari buruzko kontzientzia kritikoa sortzeko eta giza garapenaren aldeko ahaleginak batzeko.

Joera horren ondorioz, instituzioek egindako hainbat adierazpenen bidez, garapenaren arloan egituratutako politikan zehaztuta dauden jarduteko ildoak sartu dira arian-arian. Horrenbestez, Garapenerako Hezkuntzarako arau-esparru

bat bultzatu da; esparru hori hainbat testutan dago jasota, eta guk honako hauek nabarmenduko ditugu:

Europar Batasuneko Kontseiluaren Ebazpena, Garapenerako Hezkuntzari eta Europako iritziz publikoa garapenerako laguntzaren alde sentsibilizatzeari buruzkoa (2001eko azaroaren 8koa). Ebazpen horren bidez, Kontseiluak nabarmentzen du Garapenerako Hezkuntzak laguntza ematen duela “nazioarteko elkartasunaren sentimendua indartzeko eta Europan kultura arteko gizarte bat ezartzearen aldeko giroa pizteko”. Era berean, Kontseiluak aditzera ematen du “laguntza gehiago eman nahi diola Garapenerako Hezkuntzari” eta Garapenerako Hezkuntzari buruzko informazioaren eta esperientzien trukea sustatu nahi duela gobernuen eta gizarte zibileko eragileen artean, bai eta gobernuen artean eta gizarte zibileko eragileen artean ere”.

Kasu batzuetan, Garapenerako Hezkuntza lagungarria izango da herritarrek lankidetzak dituen helburuak uler ditzaten, eta, era horretan, politika horiek behar dituzten finantza-arloko ahaleginak bultzatu daitezke.

- Ildo horretan, *Informe sobre los objetivos y líneas generales de la política española de cooperación y ayuda al desarrollo* (Garapenerako laguntzako eta lankidetzako Espainiako politikako helburuei eta ildo orokorrei buruzko txostena) izeneko txostenean (Diputatuen Kongresua, 1992), Garapenerako Hezkuntzak herritarrek sentsibilizatzeak betetzen duen zeregina nabarmentzen da, sentsibilizazio hori ezinbestekoa baita nazioan eta gizartean garapenerako lankidetzako politikaren aldeko adostasuna lortzeko.
- *Ponencia de estudio de la política española de Cooperación al Desarrollo* (Garapenerako Lankidetzako Espainiako politikaren azterketaren txostena) izeneko agiriaren arabera (Senatua, 1994), “premiatz indartu behar zen elkartasunaren aldeko kontzientzia eta Espainiako gizarteak garapenerako lankidetzaren arloko jarduerari ematen zien laguntza”.
- 1998. urteko uztaileko Nazioarteko Lankidetzari buruzko Legeari jarraiki, oso garrantzitsua zen herritarren artean lankidetzaren eta elkartasunaren aldeko balioak

sustatzea, garapenerako lankidetzan zeuden arazo orokorrei eta bereziei buruz sentsibilizatzeko eta kontzientzia pizteko ekintzak eginez. Bestalde, lege horren arabera, Garapenerako Hezkuntza lankidetzarako tresna bat zen.

- *Espainiako Lankidetzaren Plan Zuzentzailea 2005-2006* (AECID)¹² izeneko agiriaren arabera, Garapenerako Hezkuntza, tresna bat izateaz gain, lankidetzaren garrantzitsuenaren helburu estrategiko bat ere bada, eta, haren bidez, “kontzientzia kritikoak sortu nahi dira, pertsona bakoitza arduratsua eta eraginkorra izan dadin, eta, era horretan, gizarte zibil berri bat eraiki ahal izateko -hala lparrean nola Hegoan-, elkartasunarekin konpromisoa duen -hau da, baterako erantzukizunarekin- eta parte hartzea bultzatzen duen gizarte bat, politika-, ekonomia- eta gizarte-arloko erabakiak hartzerakoan aintzat hartzen diren eskariak, beharrianak, kezka eta azterketak dituen gizarte bat”. Espainiako lankidetzaren esparruan Garapenerako Hezkuntzari ematen zaion garrantziaren adierazgarri, lehenbiziko aldiz *Garapenerako Hezkuntzako Estrategia* bat sortu zen (2008). Bertan, gai horri buruzko jarrera eta konpromiso argiak hartu ziren, eta sentsibilizazio, prestakuntza, ikerkuntza, presio politiko eta gizartearen mobilizazio arloko jarduerak Garapenerako Hezkuntzako esparruak zirela jo zuten.
- 2007ko otsailaren 22ko Garapenerako Lankidetzako Euskal Legearen arabera, Garapenerako Hezkuntzaren bidez, “Ipar eta Hegoaldearen artean dagoen garapen desberdinari lotuta dauden arazoaren arrazoia eta ondorioak jakitea sustatu nahi da, herritarren kontzientzia kritikoa piztu nahi da arazo horiei buruz, eta elkartasuneko eta konpromiso eraginkorreko jarduerak sortu nahi dira arlo horretan. Gizartea sentsibilizatzeko eta prestakuntza eta ikerkuntzako jarduerak garapenerako hezkuntzaren barruan sartuta daude.” Era berean, Legeak azpimarratzen duenez, “urte askotako eta urteko planetan, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoen

zati bat garapenerako hezkuntzako ekimenak eta proiektuak egiteko baliatuko direla jasoko da.” (23. artikulua).

- Eusko Jaurlaritzaren 2008-2001 Garapenerako Lankidetzako Plan Zuzentzaileari jarraiki, Garapenerako Hezkuntza ezinbesteko lan-arlo bat da, eta lankidetzarako dauden zazpi ildoetako batean dago zehaztuta. Planaren arabera “garapenerako hezkuntza hezkuntza arloko proposamen bat da, eta epe luze edo ertainean prestakuntza eman nahi die pertsonari, munduan barrena dauden desberdintasunak sorrarazten dituzten egiturazko arazoak uler ditzaten, eta hori guztia egin nahi du jendearen inplikazioa eta konpromisoa pizteko sortutako gizarte-ereduak eraldatze aldera. Hortaz, bada, balioetan, jarreretan eta ohituretan berriz hezteko prozesu bat da; hasteko, zalantzan jartzen du nagusi den eredu, txiroei beren txirotasunaren errua leporatzen baitie, eta, bestetik, gizartearen aldaketa orokorren alde egiten du, ingurumena eta gizonen eta emakumeen eskubideak zentzurik zabalenean zaintzen dituen mundu bat lortzeko, eta metodologiak zehazten ditu parte-hartzea eta lankidetzaren oinarritzat hartuta.”

Agiri horietan guztietan, Garapenerako Hezkuntza kontzeptuaren definizio zehatzak edo lausoagoak eskaintzen dira, eta lehentasuneko ekintzak adierazten dira Garapenerako Hezkuntzak agerpen eta inpaktu gehiago izan dezan arlo formalean, ez-formalean eta informalean. Garrantzi handia duelako eta lehenengo aldiz horrelako ezaugarriak dituen agiri bat eskuartean dugulako, arreta berezia eskainiko dizkiegu *Garapenerako Hezkuntzako Estrategia* izeneko agiriaren ondoriozko orientabideei, eta, zehazki, hezkuntza formalaren esparruarekin zerikusia duten ildoei.

Agiri horretan, Nazioarteko Garapenerako Lankidetzako Espainiako Agentziak (AECIDek) 5. belaunaldiaren ikuspegia hartzen du bere gain, eta Herritartasun Globalerako Garapenerako Hezkuntza gisa zehazten du. Onartzen da Garapenerako Hezkuntza lankidetzaren

¹² Une honetan, Espainiako Lankidetzarako Plan Zuzentzaile berriaren (2009-2012) zirriborroa prestatzen ari da. Plan horren arabera, Garapenerako Hezkuntza arlo estrategiko bat da.

dimentsio estrategiko bat dela, “etengabeko hezkuntzako prozesu bat delako (formala, ez-formala eta informala), herritartasun globala sustatzen duelako, pobrezia eta bazterkeriaren aurkako borrokarekin engaiatuta dagoen elkartasunaren kultura sortu ahal izango duten ezagutzen, jarreraren eta balioen bidez, eta gizakiaren garapen iraunkorra bultzatzen duelako” (Ortega, 2008:16). Hala, bada, Garapenerako Hezkuntzak eta lankidetzak helburu berberak dituzte, eta helburu horiek ideia honen bidez eman gitezake aditzera: gizakiaren garapen bidezkoa eta zuzena bilatzea.

Agirian aintzat hartzen diren ildo estrategikoen artean, adierazten da “Garapenerako Hezkuntzan zuzeneko eta zeharkako eskumenak dituzten eragile guztien artean parte-hartzea, koordinazioa eta osagarritasuna bultzatu nahi direla” (4. Ildo Estrategikoa). Oinarritzeko ildo estrategiko bat da, eta arlo formalean garatuz gero, haren bidez lortu ahal izango litzateke Garapenerako Hezkuntza “nahitaezkoa, gaitua eta onartua izatea.”

Garapenerako Hezkuntzan eragile asko daude, eta hori, berez, indar handikoa da hezkuntzako ikuspegia sektore guztietan eta, bereziki, sektore formalean sustatzeko.

Alabaina, badirudi azken boladetan ez dela nagusitu sinergiak bilatzeko joera; horren ordez, bakoitza bere lubakian babestu da, eta arlo horretan dituen erantzukizunak babesten jardun du, “eragozpenik” egon ez dadin. Batera jarduteak ekar ditzakeen aukerak aztertu behar dira; esate baterako, Hezkuntzako Ministerioa eta Kanpo Arazoetako Ministerioa, edota Hezkuntza Saila eta Garapenerako Lankidetzako Saila lanean batera jarduteak

izan ditzakeen aukerak. Izan ere, horren bidez, politiken koherentzia handiagoa izan liteke, eta politika horiek lerrokatu ahal izango lirateke guztion artean partekatutako helburuekin. Alabaina, oso gutxitan izan dira sailen arteko bilerak baterako estrategiak adosteko helburuekin.

Koordinatzeko eta indartzeko egin diren ahaleginak sarritan alferrikakoak izan dira. Euskal Herriari dagokionez, Garapenerako Hezkuntzako estrategiaren izena *Eragiten*¹³ da; eta estrategia horrek garrantzia handia ematen zion Hezkuntzaren eta Lankidetzaren arteko koordinazio-lanari. Dena dela, bilera bat edo beste egin arren, ez zen gai horretan batera aritzeko akordiorik hartu -ez eta jarduerarik adostu ere-. Benetan erdiragarria da ikustea ez dagoela borondate politikorik hainbat irismenetako agiri politikotatik eta araudietan agertzen diren oinarri handiak gauzatzeko. Hargatik, gure ustez, 4. Ildo Estrategiko hau oso garrantzitsua da, instituzioek elkarren artean koordinatu behar direla bultzatzen jarraitu ahal izateko.

Hezkuntza eta lankidetzaren arteko elkar ulertzeko bidea errazten duen beste proposamen bat 6. Ildo Estrategikoa da. Lerro horren bidez, herritartasun globalaren aldeko prestakuntzako eta sentsibilizazioko prozesuak bultzatu nahi dira, eta, ildo horretan, ekintza-multzo handi bat jaso da, haren babesean lehentasuneko zatiz jartzeko.

6. Ildo Estrategikoan jasota dauden ekintza horiek aditzera ematen dutenez, administrazioko hainbat eragileren arteko lankidetzaren indartu behar da, eta Garapenerako Hezkuntza arlo formalean duen agerpena bultzatu behar da, batez ere, Herritartasunerako Hezkuntza izeneko ikasgaiaren ikuspegi hori sartuz.

¹³ Parte hartzeko plangintza estrategikoaren prozesu honen bidez, hausnarketa egin nahi da iparraldean dagoen giza garapeneraren eraikuntzari buruz eta Garapenerako Hezkuntzako plangintza estrategikoa zehaztu nahi da. *Eragiten* estrategia Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzarako Zuzendaritzak bultzatu zuen 2004. urtean, eta, bertan, honako hauek hartu zuten parte: garapenerako gobernu kanpoko hainbat erakundek, hezkuntza eta lankidetzaren esparruari lotuta zeuden instituzioek, gizarteko komunikabideek, instituzio publikoek eta arlo akademikoak. FOCAD Proiektuen Dekretuan jasotako Garapenerako Hezkuntzako laguntzak arautzeko kapituluak, hauek daude bilduta: 2005. urtetik lehentasuneko zatiz jo diren lan-ildoak eta proiektuen balorazioko taula bat, prozesu honen bidez lortu diren ondorioekin bat datorrena. Euskal Herriko Lankidetzaren Plan Zuzentzaileak (2005-2008) ere ekarpen horiek hartu ditu kontuan.

12. Koadroa: 6. Ildo estrategikoa. Herritartasun Globalaren aldeko prestakuntzako eta sentsibilizazioko prozesuak bultzatzea

- Espainiako gizartearen prestakuntza sustatzea, herritartasun globala sortuko duten gaietan, prozeduretan eta balioetan.
- Bidezko merkataritzari eta kontsumo arduratsuari lotutako edukiak, prozedurak eta balioak zeharka sartzeari Haur Hezkuntzako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, eta Batxilergoko curriculumetan.
- Garapenerako Hezkuntzarekin zerikusia duten ezagutzak, gaitasunak eta balioak zeharka sartzeari hezkuntzako ziklo guztietako ikasgaietan.
- Garapenerako Hezkuntza “Herritartasunerako Hezkuntza” eta “Filosofia eta Herritartasuna” izeneko ikasgaietan sar dadin sustatzea.
- Ikasgai espezifikoak sartzeari Ekonomia eta Enpresa Zientzietako graduak eta gradu-ondoko prestakuntza, erantzukizun sozial enpresariala, bidezko merkataritza eta negozioetan dagoen etika bezalako gaiak aztertzea.
- Bultzada ematea nazioarteko lankidetzako prestakuntza duten gazteek eta graduak eta gradu-ondoko unibertsitateko ikasleek nazioarteko lankidetzako estatuko eta nazioarteko erakundeetan eta erakunde sozialetan praktikak egin ditzaten.
- Lankidetzako beste eragile batzuekin eta Administrazio Publikoarekin batera jardunez, Garapenerako Hezkuntzako prestakuntza bultzatzea gune ez-formaletan eta informaletan: gizarte-etxeetan, gazteen elkarteetan, aisialdiko elkarteetan, adinekoen elkarteetan, eta kultura-eta lanbide-arloko elkarteetan.
- Prestakuntza berezia sustatzea herritartasun globalarekin zerikusia duten gaietan, prozeduretan eta balioetan gaitzeko, osasun- eta immigrazio-arloko elkartei, sindikatuei eta enpresa-elkartei zuzenduta
- Nazioarteko boluntarioritza bultzatzea, arlo formaletan eta ez-formaletan egiten diren ikastaro, mintegi, biltzar eta jardunaldiak laguntza emanez.
- Lankidetzako eragileek eta instituzioek boluntarioritza ekintzak egin ditzaten bultzatzea.
- Garapenerako Hezkuntzari loturik instituzioek egiten dituzten kanpainei bultzada ematea.
- Laguntza ematea Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegia hartzen duten testuliburuak, material didaktikoak eta ikus-entzunezkoak prestatzeko eta zabaltzeko.

Iturria: *Garapenerako Hezkuntzako Estrategia* (2008:51).

Estrategia izeneko agiriak onartzen duenez, Garapenerako Hezkuntzak hainbat dimentsio ditu, eta, hori dela eta, bere interesa are handiagoa da. Alde batetik, aukera emango du Garapenerako Hezkuntzako praktika guztiak lau dimentsioetako batean kokatzeko -Sentsibilizazioa, Prestakuntza, Ikerkuntza eta Eragin politikoa eta gizarte mobilizazioa izeneko dimentsioetako batean-. Beste aldetik, dimentsio horien artean sortuko den elkarmenpekotasuna lagungarria izango da Garapenerako Hezkuntza hedatzeko eta haren inpaktua hobetzeko.

2.6. Beste irakurketa eta proposamen batzuk

Txosten honi begira, dirudienez, garrantzizkoa da beste irakasle edo teoriarari ezagun batzuek egin dituzten azterketen oinarritzko zatia aurkeztea; era berean, Garapenerako Hezkuntzaren arloa duten eta ikastetxeetako materialak eta proiektuak sortzen ibilbide luzea egin duten garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen barruan edota ikastetxeen barruan hezkuntza formalean sakon parte hartzen duten pertsonak eta instituzioek egindako azterketa hartu behar da aintzat.

Hezkuntza-arloko teorialari eta kontzientzia eta gizartearekiko konpromiso handia duten irakasle askoren iritziz, Europako proposamena, Hezkuntzako Lege Organikoa, edota autonomia-erkidegoetako hezkuntza-arloko xedapenak aukera garrantzitsu bat dira hezkuntza-esparruan berrikuntza sartzeko, eta irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak bideratzeko, azken batean, kohesio soziala eta zuzentasuna lortze aldera.

Horiek guztiek bat egingo lukete Paz Abril-en hitz hauekin: “gure ustez, herritartasun globalerako hezkuntza erantzun bat da gure garaietako hezkuntzak egiten dizkigun errorenkei, ildo honetan: *bizitzari begira heztea, hau da, ezer arrotz egiten ez zaigun mundu bati begira heztea*, Gimeno Sacristán-en hitzak hartuta.” (Paz Abril, 2007:267).

Ez dituzte alde batera uzten proposamen horietan dauden kontraesan sakonak, baina, hala ere, proposamen horien alde egiten dute gauza guztien gaineratik, sektorerik kontserbadorenei eta bereziki Eliza Katolikoaren hierarkiari aurka eginuz, sektore horiek bizikidetzatza demokratikoaren oinarri laikoak ahuldu nahi dituztelako, kontzientzia-objektioaren bidez. Era horretan, haustura bultzatu dute gizartean, 2009ko urtarrilean Auzitegi Nagusiak emandako irizpenaren bidez, zorionez, deslegitimatatu den jo argudio bat baliatuz.

Egile horietako gehienek -esate baterako Polo, Paz Abril, Bolívar, Morillas eta Boni-k, edota kritikagoak diren C. Fernández Liria, P. Fernández Liria eta L. Alegre Zahonero-k-uste dute desiragarria eta onuragarria izango litzatekeela etika zibiko bat garatzea, justizia sozialaren eta demokraziaren arloan gehiago sakontzeko. Pertsonak beren gain hartzen baldin badute giza eskubideak tokiko nahiz nazioarteko beren bizitza sozialetako alderdi guztietan babestea eta, horren ondorioz, eskubide unibertsalekin kontraesanean erortzen ez diren politika instituzionalak prestatzen baldin badira, orduan, izugarriko urratsa egingo dugu giza harremanen esparruan.

Kontsultatutako egile guztien iritziz, hezkuntza ez da aski, baina ezinbestekoa da gizartean aldaketa sustatzeko. Ezinezkoa da ondo egituratutako hitzaldi horiekin bat ez egitea, kritikoak baitira baina aldi berean proposamenak egiten baitituzte, eta irakasleen, ikastetxeen eta garapenerako gobernuak kanpoko erakundeen arteko lankidetzatza oso lagungarria izan daitekeela azpimarratzen baitute.

Adela Cortina-k adierazten duenez, “erronka unibertsalei eman ahal zaien erantzun bakarra jarrera etiko unibertsalista bat izatea da [...] «Oihan Globala» aldatu eta, pertsona eta kultura gizatiartzaile guztiak barne hartuko dituen giza-kien erkidego bilakatzeko dagoen modu bakarra da *globalizazio etikoaren* alde egitea, elkartasuna eta justizia mundu-mailako bihurtzearen alde egitea”¹⁴. Paz Abril-ek nabarmentzen du hezkuntzak eraginkorra izan behar duela eta gazteei gaitasuna eman behar diela errealitatea ulertzeko eta barneratzeko, hartara, “[...] munduari buruzko irakurketa kritikoa egiteko, azken batean, [...] konpromisoa eta ekintza gauzatu ahal izateko, justizia sozialaren eta zuzentasunaren alde”. (Paz Abril, 2007:17).

Bolívar-en hitzetan “[...] herritar eraginkorrak lortzeko heztea ez da soilik hiriko balio edo balio etikoen multzo bat irakastea, zentzu zabalean eta barneratzailean, bizitza publikoan txertatzeko eta parte hartzeko aukera ematen duten jakintzen eta gaitasunen multzo osoa hartzen baitu barne. Hezkuntza publikoaren lehenengo helburua honako hau izan beharko luke: pertsona guztien gaitasunak bermatzea (irakurketaren ulermena, ulermen matematikoa edo zientifikoa edota alfabetizazio berriak), gaitasun horiek izan gabe, pertsona horiek ezin baitira bizitza sozialeko eskubide osoko herritarrak izan edo ezin baitira lan-munduan sartu. Hala, bada, herritar osoa izateko, hau da, bizitza duina duen herritar bat izateko, gutxieneko kulturako kapitala eta gaitasunen gutxieneko aktiboa eduki behar da, taldeko bizitzan mugitu eta txertatu ahal izateko.” (Bolívar, 2008:358).

¹⁴ Cortina, A. (2003): *Ciudadanos del mundo. Hacia una teoría de la ciudadanía*. Madrid, Alianza Editorial. 261 or. Hemen aipatuta: Paz Abril (2007:16).

Ikuspegi pedagogikotik ikusita, egile gehienek hezkuntzako filosofia, soziologia edo psikologiaren iturririk ezagunak erabiltzen dituzte hezkuntzako eredu berria garatzeko dituzten tesiak oinarritzeko. Hezkuntzako eredu horrek uko egingo dio “bankuko hezkuntzari”, eta jakin-mina eta jakintzaren aurkikuntza oinarritzat hartzen dituen irakas-kuntza eta ikaskuntzako eredu bat sustatuko du ikasleen parte-hartze eraginkorra bultzatuz, betiere, irakasleen tutoretza eta gudaritzapean. Erabilitako iturrien artean, hasteko, Dewey dugu, gero, kasu batzuetan, Freinet aurkituko dugu, eta, zenbaitetan, Freire, Giroux, Macedo, Carr eta Kemmis, Vigotsky, Bruner, Habermas, Delors, Petrella, Sen, Bordieu, Morin eta beste asko izango ditugu. Zerrenda amaigabea da, aditu jakintsuen oinarri sendoa jarri nahi baita, Herritartasunerako Hezkuntza ikasgai gisa eta hezkuntzako jarduteak eta herritartasun arduratsuaren parte-hartzea demokratiko bihurtzeko gauza izango den zeharkako tresna gisa aurrera ateratzeko arrazoiak emate aldera eta horri nola ekin azaltze aldera.

Gizartean ez dago kohesiorik eta komunikabideetan gatazka ugari agertzen da egunero, eta, aurreko mendeetan gertatu zen bezalaxe, arazo horiek konpondu nahi dira Herritartasunerako Hezkuntzak dituen alderdi onen bidez, ondo erabiliz konponbidea emango baitie *res publican* parte hartzeko dagoen hainbesteko lege-hauste eta desilusioari. Herritartasunerako Hezkuntzak garatu nahi dituen gai nagusiak kultura artekotasunari, ikastetxeak demokratiko bihurtzeari, eta erkidegoan parte hartzeari lotuta daude.

Kontsultatutako material guztiaren artean, materialik kritikoa Carlos eta Pedro Fernández Liria eta Luis Alegre Zahonero-rena da (2007). Material horren kutsua trufaria eta gogorra da, eta haren egitura testuliburu baten eta saiakera baten egituren artean dabil. Bestela esanda, eskolak emateko erabil daitekeen saiakera bat da. Bere estiloa oso arina, berezia eta atsegingarria da. Testuaren oinarria filosofia da, eta, hala, oso lagungarria da pentsamendu kritikoa eratzeko, galderak proposatzeko, ezagutzen dauden hutsuneak aurkitzeko edota kontraesanak adierazteko. Liburua, berez, proposamen bat da pentsamendu eta jardute demokratikoan sakontzeko, baina ez die bide gehiegirik ematen eufemismoei.

Bolívar-i dagokionez (2007, 2008), ondo erakusten du Europako eta Espainiako instituzioen esparruaz duen eza-gutza sakona, eta Herritartasunerako Hezkuntza egokia izateko dauden arrazoiak azaltzen ditu. Gaitasunak deskribatzeaz gain, ikastetxeen antolakuntzan eta ikasgeletan aldaketak egitea proposatzen du, era horretan demokratikoagoak izan daitezen, eta erkidegoari zabalik dagoen eskolarantz jotzeko adierazten du.

Helburua Ikas Komunitateen ideia lortzea da, dirudienez, hori baita bera sartuta dagoen “Atlántida” proiektuak duen ardatza. Horrez gain, herritartasunerako hezkuntza kultura aniztasunaren testuinguruan aztertzen eta sakontzen du. Eranskinetan, edukien eta sekuentzien proposamenak egiten ditu, hala Lehen Hezkuntzari nola Bigarren Hezkuntzari begira. Arrazoi handiz errepikatzen du irakaskuntzako prestakuntza eskaini behar zaiela hala jardunean dauden irakasleei nola prestakuntzan daudenei. Era berean, behin eta berriz errepikatzen du ikasgaia emateaz arduratu behar diren irakasleei prestakuntza emateaz gain, ikastetxeko irakasleen talde osoari eman beharko litzaiokeela prestakuntza, zeharkakotasuna eraginkortasunez egin ahal izateko.

Bere diskurtso teorikoak oinarri sendoak ditu, eta herritartasun demokratikoaren hezkuntzarako egokiagotzat jotzen dituen hezkuntzako bideak aurkezten ditu.

- a. “Kultura demokratiko bati dagozkion balioak irakastea, maila bakoitzean egokiak diren edukiekin eta metodologiarekin. Horretarako, *deliberazioko* prozesuak erabiltzeaz gain (hausnarketa kritikoa, ikaskuntza laguntzailea eta abar), ikastetxeak era jakin batean berreraiki behar du *curriculum*a, gizarte demokratikoaren balioetan oinarritutako hezkuntza emango diguten prozesuak sustatzeko (pentsamendu kritikorako trebetasunak, beste pertsona baten lekuan jartzea, ikaskuntza laguntzailea, eta abar).
- b Eskola *era demokratikoan antolatu* behar da, hartara, parte hartu, erabakiak hartu eta konpromisoa izan ahal izateko, eta balio demokratikoak gauzatu ahal izateko. Sarritan horrela uste izan bada ere, ez da aski ikastetxek parte-hartzea era formalean antolatuta izatea

ordezkarien arabera; horrez gain, nahitaezkoa da balio horiek egunero bizirik egotea ikastetxearen antolaketazko bilbeetan.

c. *Ikaskuntza-zerbitzua* izan behar du, eta, horrela, erki-degoari egiten zaion zerbitzua eta ikasgelako ikaskuntza bateratu behar dira, batez ere Bigarren Hezkuntzan eta Goi-mailako Hezkuntzan. Izan ere, Ingalaterrako herritartasuneko curriculumaren multzoetako batean, erkidegoan engaiatzeko jarduerak daude jasota. Gainerakoei begirunea erakutsi behar zaie, eta arduraz eta kontuz jokatu behar da haiekin. Bestalde, garatutako jardueri garrantzia eman behar zaie eta hausnarketan egin behar da haiei buruz. Horiek dira, ikaskuntza-zerbitzuak dituen oinarrietako batzuk.” (Bolívar, 2008:361).

Beste egile interesgarri bat Paz Abril da. Honek, Bolívar-ek ez bezala, ez du Europako, estatuko edo autonomia-erkidegoko arau-esparrua ardatz gisa hartzen. Bere tesiari jarraiki, behar-beharrezkoa da Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren alde egitea. Azterlana bi zatitan banatzen du, eta zati horiek argi bereizita baina estuki lotuta daude, aipamen teorikoak eta egilearen tesia frogatzeko dagoen asmoa direla-eta.

Lehen zatian, egileak hau adierazten du: “[...] aditzera ematen dut behar-beharrezkoa dela hezkuntzako eredu humanista eta global berri baten alde egitea, eta agerian jarri nahi dut Habermas eta Freire-ren diskurtsoek norabide horretarantz jotzeko ematen diguten indarra itxaropentsua dela.” (Paz Abril, 2007:18). Atal horretan, bizi garen munduaz eta hezkuntzari begira dauden erronkez egiten den azterketa oso sendoa da.

Bere ikuspegiaren oinarrian Dewey, Habermas, Freire, Chomsky eta Cortina-ren lanak daude. Globalizazioak kulturaren, etikan, giza eskubideetan eta kultura arteko bizikidetzaren jarraibideetan dituen ondorioak aztertzen ditu. “Kohesiorik ez duen eta bidegabekeriaz gainezka dagoen mundu globalizatu batean, itxura denez, ezin da arazo orokorrez eztabaidatu (hala nola, bizikidetzaz eta giza eskubideen garapenez: elikaduraz, osasunaz, hezkuntzaz, bake-

az, iraunkortasunaz, genero-arloko berdintasunaz, kultura artekotasunaz eta abarrez), teknokratikoa eta jarraitzailea den eta, neurri batean, hezkuntzaren ikuspegia zatikatuta eta gizatasunik gabekoa izatearen ardura duen hezkuntzako ikuspegi bat erabiliz. Hezkuntzako eredu berri bat behar dugu, gizatiarragoa eta orokorragoa den eredu bat”. (Paz Abril, 2007:22). Bere ideiak ez daude oso urruti tokiko nahiz mundu osoko elkartasunari buruz eta lankidetzari buruz garapenerako gobernu kanpoko erakundeek egiten dituzten proposamenetatik.

Bigarren zatian ere hezkuntza eta psiko-pedagogiaren arloko aditu jakintsuen babesa du. Zati horren ardatza “[...] hezkuntzako ikastetxeko praktika egiteko hiru moldeak dira (ikuspegi tekniko-instrumentala, ikuspegi praktikoadierazgarria eta ikuspegi kritiko komunikaziozkoa).” (Paz Abril, 2007:18). Eta, bukaeran, era askotako hezkuntzako proiektuak jartzen ditu adibide modura. Bigarren zatian, iturri nagusiak Habermas eta Freire, Delors eta Petrella dira, lehenengoan bezala, baina, horrez gain, Bruner, Carr, Kemmis, Schön eta beste aditu jakintsu batzuen ahotsak jasotzen ditu, ikuspegi kritiko komunikaziozkoaren alde egiten duen apustu pedagogikoa indartzeko.

Normala denez, arazoak azaltzen dituen hezkuntzaren alde egiten du, eztabaidaren eta elkarrizketaren bidez aurkitutakoak egiten dituen hezkuntzaren alde, ikastetxeak erkidegora zabalik egon daitezen, bertan garapenerako gobernu kanpoko erakundeak beti jotzen baitira interesgune berezi modura. “[...] partekatutako bide bat, herritartasun militante bat: hezitzaileak, hezigaiak, familiak, tokiko erkidegoa, gobernu kanpoko erakundeak eta era askotako elkarteak, elkarrizketaren bidez ezagutza erakitzen dutenak eta parte hartzeko kultura demokratikoa zabaldu nahi den (tokiko eta mundu osoko) erkidegoa osatzen dutenak.” (Paz Abril, 2007:62). “[...] Erkidegoko, familietako, tokiko erkidegoko, gobernu kanpoko erakundeetako, edota kultura-elkarteetako kideek era guztietako kultura-ekarpenak egin beharko lizkiokete eskolako hezkuntzako esku-hartze-ari” (Paz Abril, 2007:180).

Ikusten denez, hala teorian nola praktikan, bere proposamenek orain dela urte askotatik ingurumenari, lankidetzari,

elkartasunari eta giza eskubideei loturik dauden tokiko edo munduko gaiekin proiektuak edo kasuak aztertzen lanean ari diren garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek dituzten oinarri berberak dituzte.

M^a Dolores Morillas-ek (2006) globalizazioaren diagnostikoa hartzen du abiaburutzat, ondorio larriak baititu lpar eta Hegoaren arteko harremanetan eta ingurumenean, eta, horrez gain, gai orokorrek eskolan duten inpaktuaren ezaugarriak ematen ditu. Ildo horretan, honelaxe dio:

“Globalizazio ekonomikoak hezkuntzaren munduan izan dituen ondorioen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Gure ikasgeletan dauden immigranteen kopurua handitu da.
- Bizimoldeak eta kontsumoa estandarizatu dira, eta sor-kuntza arian-arian galduz joan da, izan diren produktu berri mordoan aurrean.
- Finantza-erakunde handien mende dauden komunikabideek (beste eskolak) oso eragin garrantzitsua dute besteei igortzen dizkiegun gizarte-balioen eta estereotipoen arloan.” (Morillas, 2006:17).

Oso adierazgarriak dira herritartasunerako hezkuntzak dituen aukerak eta mugak bereizteko ematen dituen ezaugarriak. Batez ere azken puntua nabarmendu behar da, diskurtso orokorretik alde egiten duten bi hausnarketa interesgarri sartzen baititu, diskurtso ofizialak ontzat eman nahi baititu hezkuntzako metodo eta eduki guztiak, eta edozein pertsonarentzat eraginkorrak izan daitezkeela uste izaten baitu, pertsona horren banakako ezaugarriak, inguruabarrak edo gizarteko ingurunea zeinahi direlarik ere: “Erabakitzen baldin badugu ezagutza errealitatea ulertzeko eta eraikitzeke modu bat dela, eta bertan subjektuen banakako eta gizarteko irudikapenek esku hartzen dutela, orduan, metodologia, ezagutza edo jardute guztiak ez dira egokiak izango Herritartasunerako Hezkuntzan baliatzeke.” (Morillas, 2006:13).

Bigarren hausnarketa Herritartasunerako Hezkuntzak izan behar duen ikuspegiari buruzkoa da. Puntu hori oso zaila eta kontraesankorra da, eta, haren bidez, ikasgai bat sortzen da edo zeharkako tratamendurako proposamen bat egiten da.

“Eskolak gizarteratzeko jokatzen duen zeregina ezin da murriztu hezkuntzako erkidegoko osagai guztien arteko elkarreraginera, ez eta arlo edo ikasgai jakin batzuetako ezagutza zehatz batzuen edukira ere. Curriculum formalaren zeharkako ardatza izan behar du, eta eragina izan behar du ezkutuko curriculumean eta hezkuntza ez-formaleko jardueretan. Ikaskuntzako arlo guztiak eta ikastetxeko proiektu guztiak ekarpena egin behar dute beren edukiekin herri-tarrak prestatzeko.” (Morillas, 2006:13).

Horrez gain, baieztapen horiekin bat etorrita, honakoa adierazten du: “Herritartasunerako Hezkuntza aintzat hartu behar da Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan, eta Ikastetxeko Urteko Planetan zehaztu behar da, eta, hortaz, arloko Curriculumeko Proiektuetan ere bai”. (Morillas, 2006:8). UNESCO erakundearen eskola elkartuetan dagoen Veritas Institutuan, Morillas-ek bi proiektu hauek garatu zituen Bigarren Hezkuntzarako: *El Patrimonio en Manos de los Jóvenes (Ondasuna gazteen esku)* eta *Youth for Change: Education for a Sustainable Consumption. (Youth for Change: Kontsumo iraunkorrerako hezkuntza)*. Curriculumeko lanari lotutako jarduerak eta baliabideak proposatzeaz gain, metodo zehatzak azaltzen ditu, esate baterako, ikuspegi sistemikoa, proiektuen araberako lana, eta ikaskuntza kooperatiboa. Metodo horiek bidea ematen dute ezagutza gizarteratzeko eta parte hartzeko ikaskuntza lortzeko. Bere lan osoan behin eta berriz azpimarratzen du bakerako hezkuntza, eta gai nagusiari lotutako gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzeko bidea; eta gai nagusia ingurumeneko hezkuntzako proiektu bati lotuta dago.

Polo (2004) eta Maiztegui-ri (2006) dagokienez, haien abia-burua Herritartasun Globalari lotuta dagoen 5. belaunaldiko Garapenerako Hezkuntza da. Haren formatua, edukiak eta esperientziak Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen esparrutik datozen proposamenak dira. Bi lane-tan, Europako Kontseiluaren proposamenak biltzen dira,

ondo frogatu ahal izateko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek nola lagundu dezaketen eskoletako irakaskuntzako lana, gaikako proposamenak eta proiektuaren arabera parte hartzeko lanak erabiliz.

Erkidegoko parte-hartzeari dagokionez, badirudi uste dela ikastetxe guztiak auzora zabalik egongo direla eta truke hori onuragarria izango dela ezinbestez. Alabaina, auzo bakoitzak, familia desberdinek edo bertan dauden kultura-ko elkarrekin dituzten gizarte-baldintzak ikustean, ehundura konplexua aurkituko dugu, eta zuhurtziaz aztertu behar-ko dugu. Bestalde, litekeena da hezkuntzako erkidegoak auzoan duen parte-hartzea arrakastatsua izatea; aitzitik, era berean gerta daiteke hezkuntzako jardutea eta programazioa oztopatu edo honda dezaketen gatazka berriak sorraraztea.

Carbonell-ek adierazi zuenez (2008), eskolak demokratiko-agoak izan daitezten, gehiago parte har dezaten eta balioetan gehiago oinarritu daitezten, eskolako gramatika, eta ezagutza igortzeko formak eta egitura aldatu behar dira; eta, itxura denez, aldaketa horiek ezin izango dira epe laburrean egin.

Beste ekimen bat Boni-k adierazitakoa da (2006). Boni-k erreferentzia hauek proposatzen ditu Garapenerako Hezkuntzako ereduaren *oinarritze ideologiko gisa*, Herritartasunerako Hezkuntza modura garatzeko: Giza Garapena, Giza Eskubideak eta Herritartasun Kosmopolita. Azken proposamen horrek zera ekartzen du berekin: “berdinen munduko erkidegoaren, herritar global gisa ditugun erantzukizunen, eta bera gauzatzeko proposamen politiko- en esanahia ulertzea”. (Boni, 2006:49).

Oinarritze axiologikoaren azpian, giza eskubideen balorazio-ko sistema dago, eta bereziki nabarmentzen ditu duintasuna, askatasuna, berdintasuna, erantzukizuna, elkar-riketa, errespetu eraginkorra, elkartasuna, justizia eta bakea bezalako balioak. *Oinarritze pedagogikoari* dagokionez, proposamenaren oinarrian, nortasun moralaren eraikuntza bezalako balioen hezkuntza dago, eta hori bat dator askatasunerako hezkuntzak, herri-hezkuntzak eta jardute sozial kritiko gisa baliatzen den hezkuntzak dituzten

proposamenekin. Azkenik, *oinarritze psikologikoa* azaltzen da. Kasu horretan, ezagutzaren teoria sozio-konstruktivistak dira irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuen oinarria, bereziki, juizio moralak garatzeko teoriak eta ikaskuntza adierazgarriaren teoriak.

Esparru teoriko sendo horretan oinarritzen da Garapenerako Hezkuntza, Oinarritzeko Hezkuntzari begira, trinkotasun eta koherentzia gehiago ematen dielako irakaskuntzako esku-hartzei, alde batetik, Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaia ezartzeko eta, bestetik, oro har curriculum osoaren zeharkakotasuna lortzeko.

Esparru teorikoa praktikara eramateko, ondo hautatu behar da kontzeptuzko, prozedurako eta balorazio-ko zein edukiren inguruan egituratuko den curriculumaren zehaztapena. Eduki horiek aukeratzeko, gizarte eta kultura aldetik duten garrantzia hartzen da aintzat, ez, ordea, diziplinen logika. Hautu horren bidez, zentzu etiko-politikoa eman ahal zaio herritartasunaren prestakuntzari, herritartasuna subjektu sozial modura hartuta. Dimentsio hori maiz ahaztuta geratu da eskolako jakintza kudeatzerakoan, Pérez Gómez-ek dioen moduan “...guztiz baztertuta dagoelako curriculumeko edukietatik, garai honetan lehentasuna ematen baitzaie zientziari eta haren aplikazio teknologikoei”. (Pérez Gómez, 1998:282).

Oinarri horiei jarraiki, Boni-k (2006) eskema honetan egituratu zuen proposamena:

13. Koadroa: Dimentsioak		
Kognitiboa	Prozedurazkoa	Jarrerazkoa
<ul style="list-style-type: none"> • Justizia soziala eta zuzentasuna. • Globalizazioa eta diziplina artekotasuna. • Garatzeko moduak. • Aniztasuna. • Bakea eta gatazka. • Garapenerako laguntza. • Herritartasun kosmopolita. 	<ul style="list-style-type: none"> • Pentsamendu kritikoa. • Arrazoibide eraginkorra. • Lankidetzeta eta gatazkek konpontzea. • Bidegabekeriei eta desberdintasunei erronka egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Enpatia. • Nortasuna eta auto-estimua. • Aniztasuna balioestea eta errespetatzea. • Justizia sozialarekiko eta zuzentasunarekiko konpromisoa. • Ingurumenarekiko kezka eta garapen iraunkorrarekiko konpromisoa. • Pertsonak desberdinak izan daitezkeela ustea. • Autoerregulatzeko ahalmena.

IDEIA GAKOAK

Iturria: Boni (2006:49).

Era berean, Intermón Oxfam¹⁵ erakundeak proposamen zehatzak egin ditu Herritartasunerako Hezkuntzari buruz, sektore formalean barneratze aldera. Izan ere, erakunde hori gonbidatuta egon zen Hezkuntza Ministerioak Hezkuntzako Lege berriari buruz eztabaida hastean egin zituen kontsulten txandan.¹⁶

Intermón erakundeak ikuspegi orokor batetik ulertzen du Herritartasunerako Hezkuntza, eta zeharkako ikuspuntu

batetik hartzen du, konpromisoek eta ekintzek, ikasgai zehatzarekin zerikusia izateaz gain, curriculumeko gainerako ikasgaiekin eta ikastetxeetan garatzen diren antolakuntzako alderdi guztiekin zerikusia izan dezaten. European egin den eta Espainiako legerian ere jaso den formulazioarekin bat etorrita, Delors txostenean adierazita dauden lau zutabeak onartzen dira, eta, horiei bosgarren zutabea gaineratzen zaie, mundu bidezkoago bat eraikitzeke lanari zuzenduta: “eraldatzen ikastea”.

¹⁵ Aipamen hau egiteko kontsultatu diren agiri guztiak Intermón Oxfam erakundearen web orrian daude jasota: www.intermonoxfam.org/es/page.asp?id=1702

¹⁶ Behin ezagutu ondoren, unibertsitate-erloko hainbat pertsonak eta gizarte-erloko erakunde batzuek bere proposamena bultzatu zuten (Amnistia Internazionala, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde Espainiako Koordinakundea -eta, batez ere, Garapenerako Hezkuntzako Taldea, Ingeniería Sin Fronteras, InteRed, Save the Children, Solidaridad Internacional).

14. Koadroa: Paradigmaren oinarriak

1. Ezagutzaren eta ekintzen dimentsio etikoa.
2. Pertsonaren eta herritarren dimentsio globala: herritartasun demokratikoa, ingurumenekoa, paritarioa, kultura artekoa, soziala eta bidezkoa.
3. Elkartasuna eta lankidetzeta.
4. Onura orokorra norberaren onuraren gainetik.
5. Errespetatzea errespetatua izateko.
6. Onura publikoa partekatutako erantzukizun bat da.
7. Planetaren eta haren garapenaren ikuskera sistematikoa eta globala.
8. Ingurumenaren oreka zaintzea.
9. Aniztasunaren balorazio ona.
10. Gutxiengoak errespetatzea.
11. Nortasun-ikurrak errespetatzea.
12. Justizia eta zuzentasuna babestea.
13. Eraikuntza sozialean parte hartzea.
14. Bizikidetzeta errazten duten arauak eta balioak errespetatzea.
15. Elkarriketa giza harremanen oinarri modura, eta gatazka eraldatzeko eta indarkeria errefusatzeko baliabide gisa.

Iturria: Intermón Oxfam (2005:7).

Herritartasun Globala lantzeko erabili beharko litzatekeen zeharkakotasunaren oinarriarekin bat etorrita, Intermón erakundeak proposamenaren edukiak zabaldu zituen bi agiritan. Lehen agirian, ikasgaiaren edukiak azaltzen dira, Oinarrizko Hezkuntzan eskuratu behar diren gaitasunei dagokienez; bigarren agirian, berriz, iradokizun batzuk jasotzen dira “herritartasun globala barneratzeko, ikas-

tetxean dauden hezkuntza-proiektuetan izandako bizipenaren, azterketaren eta hausnarketaren bidez.”

Herritartasun Global baterantz. Oinarrizko gaitasunen proposamena izeneko agirian (Intermón Oxfam, 2005), ikasgaiarako edukien proposamena zehaztuta daude.

15. Koadroa: Eduki multzoren proposamena		
Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak	Balio eta jarrerren edukiak
Ingurumena, garapen iraunkorra eta zuzentasuna.	Hipotesiak galdetzea eta azaltzea.	Pertsonarenak.
Norberaren eta taldearen osasuna.	Informazioa lortzea eta hautatzea.	Pertsonetikiko harremanenak.
Nortasuna eta kultura-aniztasuna.	Informazioa aztertzea eta ulertzea.	Ingurune sozialarekiko eta naturalarekiko harremanenak.
Gobernu, demokrazia eta herritarrak parte hartzeko moduak.	Informazioa ulertzea, antolatzea eta ezartzea.	
	Informazioa eta ondorioak adieraztea.	

Iturria: Intermón Oxfam (2005:11-13).

Bestetik, *Herritartasunaren eta giza eskubideen aldeko lana hezkuntzako proiektuan, ikastetxeko jarduera osoan eta ikastetxea ingurunera zabaltzeko prozesuan* izeneko agiria (Intermón Oxfam, 2006), ikastetxeak *komunikatzeko eta parte hartzeko erkidegoak* dira, eta bizitza demokratikoa ikasteko laborategi modura ibili behar dute. Hargatik, ezin dugu pentsatu ikasgai bakar batek Herritartasun Globalaren hedapena bermatuko duenik, eskolako jardue-
ra guztietan bizi izandako esperientziaren nahitaezko laguntza izan gabe, eta are gutxiago bermatu ahal izango da kontuan izanda herritartasuna ulertzean ez dela soilik kontuan hartzen hiriko dohainen ikaskuntzaren alderdia, era berean kontuan hartzen baita gune publikoan eragin-kortasunez parte hartzeko eta beren ingurunea hobetzeko eta eraldatzeko proiektuetan engaiatzeko lagungarriak izango zaizkien ahalmenak eta gaitasunak ikasleengan garatzeko prozesua.

Oinarri horiek ekintzako esparru modura izanda, proposamena zatikatzen joaten da, eta proposamenen multzo oso bat askatzen du:

- Irakasle kritikoak, ikertzaileak eta eraldatzaileak dira, ikerkuntza eta ekintzaren oinarrien pean lan egiten dute, eta hezkuntzaren alderdi pedagogikoa kontuan hartzeaz gain, hezkuntzaren dimentsio soziala eta etikoa ere hartzen dute aintzat.
- Irakasleen taldeek eta klaustroek beren jardutei buruzko hausnarketak egiten dituzte, prestakuntza jasotzen dute, berrikuntzak egiten dituzte, arazoak aurkitzen dituzte, eta ekiteko ildoak proposatzen dituzte. Kooperazioko lana, elkarrizketa eta deliberazioa, taldeko planifikazioa eta ebaluazioa dira, besteak beste, hezkuntzako tresnetako batzuk.
- Teoriaren eta praktikaren ikuspegia ez da dikotomikoa. Elkarrizketa dago unibertitatearen eta ikastetxeen artean (hori bultzatzeko ardura hezkuntzako agintarien esku egongo da), eta, era horretan, praktikoek “beren praktikei buruzko ikerketak egingo dituzte, eta teorialariek beren teoriak errealitatez beteko dituzte.”

- Tutoretzako ekintza. Irakaslea eredu “intelektuala eta morala da esparru sozialean”, konfiantzazko, elkarrizketako eta konpromisoko giroa pizten du, eta lankidetzan aritzen da hezkuntzako komunitateko beste kide batzuekin: gurasoekin, senideekin eta gizarteko beste eragile batzuekin.
- Ikasleari buruzko kontzepzioa aldatzen da: “kontsumi-tzaile pasiboa” izan beharrean, “ekoizle aktiboa” izango da; “munduen hartzailea” izan beharrean, “munduen egilea” izango da. Ikaskuntza baten protagonistak dira, eta ikaskuntza hori “ezin hobeki dabil parte hartzekoa, aurreranzkoa eta elkarlanekoa denean, eta esanahiak jaso beharrean esanahiak eraikitzen aritzen denean.”
- Curriculum demokratikoa eta parte hartzekoa. Ikaskuntza akademikoa eta bizitzarako ikaskuntza bateratzen ditu. Kooperazioko ikaskuntza, elkarrizketaren aldekoa eta solidarioa.
- Ingurunera irekia. Eskola prest dago ingurunearen ekarpena jasotzeko -ezagutzen, baliabideen, kulturen modura- eta, era berean prest dago ingurunearekin lankidetzan aritzeko “erkidegoa eratzeko”, elkargune modura aritzeko, eta gizartean trukea sorrarazteko.

Atal honetan ikusi ahal izan dugunez, irakaskuntzako azterketak eta proposamenen eta lankidetzako erakundeek eta hezitzaileek egin dituztenak oso antzekoak dira. Hori ikusita, berriro esan dezakegu egokia izan daitekeela Garapenerako Hezkuntzaren eta Herritartasunerako Hezkuntzaren artean lankidetzaren estua egotea.

3. Ikuspegi bateratzaile baterantz. Zeharkakotasuneko esperientziak

3.1. Garapenerako Hezkuntza. Dimentsio askotako ikuspegi bat

Garapenerako Hezkuntzak jasotzen dituen ikuspegi batzuk ezinbestekoak dira herritartasuna hezkuntza-arloan lantzeko. Esparru horretan lanean aritzen diren taldeek ondo zehaztuta dituzte ikuspegi horiek; eta, batez ere, 2002. urtean kontinente guztietako elkarteak batu zituen eta hezkuntza-arloko esperientziak eta hausnarketa teorikoak partekatzeko egin zen batzar¹⁷ batean garatu zituzten.

Dimentsio politikoa, alde batetik, herritarrei “zibismoari” lotutako gaiei buruzko prestakuntza emateari dagokio, eta batez ere hizpidera ekartzen du herritarrei prestakuntza ematea, parte hartze politiko eraginkorra eta arduratsua izan dezaten guztiz demokratikoak diren gizarteak eraikitzeko lanetan. Hezkuntzako dimentsio politikoak ezagutzera eman nahi ditu bizi garen mundua, bidegabekeriarik larrienen arrazoiak eta giza garapenaren alde lan egiteko egon daitezkeen hautabideak. Gizartea eraldatzeko xedea duen hezkuntza denez, Garapenerako Hezkuntzak, bere dimentsio politikoan, parte-hartzea sustatzen du, parte hartzeko estrategiak zehazten eta bultzatzen ditu, eta, beraz, gehienbat tresna bat da demokrazia sendotzeko. Era horretan, tartean dauden taldeek beren ahotsa berreskuratuko dute, taldeko erantzukizuna beren gain hartuko dute,

eta pertsona eta erkidego guztiek nahi duten etorkizuna batera zehazteko duten eskubidea izango dute. Bidegabekeriak eta berdintasunez beteriko nazioarteko egoeran, Garapenerako Hezkuntzak kontzientzia piztu nahi du egoera horrekiko, eta pertsonen prestakuntza eman nahi die batera jardun dezaten eta finkatuta dagoen ordena hantzez gora jarriko dituzten sormenezko estrategiak irudikatu ditzaten, eta laguntza eman dezaten garapenerako eredu zuzenak eta bidezkoak sortzeko.

Dimentsio kulturala. Globalizazioak eragina du Kulturaren eta kulturetan, kulturako sorkuntza-lanak kontsumoko produktu bilakatzen dituelako, eta kulturako hainbat nortasun zatitzen dituelako, ia erabat desagerrarazten dituen arte, nagusi den eta ekonomia globalak dituen eskaeren arabera egindako eraikuntza berri bat eratuz. Gizarteek arlo materialeko edo espiritualeko beharrianak konpontzeko historian barrena hartu dituzten formula desberdinen aberastasuna suntsitzen ari da, munduko edozein bazterretan guztiz “baliagarriak” diren kontsumoko eta asebetetzeko ereduek ordezkatzeko dutelako.

Kultura menperatzaileen eta kultura menperatuen artean -edo, gaur egungo hitzak erabiliz, gutxiengoaren kulturen eta kultura gutxituen artean- etengabe dagoen tirabira ezin da orain arte bezala konpondu asimilazioaren bidea baliatuz,

¹⁷ Azaroaren 10etik 16ra bitartean Murgian (Arabian) izan zen Herri Hezkuntza eta Garapenerako Hezkuntzaren Nazioarteko Sarearen batzarraren ondorioak Polygone-n kontsultatu ahal dira (2003): *Labirintoaren irteera, Hezkuntza-Mosaikoa lagun*. Bilbo, HEGOA/CIDAC/CIP/ITECO.

lehenik, errespetua, duintasuna eta giza eskubideak direla-eta, eta, bigarrenik, bazterkeria sortzen eta bereizkeria sakontzen duen axolagabetasun eta mespretxu hori delako gatazkarik larrienen eta bortitzenen atzean dagoen arrazoirik nagusietako bat.

Talde jakin batzuek sumatzen dute Sistemak bazterrean utzi dituela, bizitza duin bat izateko dituzten aukerak hutsalak direla, eta kexa azaltzeko edo baldintza hobekaldarrikatzeko egiten dituzten saiakera guztiak gogor zapaltzen dituztela edo ezikusia egiten dietela zuzenean. Hori ikusita, hobeto ulertuko ditugu orain dela urte batzuk Frantziako behe-auzoetan (banlieu-etan) izan ziren errebolta. Ez da kasualitate hutsa errebolta horien atzean behe-mailako gazteak egotea, etorkinen bigarren edo hirugarren belaunaldiko gazteak. Izan ere, Frantziako nazionalitatea izan arren, gazte horiek ohartzen dira hori “paper bustia” baizik ez dela, eta beren egoeraren ezaugarri nagusiak eskolako porrota, laneko prekaritatea edo luzatutako lan-gabezia direla.

Dimentsio kulturala ezinbestekoa da hezkuntzako politika guztietan, betiere, jotzen baldin badugu hezkuntza giza eskubide bat dela, eta oso tresna baliotsua dela gizarteratzeko eta garapen osoa lortzeko. Aukera-berdintasunei buruz hitz egiten badugu, abiaburuko egoerak ikusita pertsona guztiak lerro berean ez daudela ikusita, lasterketan desberdintasuna egongo da. Aukeren berdintasunari buruz hitz egin aurretik, zuzentasunari buruz hitz egin beharko genuke, eta politikak ezarri behar ditugu gizarteko bazterkeriari tinkotasunez aurka egiteko. Hori egin ondoren, eskola eta gizarte barneratzaileez mintzo ahal izango gara, baina ez lehenago.

Pertsonak herrialde batzuetatik besteetara mugitzen direnean, agerian jartzen da pertsona horiei harrera egiteko politikak ezarri behar direla, eta, horrez gain, kulturako aniztasuna balioesteko kultura zabaldu behar dela, elkarrekin bizitzeko esparruak sortu behar direla, eta esparru horietan pertsona guztien giza eskubideak onartu behar direla eta barneratzeko prozesua bermatzeko beharrezkoak diren trukeak egin behar direla, baina norberaren kulturalortasuna galdu beharrik gabe.

Baldintza horiekin bat etorrita, Garapenerako Hezkuntzak kultura arteko hezkuntza nabarmentzen du, hezkuntzako sistemek pertsona guztiei harrera egin diezaieten nahi du -batez ere baztertuta geratzeko arriskuan dauden, eta talde ahuleko edo talde gutxituetakoak diren pertsonei-. Horretarako, jabeak lortzeko estrategiak jartzen ditu abian, eta autonomia, elkarriketa, eta kulturako, generoko, etniako edo bestelako aniztasunari egiten zaion arreta indartzen ditu. Horrek esan nahi du askotarikoa den errealitate batekin sentikorra izan behar dela, eta onartu behar dela demokrazia kulturala parte hartzeko demokraziatik ezin banandu daitekeen zati bat dela, eta, hortaz, giza eskubideen aldarrikapenen artean jaso behar dela, Garapenerako Hezkuntzak egindako funtsezko ekintza modura (Polygone, 2003).

Garapenerako Hezkuntzak burujabetzeko duen interesak eta bere orientabide eraldatzaileak ikusita, horrek esan nahi *dimentsio pedagogikoaren* ikuspegi kritiko bat dagoela. Hezkuntzako proiektu osoa garapenerako ekoizpen-sistema sozial baten gisa hartu behar da, eta, hortaz, hezkuntzako harremanetan elkar eragiteko eta trukatzeko jarduteak eta harremanak berak Garapenerako Hezkuntzako osagaiak dira. Helburu hori lortu ahal izateko, ezinbestekoa da hezkuntzako eta gizarteko sektoreek eta eragileek itun bat egin dezaten, hezkuntzako ekintzari, kulturako ekoizpenari, komunikazioari, eta garatzeko beste eredu bat eraikitze-ko lanari zentzua eta batasuna eman ahal izateko. Ikuspegi pedagogikoak edukien definizioa, estrategiak, metodologiak, eta ebaluatzeko sistemak jasoko ditu, eta erantzuna eman behar die nahitaezkoztat jotzen diren zeharkako ildoen multzo bati.

a. Genero-ikuspegia Garapenerako Hezkuntzan dauden ikuspegi saihestezinetako bat da. Zeharkako ikuspegi batetik abiatuta, oraingo gizarteak eraldatu nahi dituen Garapenerako Hezkuntzan sartzeak dituen ondorioak aztertzen dira. Oraingo gizartearen ezaugarrien artean, pentsamendu androzentrikoa eta eurozentrikoa nagusitzen da, errealitateari buruzko narrazioko diskurtsoetan ikus daitekeenez Gizartea kopiatzeko dauden tresnek eskema horiek iraunarazten dituzte, eta, beraz, dekonstrukzio-prozesua egin behar da nahitaez, hau

da, errealtatearen azterketa kritikoa egin behar da; eta gero ekintza pedagogiko bat egin behar da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean oinarrituta dauden ereduak ikaskuntza finkatzeko aukera emango diguten Hezkidetzako oinarriak abiaburutzat hartuta.

- b. Hegoaldea Garapenerako Hezkuntzan. Garapenerako Hezkuntzari jarraiki, tokikoaren eta mundu osokoaren arteko lotura sartu behar da hezkuntzako prozesuetan. Ikuspegi horren arabera, Hegoaldeko pertsonekin eta erakundeekin batera egindako lana estrategia bat da garapenerako lankidetzaz zuzenago bat sustatzeko eta, aldi berean, ikuspegi bat da tradizioz eurozentrikoak izan diren ikuspegiak gainditzeko. Baina, horrez gain, kome-nigarria da imaginario kolektiboaren eraikuntzaren auzia aintzat hartzea. Garapenerako Hezkuntzak onartzen du Hegoaldeari buruzko imaginario kolektiboak herritarren artean duen eragina. Irudikapen mental horiek gizarte-ratzeko eragileen bitartez eraikitzen dira, esate baterako, komunikabideen bitartez; eta oso zeregin garrantzitsua betetzen dute Hegoaldeari buruz dauden estereotipoei begira. Horrenbestez, ikuspegi honetako ardatz gidarien artean, honakoak nabarmentzen dira: imaginario kolekti-bo hori nola eratzen den ezagutzeta, oinarritzat hartzen dituen gezurrak aurkitzea, eta sistemari eusteko bete-zen duten zeregina zein den jakitea.
- c. Bakea eta giza eskubideak. Bakea eta giza eskubideak sustatzeko hezkuntza ikuspegi pedagogiko baten oinar-ritzko ardatza da. Ikuspegi pedagogiko horrek kudeaketa ikastearen eta gatazkak konpontzearen alde egiten du, eta herrialde guztietan giza garapen bidezkoa eta zuzena lortzeko zutaberik garrantzitsuena giza eskubideak hedatzea eta gauzatzea dela jotzen du. Kasu honetan ere tokiko bakearen eraikuntza mundu osoko bakearen erai-kuntzarekin lotu behar dugu, eta biak ala biak andozen-trikoa ez den bakearen kultura batekin jarri behar dugu harremanetan. Oinarritzko tesi horrek bi hipotesi hauek jasotzen ditu: lehenik eta behin, indarkeriaren gertakari-ra hurbiltzeko, indarkeriaren egiturazko eta harremanez-ko baldintza eta dimentsio guztiak hartu behar direla kontuan; eta, bigarrenik, *bakearen kultura*, gertakari his-toriko eta prozesuzkoa den aldetik, bultzatzen ari garen

giza garapenaren baldintza, estrategia eta emaitza modura hartu behar dela.

- d. Iraunkortasuna. Hogeita hamar urte baino gehiago igaro dira *Los límites del crecimiento* (Hazkundearen mugak) izeneko txostena argitara eman zenetik. Txosten horrek ohartarazten zuen mundua ez zela gauza abiada bizian hazten zen biztanleriak behar zituen baliabideak sortze-ko. Era berean, ia hogeita urte joan dira *Nuestro futuro común* (Guztion etorkizuna) izeneko Brundtland txoste-nean garapen iraunkorraren kontzeptua lehenengo aldiz idatzi zenetik. Gaur egun ia inork ez du zalantzan jartzen ingurumen aldeko iraunkortasunarekin bateragarriak diren garapen-ereduak bilatu behar direla, hartara, etor-kizuneko belaunaldiek bere burua lehenera ekartzeko gauza izango den mundu bizia jasoko dute.

Garapenerako Hezkuntzari dagokionez, iraunkortasunaren auzia interesgarria da, aukera ematen digulako ingurune fisiko eta giza ingurumenaren arteko harremanetan sakontzen jarraitzeko. Horrek esan nahi du orain dauden ekoizpen eta kontsumoko ereduarekin kritikoa den ikuspegi batetik hezi behar dela, baina, aldi berean, ikuspegi horrek oraindik deuseztatu ez diren garapen-ereduen aniztasuna berreskuratzen eta zaintzen ahalegindu behar duela (herri indigenak), eta, orobat, azterketa kritikoa hori aurreko azterketen (generoko ikuspegia, hegoaldea, bakea...) maila berean jarri behar dela eta haiekin harremanetan ezarri behar dela, etorkizunean lortu nahi diren garapene-ko parametroak finkatze aldera.

Dimentsio etikoak balioko hipotesi batzuk ekartzen ditu; eta horien bitartez aztertzen eta epaitzen da errealtatea, eta, era berean, horien bitartez egin nahi da eraldatzeko esku-hartzea. Garapenerako Hezkuntza ideologikoa eta neutrala ez den hezkuntza bat da. Bertan, errealtateari buruzko irakurketa egitean, errealtatea ulertzeko lagun-garriak diren gako batzuk erabiltzen dira; era berean, justiz-ia sozialari, zuzentasunari, elkartasunari eta lankidetzari buruz dagoen diskurtsoa eta jardutea sostengatzeko fun-tsezkoak diren giltzarriak baliatzen dira. Dimentsio etiko horretatik abiatuta, Garapenerako Hezkuntzak pentsamendu kritikoa berreraiki nahi du, arazo sozialak giza duintasunaren

eta pertsonak duen balioaren ikuspegitik aztertzeko. Hargatik, gizartean dauden sektorerik ahulenen alde egiten du, eta, jarrera hori izanda, desberdintasuna salatzen du, eta giza garapenaren oinarriei hobeto egokitzen zaizkien bestelako hautabideak eskatzen ditu.

Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegiak paradigma hori baliatu du lanerako azken urteetan kontzeptuzko esparru gisa. Esparru hori, gure ustez, bereziki interesgarria da, hezkuntza formalari begira azal daitezkeen proposamenei etsi ahal izateko.

3.2. Herritartasuna berriz pentsatzea

Globalizazio neoliberalaren garaian herritartasunak duen zentzua berrikustean, gako batzuk hartu behar dira kontuan, nahiz eta, gaur egun, globalizazio horren aleroi batzuk pixka bat ukituta egon, agerian utzi baitira egungo krisian dituen inplikazioak eta erantzukizunak.

“Estatu demokratiko, burujabe, liberal eta erradikalaren teoria modernoak berarekin ekartzen duen erkidegoaren ideia bere burua zuzenean gobernatzen duen eta bere etorkizuna erabakitzen duen erkidegoa da. Ideia hori zalantzan jarri da, batez ere elkarrekiko lotura globalen eskemaren izaera eta Estatu modernoak aurrez aurre dituen arazoak direla-eta. Erkidego nazionalak ez dituzte bakarrik “programatzen” beren gobernuen ekintzak, erabakiak eta politikak; eta, era berean, gobernu horiek ez dituzte beren kabuz mugatzen herritarrentzat onuragarria den hori [...] Kontua ez da soilik instituzio demokratiko berriak era formalean definitzea; horrez gain, hasieran behintzat, eskualdean eta mundu osoan erabakia hartzeko egongo diren parte-hartze zibikorako bide zabalak ere definitu beharko dira” (Held, 2002:393-395).

Lehenik eta behin, ematen du kontu nabarmena dela herritartasunak zerikusia duela demokraziaren auziarekin. Ezin da benetako demokraziarik egon, herritartasunik ez badago. Herritartasuna jardunean ari den demokraziaren ekoizlea eta emaitza da aldi berean. Botere demokratikoa sortzen du, eta, botere hori sendotzen den heinean, benetako herritartasuna indartzen du. Hortaz, bada, parte-hartze

demokratikoa herritartasunaren ezinbesteko eta saihestezinako dimentsio bat dela ematen du.

Bigarrenik, herritartasunak erkidego bat behar du berekin, hain zuzen, bere burua erkidego gisa definitu nahi duen erkidego bat. Arlo publikoari buruz, erkidegoko arloari buruz, *res publicari* buruz arazo, interes, kontraesan edo gatazka bat sortzen den tokian, herritartasuna dago. Erkidegoak ere norbanakoen esparru bat behar du, beren isolamendua gainditu eta taldeko intereseko esparruen multzo bat zehaztu nahi duten norbanakoen esparrua. Erkidegoa eta publikoa herritarren arloa eratzen duten osagaiak dira.

Hirugarrenik, herritartasunak harreman-mota berezi bat du sartzan den sistemekin harremanetan jartzeko. Boterea legitimatzen du eta, horren truke, herritarren erkidego gisa onartua izatea eskatzen du. Gaur egun, herritartasuna ezin da murriztu estatuko boteren esparrura, mundu osoan elkarrekiko loturak daudelako, eta horiek autonomia eta burujabetza kentzen diotelako estatuko botereak tradizioz duen esparruari. Hala, bada, herritartasunak esan nahi du eskubideak eta betebeharrak onartuko direla era askotako botereak batera biltzen dituen jarduteko gune batean. Gune horrek estatuaren tokiko gunea gainditzen du, eta arlo globalean aritzen da.

Giltzarri horiekin bat etorrira, herritartasuna egon dadin beharrezkoak diren osagai batzuk aipa ditzakegu:

Herritartasunaren ondorioz, hau edukiko genuke:

- *Jarduteko esparru bat.* Herritartasuna dago, nagusi diren botereek taldeko arazoak kudeatzeko duten orientabidea eskatzeko, eztabaidatzeko, gizartean presioa egiteko, ukatzeko edo baieztatzeko gune modura azaltzen den heinean.
- *Eskubideen esparru bat.* Subjektuek eta erkidegoek onartuta dauden eta onartzeko modukoak diren eskubideak dituzte, beren kideen banakako edo taldeko bizitzan eragina duten arazoei dagokienez; herritartasunak auzi horietan oso botere-korrelazio desberdinean jardun behar baitu.

- *Taldea onartzeko eta egituratzeko esparru bat.* Herritartasuna taldeka antolatzen da eta bere burua onartzen du bere existentziaren bermearen eta jabe-kuntzaren sistema gisa.
- *Herritarren ekintzaren arloari eta edukiari emandako begirada kritiko bat.* Tokiko testuinguru bakoitzean gizarte-baldintzak zehazten dituzten boterearen esparruak eta iturriak urrutiratzen joan dira, lausoago eta konplexuago bilakatzen, eta, aldi berean, gune publikoaren eta gune pribatuaren artean dagoen lerroa lausotuz joan da.

“Gizateriak erronka bat du aurrean: herritartasunaren zibilizazio bat lortzea, berdintasunean oinarritutako errepublika unibertsal bat lortzea (Kant-en proiektu zaharraren zentzuan), Erdi Aroko estatuetarantz atzera jotzen ari den munduan, barnean sartutako eta kanpoan utzitako arteko aurkaritzaren ondorioz kohesio soziala azpiak janda duen munduan. Guztiz pribatuak, banakakoak diren eskubideak “onartzeko” politika ez ezartzeko eta, horren ordez, zibilizazioaren politika izango den herritartasunaren politika ezartzeko erronka du aurrean; hala ere, eskubide horiek ez dira gutxietsi behar (Nair, 2003:276).

Horren ondorioz, gaur egun herritartasuna eremu zabala-goetan baliatu behar da, tradizioz estatuari eman zaizkion eremuez gain, tokiko eta munduko dimentsio berri bat hartzeko.

Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzako proiektua esparru jakin batean kokatu behar da: eredu nagusiak bere proiektu politiko-soziala eraikitzeko zabaltzen dituen estrategiak eta proiektu kritiko eta eraldatzaileak eskatzen dituen hautazko eta erresistentziako estrategiak aurrez aurre jartzen dituen esparruan.

Blokeen garaiaren bukaerari loturik dagoen oraingo globalizazio neoliberalaren prozesuan, munduko alderdi gehienetan ez dago erabateko herritartasunik, eta are gutxiago eredu homogeenoko herritartasunik. Estatu demokratiko gutxi onartzen dute beren herritarren eskubide guztiak. Herritartasuna baliatzea aldi behin boto bat ematea

izateaz gain, hortik haratago doazen esperientziei dago-kienez, ia ez dago horrelakorik.

Globalizazioak hainbat prozesu aipatzen ditu, eta horiek antolamendu berriak egiten dituzte munduko osoko gizarte guztietan. Alde batetik, planeta ekoizpena modu desberdinean antolatzen duen esfera bat da, eta, aberastasun hori berriz banatzean modu are desberdinean jokatu du. Ekoizpen- eta finantza-arloko globalizazioak -multinazionalak, merkatuek, sare mediatikoez eta teknologikoez- ez du herritartasun gehiago sorrarazten; aitzitik, salgaiak, kapitalak eta kulturako ikurrak mugitzen ditu, lan-eskuaren mugimendu izugarriak eragiten ditu, baina ez du erabateko herritartasuna ematen, eta gizartea zatikatzeko eta bazterkeria-mota berriak agertzeko arriskua handiagotzen du.

Globalizazioaren kudeaketak estatuetako boterearen kontrolpetik kanpo geratzen diren mekanismo berriak sortzen ditu. Parametro berri horien arabera berriz antolatzen ari diren gizarteak izuz ikusten dute Estatuaren gaineko kontrolari eta eraginari dagokion ordezkartzeko herritartasun politikoaren eredu zaharrak ez duela balio nazioarteko arazo berrien garrantziaren aurrean.

Gertaera horren inpaktuak kultura-arloa ere ukitzen du. Kapitalismoa ohartzen da zer-nolako aukerak izango diren aisialdiaren, komunikabideen, zerbitzuen, ikurren eta zientzia eta teknologiko produktuen mundua kapitaleko eta merkataritzako ekoizpenaren mendeko salgai bihurtzean. Teknologia berriei esker lortzen da hori. Ordutik aurrera, kulturako ikurren sorkuntzak ez du harremanik gutxi gorabehera akademikoa den, eta etikari edo zentzu sozialari lotuta dagoen jakintzaren ekoizpenarekin. Horren ordez, balioa hartzen du, kontsumoko objektu bilakatzen den heinean.

Subjektu herritarrek sortu beharrean, subjektu kontsumitzaileak sortzea era sistematikoan antolatua dagoen prozesu bat da. Merkatua arlo politikoaren ordezkari gisa, kontsumoa zuzenbidearen ordezkari gisa, norbanakoaren sarbidea herritarren erkidegoaren aurrez aurre, supermerkatu globala ekintza politikoaren esparruaren aurrean. Politika bera ere kontsumitzeko sortu den salgaiaren zati

bilaka daiteke, herritarren ekintzaren ameskeriaren bidez. Hala, arlo herritarraren suntsipena, larderiako ekintza politiko baten estutasunaren azpiproduktua izan beharrean, herritartasunaren merkantilizazioaren emaitza bihurtzen da.

Kapitalismo Berantiarraren barruan -edo, beste adiera batzuei jarraiki, globalizazio neoliberalaren, postmodernitatearen, edota bigarren modernitatearen barruan- sartu diren aldaketa handien multzo horrek guztiak ondorio sakonak ditu gizarteak egituratzerakoan eta benetako eta erabateko herritartasun demokratikoaren arloetara eramatean. Norbanakoek eta taldeek aurre egiten diote gune politikoak, ekonomikoak, kulturalak eta sinbolikoak berriz antolatzeko prozesu horri, eta erantzun egiten dute harremanezko, nortasuneko eta barneratzeko modu berriak erabiliz. Alabaina, ondoriorik gertukoena gizartea zatikatzeko dinamiketan agertzen da, zulo bat irekitzen baitu barnean sartu diren eta kanpoan utzi diren pertsonen eta taldeen artean. Tokiko erkidegoak gero eta zailtasun gehiago du nortasuna eta taldeko harrera ematen duen herritartasun barneratzailea partekatzeko.

Testuinguru horretan, herritartasuna publiko bihurtutako eta gizarteratutako kulturaren urtzen eta inhibitzen da, hezkuntzako ikuspegiari begira oso garrantzitsuak diren “I” alderdi batzuen eraginez:

“Indiferentzia”. Ikuskera honek erabat bereizten ditu, alde batetik, “gu” -ni haren zati bat bainaiz, eta enpatia sentitzen baitut haiekiko- eta, bestetik, “besteak” -horien aurrean sentikortasunik ezaren harresia erabatekoa baita-. Axolagabetasun hori gero eta gehiago murrizten ari da berehalako eta hurbileko zirkuluetara, horietan pertsonalaren/familiarraren eta taldekoaren arteko harremana urrutiratzeko joera baitago, eta, era horretan, arlo publikoaren esparrua ia existitzen ez den partzela sozial zatikatu batera mugatzen baita. Axolagabetasuna mehatxu modura agertzen den kanpoko mundu ezezagun horren -edo, besterik ez bada ere, kezagarria izan daitekeen mundu horren- aurrean egindako babes/eraso gisa ere azal daiteke.

“Ikusezintasuna”. Kanpokoaren aurrean emandako begirada, hor erkidegoa “ez baita existitzen”. Nire “niaren”

eta taldeko arazoaren artean, hutsunea besterik ez dago. “Besteak” ikusezinak dira niretzat eta ni ikusezina naiz gainerakoentzat. Gizarte horretan gelaxkak, komunikatzeko eta harrera egiteko oihal bihurtu beharrean, isolatzeko murru bilakatzen dira. Nire niaren eta arazoaren artean hutsunea dago, eta horrek erkidegoaren eta herritartasunaren hutsunea islatzen eta sorrazten du. Nolanahi ere, botere handia gero eta urrutiago dago, gero eta bidegabegoa eta apetatsuagoa da, eta bera da hutsune hori eta horrek subjektuarentzat dituen ondorioak zehazten dituen.

“Ibilgetasuna”. Sentsazio hau dugu: zenbat eta ekintza eta mobilizazio gutxiago egon, orduan eta emaitza hobekoak lortuko ditugu. Arazoaren aurrean ahalik eta erantzunik txikiena eman behar da; horrela, arazoak ez du eraginik izango subjektuarengan. Arazoa ez da desagertzen, baina bera saihesteko ahalegina egiten da, bidean oztopo modura ager ez dadin. Kontua ez da soilik “hor kanpoan” dagoenaren aurrean ikusezina eta axolagabea izatea; horrez gain, aurre egiteko egin daitekeen ekintza ikusezina izatea ere lortu behar da.

Res publican parte hartzea kontrako abiaburua da. Parte hartzea da inplikatzeko axolagabe izan beharrean, ikusgai izatea onarpena jaso ahal izateko, egituratzea eta jabe-kuntza lortzea, eta, era berean, mobilizatzea, herritartasuna eta haren eskubideak sakontzeko eta babesteko.


“Inpotentzia”. Arazo handien aurrean, zain egon behar da, irtenbidea kanpotik noiz iritsiko, subjektua ez baita gauza izango ezer egiteko arazo horien aurrean. Konponbidea boteretik baizik ezin bada iritsi, subjektua “jabekuntzarik gabe” egongo da, ahalmenik gabe. Ezintasuna subjektuak eta herritartasunak duten gaitasunaren pertzepzioan dagoen babesgabetasunaren logika da. Herritartasuna ezin bada sartu subjektu bakoitzaren arlora laguntza emateko, barneratzeko, eta konfiantza eta nortasuna emateko, orduan, berak ere ez du indarririk ez jabekuntzarik jasoko erronka horiei ekiteko eta bere aukerak zabaltzeko.

16. Koadroa: Herritartasunaren eraikinean bi ardatz

	Ekintzaren esparrua	Eskubideen esparrua	Taldea antolatzeko prozesuaren esparrua	Begirada kritikoaren esparrua
Indiferentzia	“Guk” eta “Besteek” elkarri eragiten diogu beti eta ezinbestean. Ez gara axolagabeak eta ezin gara axolagabeak izan. Onarpena ematen dugu edo aurka jartzen gara.	“Besteek” “Gugan” eragina duten eskubideak dituzte. Gure eskubideak onetsi behar ditugu, eta elkarrekiko garrantzia ulertu behar dugu. Erlazioa.	Batera jarduteko antolatzen bagara, gaitasun gehiago izango dugu. Zer garen sentitzen badugu, gure buruarekiko ardura hartzen badugu, orduan, indartsuagoak izango gara. Gure Betebeharren barruko zati baten modura onartzen baldin badugu.	Gugan eragina duen, guri dagokigun edota kezkatzen gaituen edozein alderdiren gainean esku har dezakegu, eta hala egin behar dugu.
Ikusezintasuna	Jardun behar dugu ikusgai izateko, aritu behar dugu aurre egiteko. Ikusgai bagara eta elkarrekiko onarpena ematen badiogu, estrategiak prestatu ahal izango ditugu batera, guri dagokigun horretan eragina izateko.	Gatazkei era sortzailean egin behar zaie aurre, norberaren interesak adierazteko eta dagozkigun Eskubideak ere babesteko.	Ikusgai garen heinean lortuko ditugu soilik gure existentzia aldarrikatzeko eta taldeko ekintzei ekiteko behar diren konfiantza eta onespina.	Agerpen publikoak eta gure eskariaren, ikuspegiaren eta eskubideen aldarrikapenak finkatzen dute taldeko agenda, eta beste batzuei adorea ematen die azaltzeko eta gurekin bat egiteko.
Ibilgetasuna	Ibilgetasunari aurre egiteak izaera estrategikoa hartzen du. Horrek esan nahi du indarren eta erresistentzien korrelazioa zabaldu behar dela; horiek taldeka definituko dira, testuinguru zehatzen arabera eta begirada orokorrean jarraiki.	Eskubideak eta Betebeharrak ez dira lan abstraktuak eta generikoak, eraginpean duten pertsonen eta taldeen dituzten interes, itxaropen eta aukeretatik kanpokoak. Eskubideak balia daitezten eskatzeko eta zaintzeko, geldiarazten duten joeren aurka dagoen ekintza bat behar da.	Mobilizazioaren zati baten bidez, taldeko egituratzea bera lortu nahi da. Gure burua onartu eta indartu behar dugu baterako ekintzaren bidez, era horretan, gure erkidegoko errealitatea hobetuko baita, eta, aldi berean, hori jabetuntzarako eragile bat izango baita.	Taldeko mobilizazioek, gatazkek eta aldarrikapenak izandako ondorioen balioespenak, ziurrena, argi-itzez, eta sendotasun eta ahultasunez beteriko egoera bat erakutsiko digu. Alabaina, ezagutza kritiko hori behar dugu gizartea eraldatzeko behar diren ekintza eta eragin politikorako ildo berriak diseinatu ahal izateko.
Inpotentzia	Jardun behar dugu ez pentsatzeko ezin dela ezer egin, ez pentsatzeko onartzea eta men egitea besterik ezin dela egin. Taldeka jarduteak boterea sortzen eta igortzen du.	Jakin behar dugu Eskubideak eta Betebeharrak ditugula, eskubide horiek eska ditzakegula eta eskatu behar ditugula, eta babestu eta zabaldu ditzakegula; horrela geure ezintasunaz dugun pertzepzioari aurre egingo diogu.	Banakako ekintzek balio sinbolikoa izan dezakete, baina eskariarekin aurrera egiteko behar den boterea eskuratzeko taldeko ekintzara jo behar da.	Boterea eta kontraboterea gatazka batean dagoen harreman dialektiko bat dira; bertan txikia dena handia izan daiteke, ondo egituratuta eta baterako interesari lotuta baldin badago.

Iturria: Bertan eginda.

17. Koadroa: Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza Globalerako pistak



Iturria: Bertan eginda.

Bi koadro horietan begirada bat eman nahi zaie zenbait auziri, auzi horiek lagungarriak izan baitaitezke, 5. belau-naldiko Garapenerako Hezkuntzaren esparrutik abiatuta, Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzaren irakurketa egiteko.

Lehenengo koadroan, herritartasunaren erkidegoa eraikitzen hasteko ikasi eta gaingitu behar diren oztupoak eta trabak agertzen dira. Zutabe bertikalean, nagusi den kulturaz azaltzen diren eta pertsonen barneratuta dituzten osagaiak paratu ditugu; osagai horiek herritartasunerako proiektuarekin aurrera egiteko dauden aukerak murrizten dituzte (lau “I” osagaiak dira: indiferentzia, ikusezintasuna, ibilgetasuna eta inpotentzia).

Bestetik, zutabe horizontalean, aurreko lau “I” osagaien kultura ahazteko eta, orobat, herritarren ikaskuntzarekin aurrera egiteko indartu ahal ditugun arloak azaltzen dira (ekintza, eskubideak eta betebeharrak, taldeka egituratzea eta begirada kritikoa). Haien ondorioz, ez da nahitaz mailaketa bat egon behar ahazte / ikaste prozesuaren aurrerapenean, baina sistematika bat eratzen dute irakasleak balia dezan. Ziurrena, ez da beharrezkoa izango lauki bakoitzari arreta berezia egitea, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan batzuk besteen gainean jartzen baitira; alabaina, multzo osoa hartu behar da kontuan, arlo horretan izandako aurrerapenak ebaluatu ahal izateko.

Bigarren koadroan, esparru hori islatu nahi da, herritartasunaren giltzarri buruzko iriste-maila desberdinak oinarritzat hartuta:

- Eskolako esparrua, hainbat eskalatan -taldeak, ikasgela, ikastetxea, eskolako erkidegoa...-
- Tokiko esparrua -prozesua, eragileak, gatazkak, arazoak...-
- Europako esparrua -kulturako eta/edo nazioko aniztasunak, gatazkak...-
- Tokiko/planetako esparrua -planeta, aniztasun eta konplexutasun guztia aintzat hartuta, sareak, tartean dauden eragileak...-

Hiru dimentsioko formatu horretan, hirugarren dimentsio batek kontuan hartzen du zeharkakotasuna eratzen duten ikuspegiak ba ote dagoen; ez diegu horiei uko egiten, euskarri partzialak edo osoak eskaintzen dutelako herritartasunak aurrez aurre dituen arazoak aztertzeke.

3.3. Ikasgela, ikastetxean eta erkidegoan lan egiteko ildoak

Azterketa honetan jaso ditugun ebidentzia guztien bidez, frogatu nahi da “herritarrak hezteko” asmoa ezin dela utzi ikasgai bakar baten esku. Ikasgai hori oinarriko hezkuntzaaldiko bi ikasturteetan baizik ez da ematen (Lehen Hezkuntzako 5.ean eta DBH-ko 3.ean). Proposamen ofizialei jarriki, DBH-ko 4. mailako Etikan ere jasoko da. Orduan, hezkuntzako estrategia zabalago bat diseinatu behar da, helburu horiek indartu ahal izateko, eta ikasgaiari dago-kion tratamenduari koherentzia eta ikuspegia emateko.

Ikasgaia Herritartasunerako Hezkuntzaren sustatzailea izan daiteke ikastetxe osoari begira. Alabaina, garrantzitsua da jarduteko beste maila batzuk azaltzeko, esku-hartzeari sendotasun gehiago emate aldera. Ona izango litzateke ikastetxeak parte har zezala erkidegoko esparruan esku hartzeko herritarrek egiten dituzten dinamiketan eta, orobat, izaera orokorragoko beste jarduera batzuetan.

“Eskolatzea gizarteratzeko prozesuan modu berezian parte hartzen duen instantzietako bat besterik ez bada, orduan, une oro hartu beharko ditugu kontuan beste eragile batzuekin dituen harremanak, eta ulertu beharko dugu eskolako politikak gizarteko eta kulturako beste estrategia batzuekin osatu behar direla. Herritartasun demokratikorako hezkuntzak bizitzeko eta ikasteko ingurumen natural eta koherentea eman beharko dizkie etorkizuneko herritarrei. Ingurune horretan nahitaz bateratu behar dira eguneroko bizitzarako hiri-izaerako eta izaera etikoko portaerako arauak, eta lankidetzaren eta tolerantziaren aldeko jarrerak. Nolanahi ere, gogoan izan behar da herritartasuna legitimatzen duten edukiak edo esanahiak zabalagoak direla modu zehatz batean, eta gobernatzeko era bat den aldetik, demokraziari dagozkien horiek baino [...] Desberdintasuna dena errespetuz


hartzen duen Herritartasunerako Hezkuntza eskoletako eta kanpoko munduko eguneroko bizitzan dago.” (Gimeno Sacristán, 2001:275-276).

Bosgarren belaunaldiko Garapenerako Hezkuntzatik Herritartasun Globalerako Hezkuntza genero eta kultura artekotasunaren ikuspuntutik proposatzen dugunean, estrategia bat lantzen ari gara norabide horretan.

Proposamenari jarraiki, hala ikasgaia nola ikastetxeko dinamika bera erkidegoko praktiken barruan jasota egongo

dira; eta praktika horien bidez, Herritartasunerako Hezkuntza ikasi eta harekin saiakerak egin ahal izango dira. Dimentsio globala ikuspegi saihestezina da, eta mikro eta makro mailen arteko harremanari buruzko kontzientzia zabaltzen den bitartean garatzen da. Mundu mailako gertakariak edo dinamiek eragina izaten dute erkidego zehatzen bizitzan (adb., krisi ekonomikoa). Era berean, gure tokiko kontsumoko ohiturek ere beren isla dute maila globalean (ekoizpena eta merkatua, inpaktu ekologikoa eta abar). Horri jarraiki, tokiko ekintza herritarra eta ekintza herritar globala aldi berean bultzatu behar direla pentsatu da.

18. Koadroa: Herritartasunerako Hezkuntzako erlazioak



Iturria: Bertan eginda.

3.3.1. Ikasgela Herritartasunerako gune gisa

Mundilab¹⁸ laborategiko esperientziak argi erakusten digu material didaktikoz, baliabide metodologikoz eta teknikoz hornituta dagoen eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza lantzen bereziki aritzen den ikasgela bat sortzeak izugarritzko emaitza onak izan ditzakeela.

Horiek ikusita, proposamena egin zen ikastetxe batean Mundilab laborategiko gelaren antzeko ikasgela-laborategi bat sor zedin Herritartasunerako Hezkuntza aztertzeko. Ikastetxeak berak eskatu zuen ikasgela bat xede horretarako balia zedin. Horrek eztabaida interesgarria piztu zuen, ikasgaia ikastetxean sartzeari buruz eta gune horren zereginari buruz, eta herritartasunerako eskolari buruz. Bi helburu horiek instituzio osoaren ardurapean daude.

Bestalde, Herritartasunerako Hezkuntzako erreferentziako ikasgela gisa, ikastetxeko ikasgai guztiei zabalik dago, betiere, ikasgai horiek herritartasunaren alderdiren bat lantzen baldin badute.

Ikasgelak behar den malgutasuna izan behar du -gune eta altzari aldetik-, era askotako elkartzeak egin ahal izateko, esate baterako, ikasgelako batzarrak egiteko, banaka lan egiteko edo talde txiki batean biltzeko. Ikasgela horrek aukera eman behar du ikasgelako batzarra instituzional bihurtzeko, herritartasuna baliatzeko bide eta esparru modura, eztabaidatu behar diren arazoei begira, hartu beharreko erabakiei begira, taldeko ebaluazioei begira, eta arauak zehazteari begira -eskolako bizitzaren kudeaketa demokratikoari lotuta dauden eskubideei eta burujabetzari dagozkien legeak eta prozesuak egitea barne hartuta-. Demokrazia, parte-hartzea, ikerketa, lankidetzeta, eztabaida, ebaluazioa, erantzukizunak eskatzea eta hausnarketa dira batzarraren funtzionamenduaren eta, oro har, hezkuntzako prozesuaren funtsezko oinarriak.

Ikasgela baliabideen zentro modura erabil daiteke, eta, ildo horretan, ikasleei zabaldutako liburutegi bat izan dezake barrua. Era berean, haren zati bat informatikako eta sareko lanerako baliatu ahal da. Ikasgelan erabilgarri dauden

baliabide teknikoak baliatuz, komunikatzeko era askotako egoeratan lan egin ahal izango da, eta horrek ikaskuntza, trukea, hausnarketa eta eztabaida, edota banakako nahiz taldeko aurkezpenak erraztuko ditu.

Ikasgela hori loturik egongo da beste ikasgela batzuekin, eta irratia, telebista eta/edo eskolako egunkaria, liburutegia, ordenagailuen gela edo antzeko ekimenak biltzen dituen ikastetxeko gunearekin ere bai. Herritartasunerako Hezkuntzako ikasgelak ikastetxearen barneko sarean sartuta egon behar du, eta lotura izan behar du lan egiteko lerro bereziak bultzatzeko erabiltzen diren taldeko baliabideekin. Ikasgela horrek lan egiteko dinamikak sortzen ditu ikastetxean bertan dauden taldeko baliabideekin, eta tokiko eta mundu-mailako erkidegoaren baliabideekin.

Sarean dagoen ikasgela horren bidez, programaren edozein alderdik ikertzeko eta ikasteko ildo berriak jaso ahal izango ditu ezagutzaren hainbat esparrutan. Horrez gain, tartean dauden eragileekiko harremana erraztuko du, eta interpretazio-sorta zabala izango du herritarren parte-hartzea bultzatzeko. Barrurantz -erdialderantz- eta kanporantz zabalik dagoen gela bat -irteerak izango ditu, egoerekin, pertsonekin, instituzioekin eta/edo tokiko inguruneko prozesuekin harremanetan jartzeko eta eskolan sartu, eta hezkuntzako ingurunean egokitu daitezen gonbidatzeko-. Tokiko erkidegoarekin harremanetan jartzeko irekiera hori egiten denean, ikasgela gune egokia izan daiteke urrutikoak diren esparruekin eta eragileekin komunikatzen ikasteko, horietan zuzenean egotea ezinezkoa denean. Gaur egun, teknologiaren bidez, tokiko/mundu-mailako konexioa egin dezakegu, era askotako formatu eta prozesu erabiliz.

Esan dugun bezala, Herritartasunerako Hezkuntza ekintza formal akademikoaren antipodetan dago; ekintza formal akademikoa burokratizatuta baitago, eduki sozialik, gatazkarik, ikuspegi aniztasunik eta eztabaidarik ez duelako, eta gizartean oihartzunik ez duelako. Aitzitik, Herritartasunerako Hezkuntzak norberaren eta taldearen inplikazioa lortu nahi du hezkuntzako jardutean, bai eta *res publicaren* arazoez giza-kiengan sorrarazten dituzten ondorioen ulermena ere.

¹⁸ Ikusi Eranskinean esperientziaren laburpen bat.

Hargatik, gune horretan norabide horretatik lan egiteaz gain, estrategia metodologikoak behar ditugu, curriculum formala irakaskuntza eta ikaskuntzako praktika bizia eta konplexua izan dadin, eta gero gehiago hazi dadin.

Proposatzen dugun metodologiari jarraiki, “Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza Globalerako pistak” koadroan (ikus 17. koadroa) iradoki den hiru dimentsioko eredia landu nahi da, oinarrizko esparru gisa. Hor dagoen koadroak sarrera bikoitza eta lau abzisa ditu, eta, bertan, desegituratu nahi diren herritartasunaren aurkako jarrerak islatuta daude: *indiferentzia*, *ikuspezintasuna*, *ibilgetasuna* eta *inpotentzia*. Ordenatuen ardatzean dauden lau itemek hezkuntzako prozesuan aurrerapen-aldiak azal ditzaketen eremuak adierazten dituzte: *begirada kritikoa*, *taldeka egituratzea*, *eskubideak* eta *ekintza*. Horrela 16 gelaxka zehaztu dira, eta horiek guztiek irakaskuntza eta ikaskuntza lana egituratzeko guneak ematen dituzte aditzera. Bestalde, 16 gelaxka horizontal horiek hiru dimentsioko hirugarren ardatz batean proiektatzen dira, eta, bertan, herritartasunaren eskalak proposatzen dira: *eskolakoa*, *tokikoa*, *Europakoa* eta *mundumailakoa*. Horrenbestez, 64 lan-kuboko eredu teorikoa

lortuko dugu. Hirurogeita lau gela horiek Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeari jarraiki *Zeharkako ikuspegiak* deitutakoek zeharkatu ahal izango lituzkete; zeharkako ikuspegi horiek -“Hainbat hezkuntzatak” ildoen ondoriozkoak dira, eta honako hauek dira: Garapena, Demokrazia, Hezkidetzatza, Kultura Artekotasuna, Iraunkortasuna, Komunikazioa, Osasuna, Kontsumoa, Bakea, Giza Eskubideak... Auzi horiek guztiak Herritartasunerako Hezkuntzan sartuta daude, eta curriculum ofizialak bera jaso ditu.

Orientabide egokia eman ahal digu estrategia metodologikoa prestatzeko, eta lortutako aurrerapenei buruzko ebaluazioa eta ikerketa egiteko egiturazko koadro gisa ere baliatu daiteke (ikus 17. koadroa). Ez du nahitaez adierazten aurrerapena egon denik, eta, era berean, ez du esan nahi, multzoetako batean lan egiten denean, hori bestetan edo beste batean egindako lanarekin harremanetan jartzea ezinezkoa denik. Hortaz, aukera ematen digu diseinu didaktikoen arloan aurrera egiteko, lantzen ari garen horrekin aurreratzeko, eta herritartasunaren ikaskuntzaren alderdiak prestatzeko.

Gatazka bat ikasgelan

1. Begirada kritikoa. Gatazkaren ezaugarriak. Tartean dauden pertsonak. Jarrerak. Interesak. Botere-harremanak. Egon daitezkeen hautabideak. Konpontzeko dauden zailtasunak.
2. Eskubideak. Balioak. Tartean dauden arauak. Antzeko egoeren historia eta memoria.
3. Taldeka egituratzea. Zuzenean sartuta ez dauden pertsonen jarrera. Sartuta ez dauden bitarteko eragile horiek izan dezaketenez zeregina. Gatazkaren, hautabideen eta konpontzeko estrategien aurrean dagoen inplikazio-maila eta jarrerak. Prozesuan parte hartzea taldeka eta modu egituratu batean.
4. Ekintza. Gatazkan parte hartzeko, aztertzeko, eztabaidatzeko eta kudeatzeko prozesuak, negoziazioko moduak aztertuz, eta bilatuz eta, aldi berean, taldeak zehaztu dituen eta bere buruaren jabeak lortzeko baliatu dituen balioekin eta araukin harremanetan jarriz.

Urrats horietako bakoitzean nahitaez ulertu beharko ditugu dauden era askotako inplikazioak eta parte hartzeak duen garrantziak, pertsona bakoitzak gatazkan duen inplikazio-maila alde batera utzita. Hala, bada, ezinbestez baztertu beharko ditugu arazoaren aurrean dauden *indiferentziako* egoerak.

Nabarmendu behar den beste osagai bat da subjektuen *ikusezintasuna* eta gatazka guztietan ezkututzen diren alderdiak; haiek azaldu gabe, gatazka hasieratik gera daiteke botere eta normaltasuneko harreman jakin batzuetan sartuta, eta, horrela, konponbidea -justizia-maila alde batera utzita- aurrez finkatuta egon daiteke ia. Batzuetan, hizpide dugun ikusezintasunak garrantzi gutxiago izango du, hain zuzen, gatazka esplizitua denetan; beste batzuetan, ordea, garrantzi gehiago hartuko du, zehazki, gatazka ezkutuan dagoenean (bidegabekeria, desberdintasuna, indarkeria, eta eskubideen urraketa iragarazten).

Hezkuntzako prozesuak alderantzikatu beharko duen beste auzi bat *ibilgetasunerako* joera izango da. Kontua ez da soilik joera pasibo horri loturik egoera konpontzeko ezin daitekeela ezer egin dioen justifikazioa azaltzen dela -boterea daukaten horiek egin ditzaketek ekintzak alde batera utzita, gehienetan boterea duten horiek ez baitira pertsonarik kaltetuenak izaten-. Ikasitakoa ahazteko eta parte-hartzea bultzatzeko, neurri batean baztertu behar dira gatazkei egindako begiradak, eta ezkutatu behar da ia ikusezinak baina ugariak diren eta beren jarrera pasibo edo aktiboaren bidez gatazkari eusteko edo bera konpontzeko baldintzak errotik aldatzen dituzten eragileen zeregina. Adorea galtzeko eta geldiarazteko joera ezkutuan dago, eta lotura du nagusi diren ikaskuntza guztiekin.

Pertsonak botererik ez dutela eta dagozkien gauzetan dagoen indar-korrelazioa aldatzeko gauza ez direla pentsatzeak mugiezintasunera eramaten gaitu, eta mugiezintasun berak ezintasunera. Gatazketan eta arazoetan *inpotenziaren* aurka heztea, beraz, Herritartasunerako Hezkuntzaren osagai estrategiko bat da. Beharbada, beste “I” osagaiak berregituratzen diren heinean, handitu egingo da norberaren boterearen kontzientzia eta arazoa konpontzeko eragina izateko aukera.

Hortaz, beharbada arlo guztiak indar gehiago edo gutxiagorekin landuko dira, prozesu didaktikoaren sekuentziazio jakin batekin, guztiok ikaskuntzan sartzeko dauden zailtasunak ikusita. Baina, aldi berean, ibilbide-orri bat izan daiteke, lan-prozesuan parte ez hartzeko eta ez engaiatzeko dagoen joera ezabatu ahal izateko.

Antzeko zerbait gertatzen da aldi berean beste gatazka batzuekin dauden loturak, antzekotasunak eta desberdintasunak lantzen baditugu beste eskala batean. Hemen ere ez dugu nahitaz alderdi guztiak era sistematikoan aztertu beharko, baina ziurren batzuk beste batzuei loturik azalduko dira une batean edo bestean.

3.3.2. Herritartasunerako Hezkuntzaren zeharkakotasuna ikastetxean lantzea

Dekretu ofizialek ere gauza nabari hau onartzen dute: Herritartasunerako Hezkuntzak ikastetxe osoaren proiektu bat izan behar du, eta hezkuntzako proiektuan bertan definitu behar da, curriculum eta antolakuntzako formaturik egokienak bilatuz, hartara, benetako eta taldeko zeharkakotasuneko gune bat izan dadin. Hala, *urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak finkatzen eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak*, honela dio 3. artikuluan:

“Gizakien ahalmenak osorik garatzea da Oinarrizko Hezkuntzaren xedea; hau da, ahalmen fisikoak, motorrak, kognitiboak, komunikaziokoak, sozialak eta afektiboak garatzea, Haur Hezkuntzan hasitako prozesua dela jakinda. Horrekin batera, pertsona guztiek izan beharreko oinarrizko gaitasunak lantzeko xedea du, norberaren errealizazioa eta garpena lortzeko, herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta enplegua lortzeko. [...] horrek esan nahi du irakasle guztiak direla hezitzaile, eta batera eta modu koordinatuan esku hartu behar dutela, dagokien hezkuntza-etapan eta curriculum-arloan. Esku-hartze hori ikasleen heziketan ardura

duten figurekin lankidetzan egingo dute, batik bat familia-
rekin, baina baita gizarteko sozializazioko eta hezkuntzako
beste instantzia eta eragile batzuekin batera lan eginda
ere. [...] Ikastetxeetako bizikidetzak egokia izan dadin, bake
positiborako, giza eskubideetarako, justiziarako, elkarta-
sunerako eta inklusiorako heziketa eman behar dute ikas-
tetxeek. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak susta-
tu egingo du ikastetxeko proiektu osoak egin daitezen,
horien xedea bada bake-kultura bat sortzea eta oinarritzat
hartzen badituzte errespetuan, elkarriketan eta emozioen
erregulazioan eta kontrolean ardaztutako jardunbideak.
Proiektu horiek, halaber, oinarri izan behar dituzte gataz-
ken trataera etikoa eta hezkuntza- komunitateko pertsona
guztien eskubideak eta betebeharrak.”

Horretarako bost erabaki estrategiko hartu behar dira
ikastetxeko curriculumeko proiektuan:

- a. Ikastetxea partaidetza demokratikoa sustatuko duen
instituzio bat izango da; bertako eguneroko kulturari,
lankidetzari, eskubideak arautzea eta gatazken konpon-
bidea bezalako prozedurak aurkituko ditugu. Horren
ondorioz, ikasgeletatik ikastetxe osora zabaltzen den
parte-hartze hori instituzional bihurtzeko moldeak
azalduko dira. Hala, bada, behar diren prozesuei eta
denborei eman behar die lehentasuna, azken batean
Herritartasunerako Hezkuntza-ko proiektua hezkuntza-
ko eta curriculumeko proiektuan barneratu ahal izateko
ildo nagusi modura. Ahal bada, ondo egongo litzateke
famiariak eztabaidatzeko prozesuan barneratzea eta
parte hartzea, bai eta Herritartasun Demokratikorako
Hezkuntza ikastetxean ezartzeko egin behar duten
ekarpena zehazterakoan ere.
- b. Herritartasunerako Hezkuntzaren edukia zeharka
bideratu behar da curriculum osorantz. Horrela, lanki-
detza bilatuko da curriculumeko proiektuan agertzen
diren arlo guztiekin. Zeharkakotasunean egindako
aurrerapenak hezkuntzako proiektua aberastu behar-
ko dute, eta, beraz, proiektua zabalik egongo da lan-
aukera berriei aurre egiteko. Ikastetxeak eraginkorta-
sunez bultzatuko du prozesua, eta laguntza emango
die norabide horretatik zuzentzen diren ekimenei.
- c. Ikastetxea tokiko plataformetan. Ikastetxeak onartzen
du oso garrantzitsua dela tokiko sareetan eta ekimene-
tan sartzeko, arazo desberdinak aztertzen dituzten eta
herritarren erkidegoa azaltzen den tokietan eragileak
jartzen dituzten sareetan. Ikastetxeak sare horietan
parte har dezake, eta lankidetzari hori curriculumerako
baliatzea ikastetxeak, herritartasuna sustatzen duen
instituzio gisa, duen erantzukizunaren zati modura uler
daiteke.
- d. Ikastetxea sare globaletan. Ikastetxeak sustatu behar
ditu bertan edo hurbileko ingurune soziokulturalean
dauden gutxiengo kulturalen sorterriko herrialdeetako
eragileak, ikastetxeak eta/edo erkidegoak barne hartzen
dituzten proiektuak eta/edo sareak, eta harreman-
tan aritu behar du haiekin. Ikastetxeak bermatu
behar du beste errealitate batzuekin harremanak
izango direla -gutxiengoak dauden edo ez dauden alde
batera utzita-, hori oinarritzeko osagai bat delako
Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzaren kultura
arteko dimentsioa eta dimentsio globala curriculumean
lantzeko. Hala, ikastetxeak bultzatuko duen dimen-
tsioan, Garapenerako Hezkuntza, genero-ikuspegia eta
kultura arteko hezkuntza Herritartasunerako Hezkun-
tzako curriculumeko laneko ardatz estrategikoak
izango dira, bai ikasgai bezala, bai zeharkakotasuna
lortzeko betetzen duen zereginetan.
- e. Ebaluazioa. Azkenik, ikastetxeak arreta berezia egingo
dio Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza ikastetxe-
ko curriculumean ezartzeko prozesu hori ebaluatzeko
partaidetzako lanari. Besteak beste, eta gero eta propo-
samen egokituagoak eta indartsuagoak garatu ahal izateko,
komenigarria da balioestea ikastetxean duen
agerpena, baliabideak, hainbat instituziorekin dagoen
lankidetzari, tokiko/mundu-mailako dimentsioa, eta bera
garatzean azaldu diren oztipo nagusiak.

Curriculum ofizialek ikastetxe osoak Herritartasunerako
Hezkuntzan duen erantzukizuna eta haren izaera strategi-
koa onesten dute, baina curriculum arlo eta ikasgai banan-
duetan eratu denez -berriro ere-, beharbada hutsune bat sor-
tuko da adierazpen ofiziala egiten denetik ikastetxeetan

abian jarri arte, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legearen proiektuari jarraiki ikastetxeetan zeharkakotasuna ezartzeko gertatu zen bezala. Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza arlo berezi modura eratu denez, beldur gaude, uste baitugu benetan garatzerakoan zailtasun ugari egongo direla. Era formalean esaten da Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza ikastetxe osoarena dela -ezin baitzen bestela izan-, baina ikasgaiaren arduradunen edo konpromiso gehiago hartzen duten irakasleen sektorearen esku geratuko dela. Hori kontraesanetan dago agiri ofizialean jasota dagoen borondatearekin. Berriz ere gerta daitezke ikastetxeen joera praktikoa eta historikoa nagusitzea, jakina denez Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza ezartzeko, ikastetxe horretan herritartasun demokratikoa erregulartasunez gauzatu behar baita eta kide guztiek parte hartu behar baitute benetan.

Horretarako, oso garrantzitsua da ikastetxeek eztabaida egin dezaten Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzaren ikuspegiari eta horrek hezkuntzako proiektuan eta ikastetxeko curriculumean dituen ondorioei buruz. Eztabaidan, hezkuntza horrek berekin ekartzen duen zentralitate-maila, eta ikastetxeak Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza sustatzen duen ikastetxe bilakatzeko bere gain hartu beharko lituzkeen gomendioak eta lehentasunak aztertu beharko lirateke. Horrek esan nahi du proiektua abian jartzeko barruan eta kanpoan dauden aldeko baldintzen eta zailtasunen azterketa, analisisa, eztabaida eta ikerketa egin beharko dela.

Prozesu horretan, ahalegina egin beharko da, ahal dela, ikastetxeko familietako kideak tartean sartzeko, eta herritartasuna ingurune sozialean sakontzeko praktika batekiko interesa izan dezaketen ingurune hurbileko parte-hartzaileak eta eragileak ere bai. Eskolak eta erkidegoak laguntza eta sostengua eman behar dizkiote elkarri, Herritartasunerako Hezkuntzako proiektua gauzatu ahal izateko.

Praktikan, Herritartasunerako Hezkuntza, Lehen Hezkuntzan, “Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera” izeneko arloaren antzekoa eta, DBH-n, “Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia” izeneko arloaren antzekoa dela esaten da; alabaina, gogoan izan behar dugu beste arlo batzuekin duen lotura, diziplina arteko tratamendu bateratu baten bidez.

Gizarte Ezagutza izeneko arlotik hurbil dagoenez, herritartasunean eragina duten eta haren inguruan dauden instituzioei eta prozesuei buruzko ezagutzarekin zerikusia duten edukien garrantzia nabarmentzen da. Hala ere, tartean sartuta dauden komunikazioko osagaien erabilera funtsezkoa da arlo garrantzitsu batzuekin lankidetzan aritzeko, hala nola, Hizkuntzak, Informatika, Plastika eta Ikus Hezkuntza, eta Musika arloekin. Lehen Hezkuntzako arlo berean, Natura Zientzien esparruarekin duen loturak lan egiteko aukerak ematen ditu, eta Matematikekin horixe beratzen da. Naturarekiko erantzukizuna eta harremanak arlo kuantitatiboaren eta kualitatiboaren artean baliatzea ere herritarren prestakuntzako osagaiak dira.

Alabaina, bigarrenik, ikasgai bakoitzaren barruan ondo hausnartu behar da ezagutzen eta gaitasunen zein arlo lotzen diren Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzarekin -bai eremu kognitiboan, bai prozedurako eta balorazioko eremuan-. Ondo berrikusi beharko da arloaren proiektu osoan duen garrantzia, eta, beraz, zein diren jartzeko moduko lanildo eraginkorrak.

Azkenik, zeharkakotasunaren ondorioz, beharrezkotzat jotzen diren baina ikasgaiek -Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza bera barne hartuta- ematen dituzten praktiken eta edukien multzoan agertzen ez diren alderdien azterketa egin beharko da -partaidetza, generoa, kultura artekotatuna-, eta horiei kokapena bilatu beharko zaie eta garatu beharko dira.

Esperientzia: Ikas Komunitateak

Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzari buruzko hausnarketaren ikuspuntutik dagoen beste esperientzia interesgarri bat Ikas Komunitateak sortzeko proposamena da. Proposamen hori CREA zentroak indartu eta teorizatu du, eta gaur egun ikastetxeen sare bat eratu da haren inguruan (<http://utopiadream.info/red/tiki-index.php>).

Sarearen web orri horretan zehazten denari jarraiki, “Ikas Komunitate bat ikastetxe bateko eta haren inguruneko gizartea eta kultura eraldatzeko proiektu bat da, bere xedea da informazioko gizartea lortzea pertsona guztientzat, elkarrizketako ikaskuntzan oinarrituta, eta erkidegoaren parte hartzeko hezkuntza erabiliz bere gune guztietan, ikasgelan ere bai”. Sarearen atzean dagoen baterako estrategiaren bidez, ikastetxeak eraldatu eta Ikas Komunitate bilakatu nahi dira; horiek, “*ikaskuntza dialogikoan* oinarrituko dira, eta helburu bikoitza izango dute: ikasleek ahalik eta gehien ikastea, eta bizikidetzat ona lortzea. Hezkuntzako erkidegoak eta, bereziki familiak ikastetxearen antolakuntzan eta kudeaketan parte hartzen dute lan-batzordeen bidez, ikasgeletan sartzen dira, talde elkarreragileen bitartez, eta prestakuntzako jardueretan parte hartzen dute ikastetxean bertan”.

Proiektua CREA¹⁹ (*Centre Especial de Recerca en Teories y Pràctiques Superadores de Desigualtats*) zentroaren inspirazio teoriko eta praktikotik sortu zen. Ikas Komunitateen esperientzia gidatzen duen eredu teorikoak Freire eta Habermas-ek landu zuten tradizioetik hurbil dagoen Hezkuntza Kritikoaren ikuspegia jasotzen du.

Gaur egun, CREA zentroak koordinatzen duen INCLUD-ED (*Strategies for Inclusion and Social Cohesion in Europe from Education*) proiektuaren barruan dago. Horren bidez, “desberdintasunak gainditzeko eta kohesio soziala sustatzeko lagungarriak diren hezkuntzako estrategiak, eta, orobat, gizartean bazterkeria sorrarazten duten hezkuntzako estrategiak ikertu nahi dira, gehienbat talderik ahulenak eta baztertuenak ardatz gisa hartuta. Europak ondo identifikatu behar ditu estrategiak, politikak diseinatzeaz arduratuko diren pertsonak, hezkuntza kudeatzen duten pertsonak, irakasleek, ikasleek eta familiek erabiliko dituzten estrategiak, eta Lisboako helburuak betetzeko aukera emango duten politika berriak prestatzeko lagungarriak izango diren estrategiak. INCLUD-ED proiektuaren ardatza izango da hezkuntzako sistemen, eragileen eta politiken arteko elkarreraginak aztertzea derrigorrezko mailara iritsi arte (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, eta lanbideko prestakuntzako programak” (www.ub.es/includ-ed/es/about.htm).

Programa honetan jasotzen diren esperientziak helburu berbera duten *Proiektuak* izeneko atalean daude multzokatuta. 6. *Proiektuaren* helburua da “Ikaskuntzako proiektuetan sartuta dauden, eta desberdintasunak eta bereizkeria gutxitzeko lagungarriak diren eta gizarteratzea eta jabekuntza sustatzen duten gizarteko eta hezkuntzako esku-hartzeak bateratu dituzten erkidegoak aztertzea”. Atal honetan agertzen diren eskolak hautatu dira beren proiektuak erantzunen bat ematen diolako ikerketako zatirik orokorrean dagoen galdera bati: “Erkidegoa hezkuntzan inplikatzeko denean, zer-nolako laguntza ematen du hezkuntzaren eta gizarteko hainbat arloren artean dauden loturak indartzeko? Nola laguntzen dute esku-hartze misto horiek kohesio sozialari begira?” (www.ub.es/includ-ed/es/projects_6.htm).

¹⁹ CREA zentroaren orria hemen dago: www.pcb.ub.es/crea/. 2006. urtera arte, Ramón Flecha izan zen CREA zentroko zuzendaria, eta urte horretatik aurrera Marta Soler-ek bete zuen postu hori.

Multzo honetan Ikas Komunitate bilakatu diren eskoletako kasu zehatzak ikasten dira; eskola horiek hiru irizpide hauen arabera hautatu dira:

- Arrakastari egindako ekarpena frogatu dute, testuinguruari dagokionez.
- Gizarte aldeko ezaugarri berberak dituzte batera: beheko maila sozioekonomikoetako taldeak, gutxiengo kulturetako kideak.
- Desberdintasunak gainditzeko erkidegoaren inplikazioa jaso duten ikastetxeak.”

Estatu espainiarrari dagokionez, irizpide horiek dituzten hiru eskola²⁰ Ikas Komunitateak dira. Proiektuaren garrantzia, iraupena eta sendotasuna ikusita, hausnarketa egiteko erreferentetzat jo behar dugu, eta, hala, Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzaren ikuspegitik, gutxienez, hiru kontu garrantzitsu ardura zaizkigu.

Lehenik eta behin, “hezkuntzako erkidego” kontzeptua, tokiko herritartasunaren erkidegoaren zentzuan ulertzen al da?, hau da, ikastetxeko gurasoen erkidegoa baino zabalagoa al da? Hortaz, hurbileko tokiko erkidego osoa tartean sartu nahi da?, edo soilik bilatzen al da ikastetxean esku hartzen duten familien inplikazioa?

Bigarren kontua “kohesio sozial” kontzeptuari dagokio. Kohesio sozialaren ideia harremanetan jartzen al da Herritartasun Barneratzailearen Erkidegoa hezkuntzaren bidez sustatzearekin? Hau da, berez eraldatu behar den eta, aldi berean barneratzeko eta kultura artekotasuna sustatzeko balioetan hezten duen erkidegoa sustatzearekin?

Azkenik, ondo argitu nahi dugu Ikas Komunitateen proiektua ikastetxeen multzora bideratuta dagoen, edo, batez ere, baztertuta geratzeko edo ghetto bilakatzeko arrisku berezian dauden ikastetxe horiei zuzenduta dagoen. Ikastetxe horiek “normalizatzeko” baldintza batzuk sustatu nahi dira, gainerako ikastetxeak bezalaxe sartu ahal izan daitezen, nagusi den kulturak eta gizarteak moldatzen dituen moduan? Edo, aitzitik, proiektuaren bidez hezkuntzako jarduera aldatu nahi al da era guztietako ikastetxeetan, Hiri Hezkuntza Demokratikoa, Kultura Artekoa eta Barneratzailea lortze aldera?

Nola konpondu dira tirabirak sorrarazten dituzten hiru esparru horiek? Horixe lortu nahi da, baina ez da erraza familiek hezkuntzako prozesuan parte har dezaten lortzea. Nola bateratu daitezke familiak tartean sartzeko interesa eta familia horiek gizarteratzeko dituzten zailtasunak? Zein norabidetan mugitzen da tartean dauden ikastetxeetan eta erkidegoetan benetan dagoen Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza? Jakina, Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzak Ikas Komunitateen ideia eta estrategia interesgarriak jaso ditzake: ikasketa dialogikoaren zeregin nagusia, erkidegoak ikastetxeko bizitzan duen parte-hartzea, hezkuntzako jarduteak eraldatzea, sarean jardutea, urtetan egindako lanaren bidez metatutako esperientzia, ikerketaren eta berrikuntzaren arteko lankidetzak, hainbat eragileren parte-hartzea eta abar. Alabaina, hausnarketaren muinera iristeko, ezinbestekoa da aurrez lehen adierazi ditugun galderak argitzea, hartara hobeto zehaztu ahal izateko zein diren Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzak, erkidego hezkuntza-prozesu gisa eratzeko duen xedean, izango dituen aukerak eta zailtasunak.

²⁰ Mare de Deu de Montserrat CEIP (Terrasa, Bartzelona); La Paz HI (Albacete) eta Karrantza BHI (Karrantza, Bizkaia).

3.3.3. Erkidegoa tokikoa eta mundu-mailakoa eratzen duen ardatz gisa

Ez da ohikoa eskolak parte hartzea herritarren ekintzako dinamikak bultzatzen dituzten tokiko plataformetan. Hala ere, gizartean gero eta handiagoa den kultura aniztasunak eta horrek ikastetxeetako biztanleen artean duen islak sorrarazi duten arazoa dela-eta, eskola batzuk saiatu dira lankidetzan arituz kanpoko ekimenekin, batzuetan modu egonkorretan eta beste batzuetan ez. *Amanda*²¹ oso esperientzia iradokitzailea izan da, eta Hegoa institutuak parte hartu du bertan. Vitoria-Gasteizko Alde Zaharretan garatu den esperientzia horretatik ikaskuntza interesgarriak atera daitezke.

Amanda esperientzia dinamika barneratzaileak finkatzeko sortu zen, eta auzo osora zuzendutako kultura arteko hezkuntzako estrategiaren bultzada hartu zuen oinarritzat. Hasieran, oso nabarmena izan zen hankaz gora jarri zela Alde Zaharreko Lehen Hezkuntzako Eskola ghetto bilakatzeko zuen joera; izan ere, eskola horretan, gora egiten zuen immigrazio-prozesuaren ondorioz, kulturako gutxiengo berrietakoak ziren haurrak %80 izan ziren, eta ijitoak, berriz, %20. Benetako auzoari zegokion eskola egin nahi zen, Alde Zaharreko kultura aniztasuna eratzen zuten haur guztiak jasoz; eta, horretarako, nagusi zen kulturako haurrak ere behar ziren. Horrekin batera, bazegoen beste helburu garrantzitsu bat: eskolatik kanpoko egoeretan, gutxiengokoak ziren haurrek beste haur batzuekin benetako komunikazioa izan zezaten lan egitea.

Prozesu horretan argi ikusten hasi zen Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreko kultura arteko herritartasunaren kultura landu behar zela, eta eskolak parte hartu behar zuela, eta ekarpenak jaso ahal zituela, ikastetxearen barruan kultura arteko berregituratze-lana egiteko. Alde batetik, bere praktiken barruan kanpoko herritarren parte-hartzea behar duen eskola bat dago. Bestetik, alderantzizkoa dago, herritartasuna kultura artekotasunaren ildotik ondo barneratzeko, kalitatezko hezkuntza barneratzailearen alde egiten duen eskolaren ekarpena behar duen erkidegoa.

Prozesu horretan tirabirak eta zailtasunak izan dira, baina pixkanaka-pixkanaka egonkortuz joan da, eta, era horretan, ekimenen eta eragile parte-hartzaileen sorta interesgarria lortu da. Horiek sendotasuna eman diote eskola eraldatzeko prozesuari, eta, aldi berean, laguntza eman dute Alde Zaharra eratzen duten erkidegoen artean erlazioak trukatzeke.

Ez da eredu bakarra, eta ez du esan nahi ikastetxeak beste aldean dabilen benetako herritartasunaren munduan harremanetan jartzeko formulak formatu horri jarraiki egin behar direnik. Kultura aniztasuna handitzen den heinean, gutxiengo horiek dituzten eskubideen alde lan egiten duten ekimenak agertzen dira, barneratzeko eta gizarteratzeko baldintzak bermatze aldera, eta, era berean, nagusi diren gizarte- eta kultura-arloko jarduteak eraldatu, eta kultura arteko trukea eta harremana lortze aldera. Ekimen horiek batzuetan ikastetxeekin jartzen dira harremanetan, baina zalantzarik gabe, eskolak -berak ere erronka horiek baititu- ekimenak egin ditzake demokratizatzeko prozesuan laguntzeko tresnak bilatzeko, eta Herritartasunerako Hezkuntzari laguntza emateko.


Herritartasunerako Hezkuntzak berak egindako lanari dagokionez, ikastetxeek beren hausnarketan jaso behar dute tokiko ingurunean herritarren jarduerarako gune bat lortzeko egingo diren ekimenak bete ahal dituztela. Bestalde, hausnarketan, elkarrekin egoteko guneak aztertu behar dira (barrutik kanpokoak, eta kanpotik barrukoak), eta horrek guztiak ikastetxearen hezkuntzako eta curriculumeko proiektuan bete behar duen lekua ikusi behar da, hartara, lankidetzara hori benetan gauzatu ahal izan dadin. Benetako herritartasunaren munduarekin harremanetan jartzea itun garrantzitsua da Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzako lan honetan. Alabaina, ikastetxeetan aldaketak egin behar dira, eta, horrez gain, ahaleginak egin behar dira, herritarren sareek eta plataformek benetan jakin dezaten garrantzitsua dela ikastetxeetako bizitzan parte-hartzea.

²¹ Vitoria-Gasteizko *Amanda* plataformak egindako esperientziaren sistematizazioa hurrengo atalean jaso dugu.

Inguruneko hezkuntzako planak

2004. urtetik hona, Kataluniako Generalitat-eko Hezkuntza Sailak laguntza eman die “Inguruneko Hezkuntzako Plan”²² izena duten planei. Plan horiek hezkuntza-arloko esperientzia interesgarri bat dira Herritartasunerako Hezkuntzari buruz hausnarketa egiteko. Izan ere, plan horiek era esplizituan eskatzen dute nahitaezkoa dela hezkuntza formalak eta ingurunerik hurbilenean jarduten duten hezkuntzako beste eragile batzuek sareak eta proiektuak egitea elkarren artean. Ikuspegia hauxe izango litzateke: “parte-hartzea bultzatuta, ikasle guztiei zabalik egongo den hezkuntzako ekintza bat diseinatzea. Ekintza horrek arreta berezia egingo die ikasle etorri berriei eta baztertuta geratzeko arriskuan dauden bertako ikasleei. Ekintzaren xedea arrakasta, bizikidetzeta, kulturaren barneratzeko prozesuak -eta gure kasuan oinarritzko garrantzia du bertako hizkuntzak- eta gizarteko itxaropenak bultzatzea izango da. Ekintza hori hezkuntzako erkidegoari laguntza emateko sare modura ikusi behar da. Udalak izango du haren buruzagitzeta eta ikuspegia, eta gizarte-, kultura- eta kirol-arloan dauden erakunde eta baliabide guztiak sartuko dira tartean”. (Vallcorba, 2008:51)²³.

19. Koadroa: 2006-2007 ezarpen mapa



Iturria: www.xtec.net/lic/entorn/ubicacio.htm

²² Orri hau ikus daiteke: www.xtec.net/lic/entorn/index.htm. Bestalde, *Cuadernos de Pedagogía* aldizkariak oso txosten interesgarria aurkeztu du 375. zenbakian (2008ko urtarrilean), 50. eta 74. orrien artean. Txosten horren koordinazio-lana Albert Quintana i Oliver-ek egin du.

²³ Vallcorba, J.; (2008): “Planes educativos de entorno. La necesaria sinergia educativa” *Cuadernos de Pedagogía*, 375, urtarrila. 51 or.


Proiektu hori orain arte garatu da, bertan sartuta zeuden eskualdeen eta ikastetxeen esparruan, eta oso esperientzia, baliabide eta ebaluazio interesgarriak izan ditu. Tartean dagoen udal bakoitzak hainbat baliabide emateko adostu du Hezkuntza Sailarekin, hartara, baliabide horien bidez, sareak sortu eta gizarteko talde askoren ekimenei laguntza eman ahal izateko. Cuadernos de Pedagogía aldizkariak 2008ko urtarrilean argitaratutako txostenean 90 udalerrietan garatu diren 95 plan aztertzen dira. Goiko hori da 2006-2007 ikasturtean ezarritako planen mapa, web orrian jasota dutena. Horiek horrela, hedadura zabala duen esperientzia bat dugu aztergai; gainera, instituzioak ere tartean sartuta daude, eta ekonomiako baliabide indartsuak ditu eskura. Bestalde, gizarte-arloko jarduera eta erakunde asko daude sartuta proiektuan, eta erakunde horiek hezkuntza ez-formaleko hainbat alderdirekin eta ekimenekin dute lotura²⁴.

Alabaina, oso interesgarria da Assumpta Bargalló-k²⁵ egiten duen ebaluazioa (2008:60), hauxe adierazten baitu: “Bere ikuspegi teorikoak ikusita, badirudi eredu global bat dela, hezkuntza-arloko instantzia eta eragile guztiak ukitu nahi dituelako, eta, horrela, ikasle guztien hezkuntzako arrakasta errazteko -alderdi guztietan, hau da, norberaren arrakasta, eta gizarte-, ikasketa- eta lan-arrakasta- behar diren jarraipena eta koherentzia lortu nahi dituelako. Alabaina, hiru urte hauetan izan den praktika ikusita, zatikatuta dagoen eredu bat dela ikusi da. Izan ere, zatikatuta dago, bai tokian bertan, bai Hezkuntza Sailean, bai sailen arteko mailan ere. Tokian bertan, badirudi Inguruneko Hezkuntzako Plana eskolaz kanpoko gunean baizik ez dagoela kokatuta. Orain ere, lehen bezala, harreman gutxi dago eskola barruko eta eskolatik kanpoko guneen artean. Hezkuntza Sailari dagokionez, itxura denez, Inguruneko Hezkuntzako Plana beste ekimen batzuekin paraleloan doala, batez ere Herri Ikastetxeen Kalitatea Hobetzeko Proiektuarekin (PMQCE). Argi dago bi proiektu horiek osagarriak direla eta norabide berean aritzen direla lanean. Dena dela, plan desberdin modura aurkeztu direnez eta arlo desberdinetatik kudeatuta daudenez, areago bereizten dira eskolaren esparrua (PMQCE-ri dagokiona) eta eskolaz kanpoko esparrua (Inguruneko Hezkuntzako Planari dagokiona)”²⁶.

²⁴ Hori guztia sarearen agiritan dago jasota, eta ebaluazioak ere hartu dira barne.

²⁵ Kataluniako Generalitat-eko Hezkuntza Saileko ikuskatzailea. Inguruneko Hezkuntza Planetako talde teknikoko kidea 2004. eta 2007. urteen artean.

²⁶ Bargalló, A. (2008): “De la utopía a la práctica”, hemen: *Cuadernos de Pedagogía*, 375, urtarrila. 57-60 or.



Hala, bada, eredu interesgarri horrek gizarte- eta hezkuntza-arloko eragileen multzo bat mugiarazten du, tokiko eta hezkuntzako administrazioa ere barne hartuta, baina alde ahul bat du oraindik ere: ez da hezkuntzako osoko eredu modura aurkezten. Adibidez, bertan, Herritartasunerako Hezkuntza ez da azaltzen hezkuntzako ekintza formal eta ez-formalen multzoa eratzen duen erdigune gisa.

Bestetik, nabarmena da gabeziak daudela herritartasun globalaren ikuspuntuari begira, ez baitago lankidetzako eta Garapenerako Hezkuntzako ildorik, hezkuntzako lan formalari eta ez-formalari dimentsio globala ematen dien ildorik. Erakundeen eta jardueren zerranda era askotako dinamikekin eta tailerrekin dago lotuta; eta, horietan, oso ahula eta zehatza da garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen mundua eta Ipar eta Hegoaldearen arteko harremana.

Zaila da eskola eta erkidegoa hezkuntzako proiektu partekatu eta osoko batean bateratzea, eta, bertan, herritartasunerako prestakuntza erdiguneko ardatz estrategikoa izatea. Zailtasun hori gainditzea eta prestakuntza horren dimentsio globala dira, hain zuzen, aurrez aurre ditugun eta gainditu behar ditugun erronkak.

5. belaunaldiko Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegiak Herritartasunerako Hezkuntzari buruz proposatzen digun irakurketak bi berrikuspen nagusi ditu. Alde batetik, herritartasuna eraikitzeo, ez da aski estatuen agenda politikan agertzen diren gaiak erabiltzea. Izan ere, garatzeko bidean dauden botere berriak publikoak ez den ekintzaren arloan ezkututzen dira, baina, hala ere, *res publicari* dagozkion gaiak bideratzen eta ukitzen dituzte. Bestetik, herritartasun eraginkorra behar da, kontzientziatuta eta ekintza globaleko sareekin konprometituta dagoena, hau da, herritartasun globala behar da.

Globalizazio neoliberalak hedatzen ari diren baldintza berriei aurre egiteko, jabekuntza sendoa duen herritartasuna behar dugu tokiko esparruetan, inpotentzia edo aldaketaren aurrean sentitzen den ezintasuna gainditzeko gauza den herritartasuna. Tokiko esparruari lotuta dagoen herritartasunak gero eta argiago ikusten du zein tarte dagoen bere bizitzan eragina duten botere-zentroetaraino. Herritartasun horrek, sarritan, ahalegina egiten du tokiko arloa sendotzeko eta indartzeko. Izan ere, tinko uste du arlo hori dela dinamika global berri horien eraginetik kanpo gorde ahal duen gauza bakarra. Gure garaiko Herritartasunerako Hezkuntzak norabide hori hartzen badu, okertu egingo da. Izan ere, tokiko demokrazia eta herritartasuna indartu nahi baditugu, mundu mailako demokrazia eta herritartasuna sakon aztertu eta bultzatu behar ditugu. Tokikoa eta globala continuum beraren zati bat dira. Hala ere, herritartasun globalaren ideia hori gauzatzen duten dinamikak oso gutxi dira oraindik.

Horri dagokionez, ikastetxeek ondo jakin behar dute zeregin bikoitza dutela, eskolaren barruan eta eskolatik kanpo, Herritartasun Globalerako Hezkuntza bultzatzeko. Globalizazioaren aurkako mugimenduak kontzientzia asko astindu ditu, eta garrantzi handia izan du herritartasun globalaren esparruan. Garapenerako gobernuen kanpoko erakundeek ere *res publica* globalak dituen arazoak lantzen dituzte. Komunikabideak eta kultura-arloko agentziak mundua hurbiltzen diguten kanalak dira -beste kontu bat da zein norabidetan eta nola egiten duten-. Merkatu globalak ikuspegi globala duten kulturako salgaiak eta objektuak hurbiltzen dizkigu.

Dena dela, eragile horiek guztiek ez dute modu berean eta norabide beretik jarduten. Batzuek -eragileek eta sareek- berdintasuna aitortzen diete laguntza behar duten herritarrei; hortaz, herritar horiek lankidetzan aritzen dira herritartasun globala eta jabekuntza lortzeko. Beste batzuek sustatzen duten begiradaren arabera, berriz, mundu aberatsak “txirotuta” dagoen mundua mespretxatzen du, axolagabe agertzen da haren zorigaitzaren aurrean, edo lausotu egiten du paisaia exotikoen artean, merkatu globalen kontsumitze aldera. Azken horiek, beraz, ez dute herritartasun globalaren alde lan egiten. Alabaina, Herritartasun Globalerako Hezkuntzak bere lanean jaso behar ditu, eta, begirada kritiko batez, zer ez den herritartasun globala erakusteko adibide gisa jarri behar ditu.

Esperientziak

Jarraian, lankidetzako praktikei lotuta dauden bi esperientzia jaso ditugu, adibide gisa. Ikastetxeetan herritartasun globala lantzeko estrategia interesgarria erakusten dute.

Lankidetzako praktikak

Unibertsitateen esparruan, zabal hedatu da unibertsitateek Garapenerako Lankidetzako eragile modura duten zereginena. Ildo horretan, unibertsitateak herritartasun globala bultzatzen duten eragile gisa ager daitezke. Kontzientzia horren ondorioz, eta estrategia hori gauzatzeko azaldu diren egitura eta proiektu berezien ondorioz, proiektuak sortu dira ikasleek, hasierako prestakuntzan, lankidetzako proiektuetan parte har dezaten tokian bertan. Era horretan, beste herrialdeetan dauden lan-ildoak sustatzen dituzte, beren ikaskuntza eta lanbide-arloko ahalmena hobetzen dituzte, elkartasun- eta lankidetzatarloko kontzientziaren garrantzia indartzen dute, eta, orobat, planetako herritar gisa duten kontzientzia ere bai, beren giza, lanbide- eta herritar-eraikuntza egiten ari direla. Praktika horietako batzuk Hezkuntzako profesionalen prestakuntzaren esparruan garatzen hasi dira: Irakasleen Eskolan, Gizarte Hezkuntzan, Pedagogian eta abar.

Ildo horretako Hezkuntza arloko adibide bat aurkituko dugu EHUko Arabako Campusean, Irakasleen Eskolan. Irakasleen Eskola lankidetzan aritu da lanean garapenerako gobernu kanpoko hainbat erakunderekin, 2000. urtetik gaur egunera arte, era askotako proiektutan. Lehenik Eki Haizea erakundearen bidez eta, gero, Ekilore Munduan erakundearen eskutik, Kultura Arteko Hezkuntza Elebiduneko proiekturik zabalena eta iraunkorra garatu da. Ekuadorreko Amazonian dagoen Pastaza-ko erkidego shuar eta kitxuaren eskolekin batera egin da. Bestetik, proiektu bat landu da Manuel Iradier Elkarte Afrikanistarekin, Ekuatore Ginean dagoen Kogoko eskolekin arituta. Lankidetzan jardun da Juliaka erakunderekin, eta horrela, Guatemalako Quetzaltenango-n dagoen kaleko eskola bati laguntzeko proiektu bat garatu da. Ikasleek prestakuntza jasotzen dute aurrez, eta eskoletara joaten dira hiru garren mailako praktikak egitera. Eskola horietan, bertako alderdiaren laguntza jasotzen dute, eta, aldi berean, hangoekin batera bizi dira, eta han dagoen gizarte- eta kultura-egoeraren berri hartzen dute.

Ekuadorrekin landu den proiektuak oso interesgarriak diren bereizgarri batzuk ditu. Izan ere, asko luzatu da iraupen aldetik, ikasle asko egon dira tartean sartuta, eta Irakasleen Eskolak berak lan egiteko prozesu bat sartu du, modu erregularrean eta instituzionalean eta, hor, oso garrantzitsua izan da aurretiaz prestakuntza izatea. Bestetik, bitartekari modura aritu den garapenerako gobernu kanpoko erakundea -hau da, Ekilore Munduan erakundea- *Amanda* plataformaren barruan dago. Azkenik, era horretan lankidetzarako ildo bat sustatu da hezkuntzako bi sistemen artean, hau da, Amazoniako eskualdean dagoen Kultura Arteko Hezkuntza Elebidunaren sistemaren eta Euskal Eskola Publikoaren sistemaren artean.

Eskolako posta, Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzaren tresna bat

Celestin Freinet pedagogo Erresistentziako militantea eta borrokalaria izan zen, eta Herri Eskolaren Mugimendu Kooperatiboa iradoki zuen -mugimendu horrek berehala gairatu zituen Estatu frantziarreko mugak, eta nazioarteko mugimendu bilakatu zen-. Freinet-ek adierazten duenez, eskolako posta eta trukea pedagogiako tresna indartsu bat da eskolentzat eta gizarteke behe mailako neska-mutilentzat. Freinet-en pedagogiaren ardatza ikasleak eraldatzea, eta agintea duen talde bilakatzea da. Horretarako, oso garrantzitsua da irakaskuntzako praktikari eta eskolako

jakintzari gizarte- eta hiri-zentzua ematea. Freinet-ek hainbat teknika erabiltzen ditu helburu hori lortzeko. Ildo horretan, eskolako postarekin batera, batzar eta jardute kooperatiboak, eta eskolako inprenta behar dira, eta eskolako praktiketatik harantz doan erkidegoko zentzua duen curriculumeko jarduera ere bai.

Freinet-en ustez, eskolako postaren teknika ikasleen baitan taldeko kontzientzia eratzeko modu bat zen; eta kontzientzia hori tokiko eta eguneroko girotik harantz joan ahal zen. Beste errealitate batzuk ezagutzea -beste neska-mutil batzuk, beste giro eta beste kultura-molde batzuk, Frantziako aniztasunaren barrukoak denak- oso bide egokia zen ezagutza giza-tiartzeko eta ikasketa eraikitzeko. Horrela, beste gizaki batzuk aurkitzeaz batera, haien arazoak, egoera eta ikuspegiak azaltzen ziren.

Era horretan, zentzua duen aniztasun bat lantzen da. Ikusten denez, aniztasun zabala egon arren, denok izan daitezke herritar, eta denek dituzte eskubide berberak. Hala, taldeko eta kultura arteko lankidetzari baliatuz sortzen den herritartasunak botere gehiago izan dezake errealitate txiki eta isolatuan sortzen denak baino.

Pedagogia horren gakoek indar eta ahalmen eraldatzaile osoa hartzen dute globalizazioaren garai hauetan. Izan ere, gizarte-mugimendu alternatibo eta kritikoa ikuspegi globala duen tokiko ekintza aldarrikatzen ari da, eta, aldi berean, tokiko arloari jabeakuntza emango dion ekintza global bat lortu nahi du.

Hezkuntzako ekintzaren bidez, tokikoa eta mundu mailakoa lotu behar ditugu irakaskuntza eta ikaskuntzako jardute-etan. Horrela, egitura berri bat eratu behar dugu ezagutza-, harreman-, komunikazio- eta ekintza-arloan, eta egitura horrek aukera eman behar du *beste mundu bat egin ahal izateko*.

Hortaz, urrats garrantzitsu bat egin nahi da. Lehengo mende erdialdeko herri- eta hiri-pedagogia alde batera utzi nahi da, eta herritartasun globalerako herri-pedagogia hartu nahi da. Pedagogia berri horrek baliabide teknologiko berriak izango ditu eskura, eta, horrela, lan-ildo berriak zabaldu ahal izango dira diziplina artean. Lan-ildo horiek tokiko arloari loturik egongo dira, eta gai izango dira hezkuntzako eragile guztien artean lankidetzako sareak sortzeko.

Amanda plataformaren bidez, Ekilore Munduan erakundea Freinet-en pedagogia hori erabiliz aritu da lanean, eta eskolako posta eta inprentaren erabilera sustatu du -behar bezala egokitu eta eraberritu ondoren, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bidez-. Izan ere, posta eta inprenta pedagogiako tresna baliagarriak dira kultura artekotasuna, elkartasuna eta lankidetzari errazteko Euskal Herriko eta Ekuadorreko hezkuntza-sistemen artean. Betiere, modu erregularrean barneratzen badira tartean dauden ikastetxeetako hezkuntzako proiektuetan eta curriculumetan. Ekimen horrek aukera ugari ematen ditu, esate baterako, aukera ematen du praktikak egiten ari diren alde bateko zein besteko ikasleak harremanetan jar daitezzen zuzenean. Dena dela, ikastetxeetan eta, bereziki, Ramón Bajo ikastetxean -hori *Amanda* plataformako kideetako bat baita- abian jarri ondoren, ekimenaren ibilera etena izan da. Ebaluazioa ikusita, argi dago ikastetxe osoko hezkuntzako proiektuaren barruan sartzen ez bada, proposamen hori nekez ezarri ahal izango dela.

4. *Amanda*. Erkidegoko esperientzia bat sistematizatzea²⁷

4.1. *Amanda* Sarea. Erakundeak, ibilbidea eta helburuak

Gizartearen garapenak duen ezagugarrietako bat da jatorri desberdinetako pertsonak eta taldeak topatzen direla, eta bakoitzak bere jakinduria duela, banakakoa nahiz taldekoa, eta bere tradizioak, jarrerak eta eskuratutako balioak ere bai. Pertsonak elkarrekin topatzeaz gain, era guztietako kulturako produktuak trukatzeko dira. Topatze eta truke horrek merkatu globala eta komunikazioaren teknologia berriak ditu bere alde, horiek beste herrialde batzuetako kulturako osagaiak hurbildu ahal baitizkigute. Tokiko denda batean Jaipur-eko zeta erostea, herriko irratan Robbie Williams entzutea, edo Alemaniako norbaitekin “txateatzea” oso kontu arruntak dira, eta ia ez zaigu burutik pasatzen hor kulturaren trukea dagoenik. Truke horiek begi onez ikusten dira, ohartzen gara bitzta errazten digutela, eta aukera berriak eta munduaren ezagutza irekitzen dizkigutela.

Alabaina, kultura-erloko truke horretaz ditugun pertzepzio onak, dirudienek, behera egiten dute beste herri edo kultura batzuetatik etorri eta gure ingurunean -gure herri edo hirietan- bizi diren pertsonekin harremanak izateaz hitz egi-

ten hasten garenean. Hor, diskurtsoa eta praktika urrutzen hasten dira elkarrengandik. Arlo teorikoan zaila izango litzateke beste kultura-talde batzuekin begirunerik ez duten diskurtsoak topatzea. Hala ere, zaila da aurkitzea noizean behingo truke folklorikoa gaintzen duen praktika bat, hala nola, trukea edo komunikatzeko gune iraunkoragoak eta egunerokoak edota berdintasuneko eskubideen aldarrikapena sustatzen duen praktika bat.

Gaur egun, neurririk gabe zabaldu da kultura artekotan hitza Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakundearen inguruan, bai eta elkarten eta elkartasunaren inguruko taldeen bilbean ere. Talde horiek gero eta arreta gehiago egiten diote immigrazioari, irudi ona eman nahi dute gertakari horretaz, eta, gainera, instituzio finantzatuak gero eta sarriago eskatzen dute arlo horretan jarduteko. Horiek horrela, “kultura arteko” hitza erabili da etorkinen gutxieneko agerpena edo osagai folklorikoa duten jardueren, ikusizun, jai edo hitzaldi guztietarako. Ikuspegi horrek gabezia asko ditu kulturen arteko elkarrengandik guneak aurkitzeko garaian, edota kultura arteko bizikidetzaren benetan hobetzerakoan. Izan ere, ez ditu inoiz zalantzan jartzen gizartearen, politikan, edo ekonomian dauden desberdintasunak, gure gizartera etorkin modura iritsi diren kulturako talde

²⁷ Pertsona hauek ere parte hartu dute sistematizazio-lanetan, beren elkarten izenean: Iñaki Luzuriaga eta Itziar Corcuera (Landatxo gizarte etxeko Kaleko Heziketa Programa); Juanjo Celorio (Irakasle Eskola. Praktiken Programa); Nardi Gómez eta Klara Afonso (Ekilore); M^a José Romero (Centro Cultura Popular); Ainhoa Garagalza, Ainara Pérez eta Andrea Aristondo (Sartu Araba Elkarte – Saregune); Virginia Díaz de Junguitu (Ramón Bajo LHiko Gurasoen Elkarte); Alicia López de Munain eta Miguel Argibay (Hegoa).

guztiek abiaburuan aurkitzen dituzten desberdintasun horiek. Ikuspegi hori elkarte bakoitzaren praktiken aldetik eta Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreko testuinguruan kokatu eta sakontzeko, *Amanda* plataforma sortu zen.

“*Amanda*” hitzak almendra esan nahi du Iparraldeko euskaraz. *Amanda* sareak izen hori hautatu zuen Vitoria-Gasteizko Alde Zaharrak duen almendra-itxurari aipu egiteko, Alde Zaharra baita auzoko kultura artekotasunari eta hezkuntzari buruz eztabaidatzeko sare horretan bildu diren elkarte guztien lan-eremua.

Zer da *Amanda*?

Amanda sareak proiektuen proiektua izan nahi du, Vitoria-Gasteizko taldeen eta kulturen arteko bizikidetzari buruzko ideien, ikuspegien eta esperientzien batasuna. “Sare” horretan hiriko Alde Zaharreko arlo desberdinetako pertsonak eta lan-proiektuak bateratu dira. Denek dute zerikusia babesik gabe eta desberdintasuneko egoeran auzora iritsi diren etorkinei harrera egiteko eta etorkin horiek gizarteratzeko prozesuarekin.

Talde gisa, adostutako oinarritzko hiru premisa hauek ditu:

- Alde batetik, gaur egun auzoan dagoen kultura aniztasuna aukera ona omen da gizartearen eraldatzeko; horrela, gizarteak modu onez onartuko du desberdintasuna eta eskubideen berdintasuna ezarriko du eraginkortasunez.
- Bestetik, denbora eta gune berean batera bizi diren kulturako hainbat talde barneratuz eta gizarteratuz, kultura eta herritartasun berri bat sorraraz daiteke, pertsona guztien ustez onuragarriak diren osagai partekatua oinarritzat hartuta.
- Hirugarrenik, eta azkenik, planetako herritartasun eta auzotasuneko izaera berri horren ondorioz, pertsonak, taldeak eta elkarteak inplikazioa izango dute pertsona eta talde bakoitzak dituen egoera, arazo, zailtasun, abantaila eta aukera guztietan.

Amandak proiektu soziokultural bat egin nahi du Vitoria-Gasteizko Alde Zaharraren esparruan, filosofia horri

jarraiki. 2005. urtean lehen bilerak egin zirenetik, talde guztiek kezka berbera erakutsi dute: auzoan barneratzeko egiten diren prozesuak bultzatu nahi dituzte, eta aurre egin nahi diete auzoa ghetto bilakatzeko eta bertan dauden etorkinak bakartuta uzteko gero eta handiagoa den joerari. Helburu horri bultzada emateko, *Amanda* plataformak eztabaia bat zabaldu du kultura arteko teoriari eta praktikari buruz, sarean koordinatzen hasi diren auzoko elkarten lana oinarritzat hartuta. Berriz aztertu nahi dira elkarte bakoitzak bere jarduerak prestatzeko erabiltzen dituen hezkuntzako parametroak. Era horretan, kultura artekotasunari buruzko ikuspegi partekatua eta baterako logika lortuko da.

Parte hartzen duten erakundeak

Sarean parte hartzen duten taldeek abian hasteko izan zuten hasierako erreferentea Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxea izan zen. Alde Zaharrean dagoen herri-ikastetxetako bat da hori, eta, hainbat arrazoiren ondorioz, auzoko etorkin eta ijito asko bertako ikasleak dira. Ikastetxea oso berezia da, alde batetik, ikasleen osaera eta mugikortasunagatik, eta, bestetik, ikastetxeak inguruan duen gizarte-sarearengatik. Horrez gain, klaustroko irakasleen eta ikasleen guraso-elkartearen inplikazioa ere hartu behar da kontuan, eta horientzat guztientzat aniztasuna aberastasuna sortzen duen kontu bat da. Horiek eraginkortasunez hasi dira hezkuntzako ideia hori garatzen, haurrentzat eta auzoko erkidegoarentzat funtsezkoa delako.

Sarearen eraketa aldatuz joan da sarearen ibilbidearen urte hauetan, eta hezkuntzako proiektu desberdinak eta arlo horretan lan egiten duten pertsonak bildu ditu -bakoitzak bere modura lan egiten badu ere-. Erakundeek hezkuntzako hainbat alderdi lantzen dituzte, alde teorikoa edo praktikoa nabarmentzen dituzte, eta kirolaren edo informazio eta teknologia berrien bidez lan egiten dute, ikastetxearen barruan edo kalean... Gaur egun, elkarte hauek daude sarean egonkortasunez:

- Saregune: Alde Zaharreko dinamizazio soziala lortzeko tresna gisa teknologien erabilera askea eta doakoa bultzatzen duen topagunea.

- PEC: Auzoko gizarte-etxeko Kaleko Hezkuntzako Programa.
- Hegoa: Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketeta Institutua (UPV/EHU).
- Herri Kulturako Zentroak.
- UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzako Proiektuetan aritzeko Irakasleen Eskolako praktiken programa.
- Ramón Bajo LHI: Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxea.
- Ramón Bajo LHI-ko GE: Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxeko Gurasoen Elkartea.

Bestalde, nabarmendu behar dugu laneko lehenengo bi urteetan beste talde batzuek parte hartu zutela, baina gaur egun utzi egin diote elkarte gisa sarean egiten zuten jarduerari. Honako hauek dira:

- *Mujeres Construyendo Convivencia*, Bizi Gaia emakumeen elkartearen barruan.
- Dunia Topaketa, kultura artekotasuna eta teknologia berriak lantzen dituen eta estereotipoak eta aurreiritziak hautsi nahi dituen taldea.
- Javiki, Ramon Bajo eta Santa Maria Lehen Hezkuntzako Ikastetxeen Eskolaz Kanpoko Kirol Jardueren Programa.

Alde Zaharrea lan egiten duten beste talde edo pertsona batzuk, beren kabuz, bileretan izan dira tarteka, laguntza eskaini dute, eta interesa azaldu dute sarean proposatzen den hausnarketari buruz. Tarteka, gutxiengo kultural bateko pertsona batzuk izan dira bileretan, baina sareak ez du oraindik lortu parte-hartze zabalago bat izatea. Hori erronka moduan ikusten da.

Sarearen ibilbidea eta helburuak

Amanda plataforma 2005. urtean sortu zen, lan aldetik zuten lotura edo norberaren kezka zela-eta, pertsona ba-

tzuek izan zuten ekimen baten ondorioz. Pertsona horiek elkarren arteko ezagutza hobetu nahi zuten, eta erakundearen artean lankidetzan aritzeko zein aukera zegoen aztertu nahi zuten.

Hasieran, erakunde bakoitzak hezkuntzaren edo kultura artekotasunaren arloan zeukan eguneroko lana partekatzen hasi ziren. Horretarako, iritziak bilatu zituzten, eta egon zitezkeen sinergiak egiaztatu eta hartu zituzten aintzat. Lehen bilera horiek, gehienbat, informazioa emateko izan ziren. Erakunde batek egiten zituen jarduerak beste batzuen jardueren gainean ez jartzea lortu nahi zen. Dena dela, era horretan, baterako guneak bilatu zituzten, eta guztion interesekoak ziren hausnarketak eta eztabaidak egiten hasi ziren. Era berean, iritziak trukatu zituzten, erakunde bakoitzak lan egiteko kontuan hartzen zituen ikuspegi buruz.

Urte horietan, hamabostean behin edo astean behin egin izan dira bilerak, une bakoitzean izan den behararen arabera. Lehen urtean, eztabaida, itzulinguru, aurrerapen eta atzerapen asko izan ondoren, plataforma eratu berriak izango zituen baterako helburu batzuk finkatu zituzten. Hauek:

- Aniztasuna osagai onuragarri gisa ikustea.
- Komunikatzeko gune bat sortzea, eta, horrela, plataforma osatzen duen talde bakoitzaren gizarteko ekintza-aren inpaktua hedatu ahal izatea.
- Sinergiak sortzea, Alde Zaharra auzo “normalizatu” bat izan dadin.

Helburu orokor horien inguruan sortu ziren itzaropen eta jarduera guztiak orain *Iparroratz Agiria*²⁸ izenez ezagutzen dugun agirian jasota daude. Agiri hori saiakera bat da sareko ekintzak eta lankidetzak bideratuko dituzten ildo argi batzuk finkatzeko.

Agiri hori 2005. urtean zehaztu zen, hain zuzen, Hegoa “Hezkuntza-esperientzien trukea kulturantzatasuneko

²⁸ Ikusi Eranskinean *Iparroratz Agiria*.

egoeretan” izeneko jardunaldiak Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxean antolatu zituenean. Plataformako erakundeek ahalegin guztia egin zuten jardunaldi horiek antolatzeko, eta eraginkortasunez parte hartu zuten taillerretako lan praktikoa. Jardunaldi horien bidez, lanerako ideia eta tresna batzuk azaldu ziren, hezkuntza formalean eta hezkuntza ez-formalean erabiltzeko. Ideia eta tresna horiek beste autonomia-erkidego batzuetan abian jartzen ari dira antzeko egoeratan.

Iparrorratz Agiria zehaztu ondoren, guztiz bereizita zeuden bi gune finkatu ziren lan egiteko. Gune batean teoriaren eta erakundeen praktikaren arteko lotura landu nahi zen. Ildo horretan, hasieran, proposamen hau egin zen: bileren zati bat erabiltzea taldeek beren burua prestatzeko, teoria lantzeko eta bakoitzaren praktiketan oinarrituta ikerketa egiteko. Beste gunean, gure jarduerak partekatu nahi genituen, zehaztasun handiz. Era horretan, guztion artean balioetsiko genituen, batera erabiltzen genuen “kultura artekotasan” hitzaren definizioa erabiliz. Horrela, erakunde bakoitzak bere lana berrindatu edo norabide berrietik biderratu ahal izango zuen, talde osoaren laguntza eta hausnar-ketari esker.

Amanda plataformak 2006. eta 2007. urteetan egin zuen jarduera nagusietako bat hauxe izan zen: Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreko balibideen eta kultura-elkarteen mapa egitea (www.elkartek.info/mapa.php?c=google&a=mapa&i=ASOCIACION). Mapa hori prestatu zen horrelako tresna bat eduki nahi zelako lan egiteko. Horrela etorkinekin lan egiten duten pertsonen ingurunean dauden laguntzei buruzko informazioa eskura izango zuten. Horrez gain, ondo jakingo zuten zein talderengana jo kezkak partekatze-ko edo eguneroko lanerako lankidetzak eskatzeko.

Bestalde ahalegina egin zen kultura arteko hezkuntzari lotutako osagairen bat jasotzen zuten eta Alde Zaharrean egiten ziren tokiko foroetan eta udal-planetan parte hartze-ko: Immigrazioko Udal Foroa; Kiroleko Foru Batzordea; Gazte Plana; Agenda 21; Gizarteko Kontseilu Sektoriala; Kiroleko Kontseilu Sektoriala eta Kulturako Kontseilu Sektoriala. Bestalde, kanpaina zabalagoetan ere parte hartu zen.

Kanpaina horien bidez, bizikidetzak, eskubideen aldeko berdintasuna eta kulturak hurbiltzeko joera hobetu nahi zen Vitoria-Gasteizen (“Hemen bizi dira, hemen egiten dute lan, hemen kotizatzen dute baina ezin dute botorik eman hemen” izeneko kanpaina, eta abar).

Gaur egun, hasieran zehaztu ziren ekintzen ildoekin egin den doitzeko balioetsi da eta, era berean, desberdintasunak sumatu dira erakundeen artean, modu desberdinean jokatzen baitute erantzukizunak beren gain hartzerakoan, eta instituzioen inplikazio-mailan ere desberdintasunak hauteman dira. Horiek horrela, 2005. eta 2008. urteen arteko hiru ikasturteetan sareak izan duen ibilbidea sistematizatze-ko prozesua egitea proposatu da.

4.2. Sistematizazioa. Helburuak, metodologia eta ikaskuntzak

Sistematizazioaren helburua. Zer sistematizatuko da?

Azterketa honen bidez, 2005. urtean proposatu ziren helburuak zein mailataraino bete diren aztertu nahi da. Horrela ondo balioetsi ahal izango da sareak benetan duen ahalmenari begira helburu horiek gaurkotuta edo zaharkituta dauden. Helburu horiek *Iparrorratz Agirian* daude zehaztuta. Horretarako, *Amanda* plataforma abian egon den ikasturteetan (2005-2006, 2006-2007 eta 2007-2008) egin diren jarduerak aztertu nahi dira. Horrez gain, jarduerak horiek hasieran zehaztu ziren 3 helburu eragileetan eta koordinazioko mailetan kokatu nahi dira -*Amanda*, Auzoa eta Alde Zaharreko elkarteak-:

- Komunikatzeko gune bat sortzea (erakundeen artean), gure gizarte-ekintzako guneak zabaldu ahal izateko estrategiak prestatze aldera (*Amanda*).
- Lanean aritzea dagoen aniztasuna kontu onuragarritzat har dadin (Auzoa).
- Lagungarriak diren mugimenduak eta sinergiak sortzea Alde Zaharra auzo normalizatu bat izan dadin lortzeko (elkartekak).

Azterketari beste maila bat gaineratu zaio, sarearen barneko antolakuntzari buruzko maila.

Lau maila horietatik lehena (*Amanda*) sarearen helburuak eta nortasuna zehazteari buruzkoa da. Bigarren eta hirugarren helburuak (Auzoa eta elkartek) sareak dituen laneko edukiei buruzkoak dira (esparru teorikoak sortzea, teoriaren eta praktikaren arteko harremana...). Eta azken helburua (barne antolakuntzarena) *Amanda* plataformaren barneko antolakuntza kudeatzeko lanari dagokio (sareko erakundeen arteko koordinazioa, erantzukizunak banatzea, erabakiak hartzea, komunikazioa...).

Sistematizazioaren helburuak. Zertarako sistematizatu?

- *Amandaren* “oraingo egoera” zehazteko: ondo zehaztu ahal izateko bere eginkizuna, xedeak, helburua, estrategiak, oraingo lana oinarritzeko modua, erakundeen zeregina, eskuragarri dauden giza baliabideak eta baliabide materialak. Argi izan behar da sareko jardueren bidez lortu nahi den helburu zein den. Era berean, argi izan behar da zein diren sarearen mugak (zer den plataformaren baterako lanaren xedea eta zer geratzen den hortik kanpo).
- Gaur egun kide diren erakundeek sareari buruz dituzten ikuspegiak eta itxaropenak partekatzeko, eta sumatzen dituzten sendotasunak eta ahulguneak ere bai. Era horretan, “*Amanda* plataformaren baterako ikuspegia lortu ahal izango da” (barrukoa, erakundeentzat; eta kanpokoa, instituzioentzat, beste erakunde batzuentzat eta gizartearentzat).
- “Egiten den lanaren baliagarritasuna ebaluatzeko” eta, horrela, gizartea eraldatu ahal izateko. Lanak eragiteko duen ahalmena eta izan lezakeen ahalmena ebaluatu behar dira.

Sistematizazioko prozesuaren metodologia

Sistematizazioko lana hasi aurretik, bilera bat egin zen. Bileran horretan, esperientzia bat “sistematizatzeari” buruzko zenbait definizio egiaztatu ziren, eta ahalegina egin zen prozesuari buruz zeuden zalantzak argitzeko eta erabaki

batzuk adosteko, hala nola, zenbat denbora eskaini ahal zitzaion edo eskaini nahi zitzaion lanari, zeintzuk hartu behar zuten parte, zein lan-mota egin behar zen...

Horren ondoren, bi orduko bost bilera gehiago izan ziren. Horietan, proposatutako dinamikei buruzko hausnarketalarik egin zen. Taldeak atzera bota zuen hausnartzeko dinamikak erakundeetara eramateko ideia. Izan ere, lehentasuneko zat jo zen prozesu arin bat egitea, sareko lanaren hiruhileko bat baino gehiago iraungo ez zuen prozesua egitea.

Lan horretan parte hartu zuten lagunak une hauetan sarean sartuta dauden eta normalean bileretara etortzen diren erakunde edo instituzioetako ordezkariak izan ziren (erakunde edo instituzio horiek 1.2 idatz-zatian daude jasota). Gehienbat ebaluazio praktikoa egin nahi zen. Hala, bada, batez ere hitz egingo zutenak bileretan izan ziren pertsonak eta sareko jardueretan parte hartu zuten horiek izango ziren. Interesa zegoen beste pertsona batzuei gonbidapena egiteko. Aurreko aldi batzuetan beste pertsona batzuk izan ziren bileretan, plataformaren ibilbidean barrena kanpoan geratu diren erakundeen ordezkarietan joan zirelako. Gonbidapena egiteko ideia aztertu zen, baina, azkenean, atzera bota zen, zaila baitzen pertsona horiek biltzea, Vitoria-Gasteiztik kanpo bizi zirelako edo beste proiektu batzuetan sartuta zebiltzalako.

Hala, bi dinamika hauek proposatu ziren bilera horien zatirik zabalena biltzeko:

- Lehenik, hiru urte hauetan *Amanda* plataformak izan duen historia berreraiki nahi zen, hartara, une bakoitzean gertatutakoari buruzko ikuspegi partekatua izateko. Horretarako, *Denboraren lerroa*²⁹ prestatu zen, eta, bertan, gertaerak, datak, hartutako erabakiak, eta erabaki batzuei buruzko balorazioak jaso ziren.
- Bigarrenik, erabakiren bat behar zuten edo ikaskuntzaren bat ateratzeko egokiak ziren funtsezko gakoak zehaztu nahi ziren. Gako horiekin *Ikaskuntzen dokumentua*³⁰ prestatu zen. Koadro horretan, denboraldi

²⁹ Ikusi Eranskinean *Denboraren lerroa*.

³⁰ *Ikaskuntzen dokumentua*.

bakoitzean gertatutako guztia zehaztu nahi zen, eta, horrez gain, balorazio ona edo txarra eman nahi zitzaien gertaera bakoitzari. Bestalde, denboraldiez gain, beste zutabe bat gaineratu zitzaien koadroari, eta, hor, osagai bakoitzari buruz egin ziren ikaskuntzak edo proposamenak jaso ziren.

Ikaskuntzak

- Erakundeen praktikan partekatutako kontzeptuetan eta esparru teorikoetan izandako aurrerapenari buruz.

Amanda plataforma eratzeko lehen aldirian *Iparorratz Agiria* prestatu zen. Agiri horrek gida moduko zerbait izan behar zuen, taldeko itxaropenen eta helburuen ikuspegia eta, orobat, hartutako konpromisoak gal ez zitezen lortzeko. Agiri hori ez zen mugatzen zuen zera bat izan behar. Tresna lagungarria izan behar zuen lehenetsunak eta adostasunak zehazteko, sarearen ekintzako esparruan zegoena eta erakunde bakoitzak esparru horretatik kanpo bilatu behar zuena bereizteko. Nolabait ere, agiri horretan, lehenetsuna eman zitzaien kontzeptu jakin batzuei buruzko barneko eztabaidatze-lanari, ezinbestekotzat jotzen zelako gai horiek eztabaidatuta izatea. Orobat, lehenetsuna eman zitzairen erakunde bakoitzak lan egiteko erabiltzen zituen hezkuntzako oinarriak, erakunde bakoitzak lantzen zituen proiektuei baino garrantzi gehiago eman baitzitzairen.

Premia zegoen norberak bere jarduerak antolatzeari ekiteko. Horretarako, ahalegin handia egin behar izan da, eta, horren ondorioz, hausnarketa egitera eta esperientziak aztertzea zuzenduta zeuden bileren iraupena asko luzatu da. Hausnarketa teorikoko bilera batzuen egutegia finkatu zen, eta tresna batzuk proposatu ziren taldeen jarduerak eta proiektuak aztertzeko, baina haietako bat ere ez zen gauzatu azkenean. Itxura denez, bilera bereziak aurrez finkatzea ez da oso baliagarria izan. Hala, beraz, etorkizunari begira, *Amanda* plataformaren bilera bakoitzaren zati bat hausnarketa teorikorako uztea proposatu da.

Iparorratz Agiriaren bidez, lehenetsunez jotzen ziren kontu batzuk berriz hartu dira, eta jardute batzuk

zuzendu dira. Oraindik ere alderdi batzuk ukitu eta hobetu daitezke, baina, nolabait ere, oso gida balioetsua da lana bideratzeko, batez ere denboran barrena aldatuz doazen erakunde asko dituen sare batean. Ondo zehaztutako lan-proiekturik eduki ezean, jardura neurritz gainekoa izan daiteke.

- Pertsonen eta erakundeen arteko elkarrizketa errazteari buruz.

2005. urtean hezkuntzarekin eta kultura arteketasunarekin interesa zuen lagun-talde bat bilerak egiten hasi zen. Lagun horiek lan egiteko hainbat gunetan egon ziren batera lehenago, gune horietan topo egin zutelako. 2005. urtean bilera hauekin hasia oso kontu garrantzi-tsua izan zen, batez ere, hiru arrazoi hauenatik: alde batetik, bilerak ez zuelako deialdi itxirik izan, eta ez ziolako talde bakar batek egindako proposamenari erantzuten. Aitzitik, dei bat egin zen gune bat eraikitzeke, eta, gune horretan, pertsona eta erakunde guztiek izan zezaketen zer esana eta zer egina. Beste aldetik, proposamena, gutxi gorabehera, gune zehatz batera mugatuta zegoelako, hain zuzen, Alde Zaharrera. Alde Zaharreko pertsona eta proiektuei buruzko nola-halako ezagutza zegoen aurretiaz, eta, horri esker, konfiantzazko giroa sortu zen lanerako berehala.

Etengabe heltzen ziren talde edo pertsona berriak, proposamenari buruz galdezka. Horren ondorioz, proiektua motelago jarri zen abian, egiten zen bilera berri bakoitzean pertsonak eta taldeak aurkezteko txanda egin behar zelako. Alabaina, erakunde bakoitzak zuen proiektua partekatzeke erabili zen denbora hori guztia aurrerapauso bat izan zen, era horretan elkarren arteko ezagutza hobetu zelako, eta sinergia eta lankidetzaren ugari sortu zirelako, hala bi aldekoak nola alde askotakoak.

Amanda plataforman erakunde gehiagoren parte hartze zabalagorik egon ez bada eta talde batzuk plataforman sartu ez badira, gure ustez, hori hasierako deialdia egin zuten erakundeen izaeratik gertatu da. Gaur egun, bileretara joaten diren lagunak erakunde bakoitzak “kontratatu” dituen pertsonak dira. Hortaz, bilerak

“lan-orduan” egiten dira, goizez normalean. Hori oztopoa da beste erakunde batzuk hurbildu daitezen, batez ere borondatez aritzen diren pertsonak osatzen dituzten erakundeak urreratu daitezen.

- “Hartzaileak” diren pertsonak (eta taldeak) sarean eta erakundearen proiektuetan inplikatzeari edo parte hartzeari buruz.

Neurri handiagoan ez bada txikiagoan, erakunde guztiek zuzeneko harremana dute gutxiengo kulturalekin. Hortaz, bada, nola edo hala, gutxiengo talde horiek gehiago edo gutxiago agertzen dira egiten diren proiektuetako talde-xede gisa. Hala ere, praktikan, gizarteratu gabe jarraitzen dute, jarduera normalizatueta barneratu gabe. Hausnarketa egin liteke talde horiek erakartzeko moduari buruz. Horretarako, ondo hausnartu beharko litzateke plataformak zer neurritaraino erantzuten dien talde horiek dituzten beharrazarnei edo kezkei. Era berean, ondo pentsatu beharko litzateke zer egin ahal den talde horiek sarearen nortasuna eraikitzeke lanetan parte har dezaten. Aurreko kasuan bezala, kontuan izan behar da bilerak goizez egiten direla, eta, horren ondorioz, etorkinen talde askok ezin dutela parte hartu, batez ere gutxiago egituratuta dauden eta borondatezko izaera gehiago duten taldeak.

- Alde Zaharreko pertsonak beren jarduera guztiak auzoan bertan egin ditzaten baliabideak/zerbitzuak sortzeari buruz.

Banakako eta bi aldetako proiektuak sortu dira *Amanda* plataformako erakundearen artean, eta proiektu horiek baliabideak sorrarazi dituzte auzoan. Dena dela, ez dago inolako diagnostikorik, auzoan dauden baliabideei buruzko benetako ikuspegia izateke. Era berean, ez da inolako baloraziorik egin, *Amanda* plataformak zer bultzatu edo berregituratu behar duen jakiteke. Arrakasta gehiago lortu da, berriz, udal-planetak jardueretan, foroetan eta instituzioen plangintzako guneetan izan den lankidetzan. Alabaina, estrategia berriak bilatu behar dira, *Amanda* plataforma desberdinaoak diren beste talde batzuegana hurbildu dadin.

- Ikastetxea auzoa aldatzeko eragile gisa sustatzeari buruz.

Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak aldaketa handiari ekin dio urte hauetan. Besteak beste, aldaketa hauek egin ditu: aldaketak klaustroan, irakasle egonkorragoak, kultura artekotasuneko koordinatzailea agertu da, ikastetxea irekiago dago gizarte-eragileek parte har dezaten. Ikastetxean aldaketak izan dira, batetik, irakasleen klaustroan izan den jardueraren ondorioz, eta, bestetik, Gurasoen Elkarte asko engaiatu delako eta eraginkortasunez aritu delako ikastetxea eraldatu nahian.

Amanda plataformak ere aldaketak egin ditu bere eraketan (talde berriak iritsi dira, beste batzuk desagertu dira, lan-fluxuak irregularrak izan dira...), baina plataformak eraman duen erritmoa eta ikastetxeak duena oso desberdinak dira. Ez dago gune egonkorrik elkarrizketa egiteke, eta horrek erritmoen arteko desdotoitza ekarri du. Ikastetxea ez da bilerara joaten normalean, beste lehentasun batzuk dituelako. Gainera, ikastetxeak prozesu motelagoak eskatzen ditu, bere egitura instituzionalagoa delako; *Amanda* plataforman izaten diren eztabaidak, berriz, arinago egiten dira. Egoera horrek desilusia eragin du sarean, proiektuetako batzuetan aurreikusita zeuden jarduerari dagokienez.

Sarritan izaten da akats hori gizarteko mugimenduek antolatzen dituzten jardueretan. Askotan argi eta garbi jakiten da nola izan beharko lukeen -kasu honetan- ikastetxea, eta jarduerak sustatzen dira norabide horretatik bideratzeko, “hartzailearen” laguntzarik izan gabe eta berrespena jaso gabe. Horrenbestez, eraikitzen den proiektu horrek, azkenean, ez ditu hartzailearen interesak edo lehentasunak betetzen. Ikastetxean aldaketak egiteke, lehenik, ikastetxeak berak beharrezkotzat jo behar du aldaketa horiek egitea; inoiz ez da horrelakorik lortuko kanpotik egindako proposamen baten ondorioz.

Plataformak hezkuntza formalaren esparruan egiten duen lanean hobetu behar den beste kontu bat hauxe da: harremana beste ikastetxe batzuetara zabaltzea.

Urte hauetan, *Amanda* plataformak Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxea hartu du beren ahaleginen ardatz gisa. Izan ere, ikastetxe horretako ikasleen artean kultura aniztasun handia zegoen, eta, gainera, ikastetxe hori inguruko beste batzuk baino irekiago ibili zen auzoko elkarteekin eta taldeekin lankidetzan aritzeko. Urrats garrantzitsua izan da ikastetxe hori sarean izatea, baina beste ikastetxe batzuetara zabaldu behar da harremana. Izan ere, Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxea ez da Alde Zaharrearan dagoen hezkuntzarloko erreferentzia bakarra. Ildo horretan, beste ikastetxe batzuekin lan egitea sartu behar da helburuen artean; esate baterako, Santa María, Landazuri, Haurtzaro, Samaniego... ikastetxeekin lan egitea. Horiek beste mota bateko ikasleak dituzte, eta bestelako adintaldeak ere bai (Haur Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza). Interesgarria izango litzateke harremanetan jartzea ikastetxe horietako kultura arteko koordinazio arduradunarekin (irudi hori orain dela gutxi sortu da, ikastetxeetan ikasle etorkinak %30 baino gehiago direnean jartzeko).

- Alde Zaharrak auzoan bertan eta hirian duen irudia hobetzeari buruz.

Alde Zaharrak irudi estereotipatua du. Oinarri hori hartu zen abiaburutzat, eta irudi hori aldatzea hartu zen xede gisa. Alabaina, inoiz ez zen adierazle soziologikorik zehaztu, sarea eratu zen unean zegoen ikuspegia argiago izateko. Hala egin izan balitz, adierazle horien jarraipena eginez, hasierako eta etorkizuneko unean arteko erkaketa egin zitekeen.

Irudi hori hobetzea auzi eztabaidagarria da, eta auzi hori zabalik dago sarean. Normalizazio gehiago lortu nahi da eta baztertuta dauden taldeak gizarteratu nahi dira, baina ez da auzoaren irudi “aseptikoa” hobetzeaz eztabaidatu nahi. Irudia hobetzeko interesa piztuko da, auzoan bizi diren pertsonen bizitza aldatzen den heinean. Garrantzikoa da jakitea nork hartzen duen mezua eta nori egiten zaion arreta proposatu nahi den hirigunearen eredia zehazterakoan. Hala, bada, garrantzitsua da edukia oinarritzat hartuta

lan egitea, baina ez du garrantzirik “erakusleihoko” irudi bat bilatzeak.

Plataformak jai, ospakizun eta ekimen politikoetan hartu du parte, unearen eta aldarrikapenaren arabera. Horrez gain, iritzi-artikuluak idatzi dira tokiko egunkarrietan, elkarrizketak egin dira komunikabide alternatiβοetan eta jardunaldiak antolatu dira, baina, hala ere, betiko ikusleek jasotzen dute mezua, sentsibilizatuta dauden pertsonak. Hortaz, bada, hain hartzaileak ez diren gizarteko beste taldeengana nola iritsi zabalik dagoen auzi bat da oraindik, beste aztergai bat.

- Alde Zaharrearan egiten diren proiektuak bateratzeko sare bat finkatzeari eta egonkortzeari buruz (tokikoa eta mundu osokoa).

Hiru urte hauetan tokiko erakundeetako pertsona asko igaro dira *Amanda* plataformatik, baina beti egon da aski saiatua eta egonkorra izan den pertsona-talde bat. Erantzukizunak eta erabakiak hartzeko dagoen protokolo eta egitura-mota dela-eta, langile liberatuak zituzten eta barneko egitura sendoa zuten erakundeentzat errazagoa izan da parte hartzea. Erakunde txikiago batzuek inplikazio gehiagoko gune bat nahiago izango zuten, bultzada gehiago jasotze aldera; horiek plataforma utziz joan dira pixkanaka (esate baterako, Bizi Gaia edo Javiki).

Bestetik, bilerak goizez egiten direnez, hori muga bat izan da beste talde batzuk gerturatu daitezten. Izan ere, Hika Ateneo edo Gasteizkoak bezalako taldeek hainbatetan adierazi zuten bileretara etorri nahi zutela, interesa zutelako gaiarekin eta, gainera, gaiak zerikusia zuelako beren lan-esparrurekin.

Autonomia-erkidegoaren esparruari dagokionez, ahalegina egin zen Harresiak Apurtuz koordinakundearekin harremanetan hasteko (etorkinei laguntza ematen dieten Euskadiko gobernuz kanpoko erakundeen koordinakundea baita). Hala ere, zailtasunak izan ziren bi plataformak osatzen zituzten talde guztien arteko batzarren eguna eta unea finkatzeko. Hortaz, azkenean, ekimena atzera bota zen, eta sareak tokiko lana hartu zuten lehentasun gisa.

Nazioarteari begira, sareko talde batzuek beste kontinente batzuetan garatutako hezkuntzako esperientziak ezagutzeko egin zituzten ekimenak aprobetxatu ziren. Horrela gertatu zen *La educación intercultural y la cooperación al desarrollo* izeneko jardunaldiekin (*Kultura arteko hezkuntza eta garapenerako lankidetzeta*). Jardunaldi horiek Ekilore erakundeak antolatu zituen 2007. urtean, eta, haren bidez, Ekuadorreko Kultura Arteko Hezkuntza Elebidunaren Sistema eta Katalunian eta Euskal Herrian garatutako ekimenak eman ziren ezagutzera. Alabaina, horrek ez du ekarri geroko koordinazio edo lan iraukorragorik.

Taldea sortzeko prozesua indartze eta bultzatze aldera, blog hau jarri zen abian: <http://gasteizko.elkartek.net/amanda/>. Saregune erakunde arduratu da bera dinamizatzeaz, eta hori funtsezkoa izan da bloga arintzeko. Dena dela, sareko gainerako taldeek ez dute bloga erabili, nahiz eta trukerako tresna baliagarria izan. “Iragarki-taula” modura aski ondo ibili da, batez ere sareari buruzko “publizitatea” jasotzeko, eta, neurri txikiagoan, agiriak, lanak eta horrelakoak trukatzeko bide modura ere bai.

- Lanaren banaketari eta sareko erantzukizunei buruz.

Amanda plataforma sortu zenetik, sareko erakundeak garatzen ari diren proiektuen bateratze-lana egiten da, eta, hala, erakundeek auzoari eta kultura artekotasunari buruz duten ikuspegia aztertzen da. Konfiantza pertsonaleko eta instituzionaleko giroa sortzen da, eta giro hori egokia da kezkek, zailtasunak, beharrianak eta horrelakoak partekatzeke. Era berean, egokia da quorumik ez duten bileretan hartzen diren erabakiak legitimatzeko. Ibilbide luzeagoa eta egitura instituzionalagoa duten erakundeen iritziak, sarea elkargune eta eztabaidagune interesgarri bat zen, baina mugak zituen, ez baitzen egokia helburu handiak finkatzeko. Aitzitik, erakunde berriagoen ustez, *Amanda* gune egokia izan zitekeen hobeto babestuta eta estalita egoteko, eta berezko entitate juridikoa izan zezakeela uste zuten.

Amanda plataforman sortzen diren proiektuek eragin desberdina dute erakundeen baitan. “Moralki”, sareko

erakunde guztiek ematen diete laguntza proiektuei. Hala ere, “jarduterakoan” erakunde batzuk gehiago inplikatzeko dira beste batzuk baino, proposatzen den jardueraren arabera. Horrenbestez, ez dago behar adinako argitasunik erantzukizunak banatzerakoan. Izan ere, erantzukizunak beti hartzen dira, kide bakoitzak duen prestutasunaren eta borondate “onaren” arabera. Alde batetik, horrek askatasun eta arintasun pixka bat ematen dio lanari, baina, bestetik, desdoikuntza batzuk ere sortu ditu, gaien erantzukizuna nori dagokion jakiterakoan. Gainera, era horretan, sareko gainerako kideek ez dituzte proiektuak bereganatzen. *Amandak*, plataforma gisa, proiektuen erantzukizun “formala” hartzen du bere gain, baina inoiz ez da erantzukizun argirik finkatzen proiektuetan parte hartzen duen erakunde bakoitzari begira.

Garrantzitsua izango litzateke protokolo bat zehaztea, eta, bertan, argi finkatzea erabakiak hartzerakoan eman behar diren pausuk. Horrela, ez da erabakia erakunde guztien izenean hartu behar. Bestalde, sareko kide bakoitzari zeregin jakin batzuk aginduko zaizkio. Proiektuak hartu ondoren, argi finkatu behar da nork duen halako erantzukizuna eta zein diren erantzukizunak. Gainera, jarduteari lehenetsasuna eman arren, horrek ez du esan nahi beste eragile batzuk alde batera utziko direnik, esate baterako hauek: *Amanda* plataforma erakunde desberdinak osatzen dute, eta erakunde horiek entitate juridiko eta barne-egitura desberdinak dituzte, eta baterako proiektuak bultzatu ahal izateko, aurrez, “konbentzitzeko eta proiektua bereganatzeko” prozesua egin behar da erakundeen barruan.

Bestetik, egiturazko erabaki batzuek ere oso garrantzitsuak izan dira erantzukizunak uzteko. Batzuetan, *Amanda* plataformak baliabideak izan ditu pertsona bat askatzeko. Horrelakoetan, pertsona horrek sareko jarduera batzuk egin ditu, baina erakundeek beren erantzukizunak utzi dituzte alde batera. Langileak kontratatu zirenean, mapaketa egiteko proiektuak bultzada handia jaso zuten, baina, aldi berean, horrek jendea desmobilizatzeke ondorioa izan zuen.

- Kanpoko komunikazioari buruz.

Benetako erreferenteak behar dira “kultura artekotasunaren” arloan. Izan ere, hitz horren esanahiari buruzko susmoren bat izateaz aparte, zalantza ugari daude haren inguruan, kultura artekotasuna gauzatzearen inguruan. *Amanda* plataforma erakundeen talde gisa sortu zen, eta, hori dela-eta, gai horietan erreferentetzat hartu ohi da. Hala ere, berez, ez da aztertzeko eta egiaztatzeko prozesurik egin, eta, hortaz, ez da inolako bateratze-lanik egin. Alabaina, gaur egun dagoen balioa da sareko pertsona eta erakunde batzuk, banaka hartuta, berez direla erreferenteak. Hori ahalmen handia da, eta etekin gehiago atera beharko litzaioke horri.

Sareko kideen artean konfiantza handiz lan egin da beti, eta horrek askatasun handia eman du; hala, bada, kideek askatasunez hartu dute parte elkarrizketetan edo artikulua egin dituzte, taldearen onarpena izanda. Hala ere, erakunde bakoitzak lantzen dituen hezkuntzako oinarriak ondo egiaztatu behar ditu barneko bilertan. Horrez gain, erantzun arin batzuk prestatu behar ditu, tarteka azaltzen diren albisteekin, iritzi-artikuluekin edo instituzioen erabakiekin erabiltzeko. Horien aurrean, *Amanda* plataformak ezin du erantzunik eman, oraingoz behintzat, ez.

- *Amanda* plataforman egindako eztabaidak eta lana sareko kideak diren erakunde gutzietara eramatea.

Itxura denez, sarean izaten diren eztabaidak ez dira azkenean islatzen erakundeen ikaskuntzetan edo beste agiri batzuetan. Badirudi erakundeek modu generikoan ematen diotela laguntza *Amanda* plataformari, baina gero ez daudela zuzenean harremanetan sareko eguneroko gertaerekin. Erakundeen ordezkaritzan bileretan etortzen diren pertsonen interes pertsonal handia izaten dute, “emozioz” hartzen dituzte proiektuak beren gain, baina gero ez dute beti jasotzen beren erakundearen berrespena. Hortaz, bileretan parte hartzen duen pertsona batek erakundetik alde egiten duenean, erakundeak ikaskuntza horiek galtzen ditu.

Bestetik, *Amanda* plataforman dauden erakunde batzuk ez daude oso “instituzionalizatuta”; beste batzuek, berriz, egitura konplexuagoa dute, eta, hala, erakundeak

berrespena eman behar die hartzen diren erabakiei. Esate baterako, eskolek astiroago egin behar dute prozesua; eta, erakundeak proiektuaz jabetu dadin nahi bada, horrela jokatu behar da. *Amanda* plataforma ez da oraindik hezkuntza formaleko instituzioak limurtzen saiatu. Instituzio horiek prozesu motelagoak eta bereziagoak dituzte. Ikastetxeek dituzten erritmoak errespetatu behar dira. Izan ere, hori da gizarteko mugimenduen (hezkuntza ez-formalaren) eta eskolen arteko lanean dagoen punturik nabarmenetako bat.

- Hizkuntza gutxituak bultzatzeari buruz.

Komunikazioko hizkuntza gaztelania izan da. Ahalegin batzuk egin dira euskara erabiltzeko, besterik ez bazen egonkorragoak diren guneeetan, esate baterako blogean edo agiritan. Alabaina, sareak bizkortasuna behar zuen, eta taldearen hizkuntza-egoera ere horrelakoa zen. Horiek horrela, lehentasun hori bigarren mailan geratu da. Euskara erabiltzeaz gain, blogeko eduki batzuk eta agiri batzuk Vitoria-Gasteizen gutxiengo egoeran dauden beste hizkuntza batzuetara itzuli nahi ziren, adibidez, arabierara, ingelesera edo frantsesera. Jarduera horiek aurrez planifikatuta eta prestatuta zeuden, *Amanda* proiektuaren filosofiaren barruan baitzeuden, baina bigarren mailan geratu dira azkenean.

- Utopiaren eta praktikaren arteko tentsioari buruz (Utopia teorikoa testuingurura egokitzeari buruz).

Urte hauetan toki gutxi egon da plataformaren barneko hausnarketa teorikoa egiteko. Hala ere, tresna batzuk sortu dira erakunde bakoitzak dituen proiektuak aztertzeko eta, horrela, erakunde bakoitzak zenbateraino ari den kultura arteko ikuspegia garatzen neurtzeko. Ez da jardute zehatzen azterketarik egin, baina, dena dela, tresnak sortu dira, eta hemendik denbora gutxira abian jarri ahal izango da azterketa hori.

Bestetik, bileretan bateratze-lana egin da aldian-aldian, erakunde bakoitza egiten ari zen proiektuen eta jardueren berri azaltzeko. Jarduerak eta eguneroko jarduteak partekatu dira, eta sareko pertsonen emandako iritziak eta egindako proposamenak onartu dira. Horren ondorioz,

ikaskuntza bat egon da, eta bakoitzak egindako jarduteei buruz eztabaidatzeko gun bat sortu da; eta hori ez da zuzenduta egon eta ez da esplizitua izan, baina benetakoa izan da.

Sarera joaten den erakunde- eta pertsona-motari dagonez, profila aski akademikoa da. Ezaugarri hori, bilerak egiteko ordutegia, eta azaltzen diren edukiak kontuan hartuta, sustatzen den guneak, nolabait ere, mugatu egiten du hurbiltzeko prozesua, eta, horrenbestez, ezagutza teoriko gutxiago duten pertsonak eta erakundeak ez dira gerturatzen.

- Hezkuntza formalaren eta informalkaren arteko harremanari buruz.

Amanda plataformak abiaburutzat hartzen duen ikuspegitik, ikastetxeak gizarte-mugimenduetara eta testuingurura zabalik dauden guneak dira. Ikuspegi horretatik abiatuta, helburu hau lortu nahi da: Alde Zaharreko ikastetxeak irekiago egon daitezen auzoko erakundeek egiten duten lanaren aurrean.

Amanda plataformaren lana hasi zenean, Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxera bideratu ziren ahalegin guztiak. Orduan, ikastetxe hori ez zegoen oso irekita, baina, pixkanaka-pixkanaka, zabalduz joan zen, barnean eztabaida ugari egin eta aldaketa asko izan ondoren.

Teorian, ikastetxeak argi du gune bat behar dela erakundeek parte har dezaten. Alabaina, praktikan, zailtasunak daude, ikastetxeak astiroago egiten duelako prozesua erakundeek baino, eta, gainera, beste lehentasun batzuk dituelako. Horrez gain, ikastetxeek oso egitura instituzionalizatuta dute, eta nahitaez bete behar dute finkatuta dagoen curriculuma. Hala, bada, beharizan berezi batzuk dituzte, eta haiekin lan egin nahi duten erakundeek beharizan berezi horiek zaindu eta aintzat hartu beharko dituzte.

5. Bibliografía

- Argibay, M. eta Celorio, G. (2005): La Educación para el Desarrollo. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpenen Zerbitzu Nagusia.
- Beck, U. (2008): “Las raíces cosmopolitas de la democracia. El caso de la Unión Europea”, hemen: *Sistema. Revista de ciencias sociales*, 206. zk, 3-20 or.
- Bolívar, A. (2007): *Educación para la Ciudadanía. Algo más que una asignatura*. Bartzelona, Graó.
- Bolívar, A. (2008): “Escuela y formación para la Ciudadanía”, hemen: *Bordon. Revista de pedagogía*, 59. lib., 2 eta 3. zenbakiak, 353-374 or.
- Boni, A. eta Baselga, P. (2003): “La Educación para el Desarrollo como estrategia prioritaria de la cooperación”, hemen: *Libro Blanco de la Cooperación al Desarrollo*. Valentzia, Valentziako Erkidegoa - Generalitat Valenciana. 400-446 or.
- Boni, A. eta Pérez-Foguet, A. (2006): *Construir la ciudadanía global desde la universidad*. Bartzelona, Intermón Oxfam/Ingeniería Sin Fronteras.
- Carbonell, J. (2008): “Las competencias no bastan”, hemen: *Cuadernos de Pedagogía*, 38o. zk., ekaina. 3 or.
- Celorio, G. eta López de Munain, A. (koord.) (2007): *Actas del III Congreso de Educación para el Desarrollo*. Bilbo, Hegoa.
- Celorio, G. eta López de Munain, A. (koord.) (2007): *Diccionario de Educación para el Desarrollo*. Bilbo, Hegoa.
- Celorio, J.J. (2007): “Educación para la Ciudadanía”, hemen: Celorio, G. eta López de Munain, A. (koord.) (2007): *Diccionario de Educación para el Desarrollo*. Bilbo, Hegoa. 119-123 or.
- Cobo, R. (arg.) (2008): *Educación en la ciudadanía. Perspectivas feministas*. Madril, Los Libros de la Catarata.
- CONGDE koordinakundearen Garapenerako Hezkuntzako Taldea (2005): *La Educación para el Desarrollo. Una estrategia de cooperación imprescindible*. Madril, Espainiako Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen Koordinakundea.
- Europako Batzordea (2004): *Bizitzan zehar ikasteko funtsezkoak diren gaitasunak, Europako erreferentziako esparru bat*. Brusela, Hezkuntza eta Kulturako Zuzendaritza Nagusia («Funtsezko gaitasunak» izeneko lantaldea).
- Europako Kontseilua (2006): *Education for Democratic Citizenship and Human Rights. Programme of activities 2006-2009 “Learning and living democracy for all”*. Hemen eskuragarri: www.coe.int/t/dg4/education/edc/Source/Pdf/Documents/2006_5_ProgActivities2006_2009_en.pdf. Kontsultaren data: 2008ko abendua.
- Delors, J. (1996): *La educación encierra un tesoro. Informe a la UNESCO de la Comisión Internacional sobre la Educación para el siglo XXI*. Madril, Santillana/UNESCO.
- DeSeCo (2002): *Définition et sélection des compétences: Fondements Théoriques et conceptuels*. Hemen eskuragarri:

- www.berrikuntza.net/c_vasco/materiales/materiales_arch/14.pdf. Kontsultaren data: 2008ko abendua.
- Dubois (2007): “Desarrollo Humano”, hemen: Celorio, G. eta López de Munain, A. (koord.) (2007): *Diccionario de Educación para el Desarrollo*. Bilbo, Hegoa.
- Eurydice (2005): *La educación para la ciudadanía en el contexto escolar europeo*. Hemen eskuragarri: www.educacionenvalores.org/IMG/pdf/eury2006ecceepc.pdf. Kontsultaren data: 2008ko abendua.
- Fernández Liria, C.; Fernández Liria, P. eta Alegre Zahonero, L. (2007): *Educación para la Ciudadanía. Democracia, capitalismo y estado de derecho*. Madril, Akal.
- Gimeno Sacristán, J. (2001): *Educar y convivir en una cultura global. Las exigencias de la ciudadanía*. Madril, Morata.
- González, J. eta Wagenaar, R. (arg.) (2003): *Tuning Educational Structures in Europe*. Azken Txostena, Lehen Aldia. Deustu/Groningen, Deustuko Unibertsitatea/Groningen-go Unibertsitatea.
- Held, D. (2002): *Modelos de Democracia*. Madril, Alianza Editorial.
- Intermón Oxfam (2005): *Hacia una Ciudadanía Global. Propuesta de competencias básicas*. Hemen eskuragarri: www.intermonoxfam.org/es/page.asp?id=2169. Kontsultaren data: 2008ko abendua.
- Intermón Oxfam (2006): *El trabajo a favor de la Ciudadanía y los Derechos Humanos en el proyecto educativo, el conjunto de la actividad del centro y en su apertura al entorno*. Hemen eskuragarri: www.intermonoxfam.org/es/page.asp?id=2169. Kontsultaren data: 2008ko abendua.
- Jarés, Xesús R. (2008): *Los libros de texto*, hemen: *Cuadernos de Pedagogía*, 38o. zk., ekaina. 52-69 or.
- Maiztegui, C.; Lezáun, M; Rodríguez, R. (2006): *De la ciudadanía local a la global y de la ciudadanía global a la local. El camino andado*. Bilbo, ALBOAN; Deustuko Unibertsitatea.
- Martínez Bonafé, J. (2002): *Políticas del libro de texto escolar*. Madril, Morata.
- Morillas, M^a Dolores (2006): *Competencias para la Ciudadanía. Reflexión, decisión, acción*. Temas transversales izeneko bilduma. Bigarren Hezkuntzarako Materialen Saila, 12-16. Madril, Narcea.
- Naïr, S. (2003): *El imperio frente a la diversidad del mundo*.artzelona, Círculo de Lectores.
- Nieto, C. (2007): *Competencias básicas en Educación para la Ciudadanía*. Hemen eskuragarri: www.fundacioncives.org/assets/files/LasCompetenciasSociales.CecilioNieto.pdf. Dataren kontsulta: 2008ko abendua. Gaztelaniazko laburpen exekutiboa hemen dago eskuragarri: www.deseco.admin.ch/bfs/deseco/en/index/03/02.html Dataren kontsulta: 2008ko abendua.
- Oxfam GB (2006): *Teaching Controversial Issues. Global Citizenship Guides*. Londres, Oxfam.
- Paz Abril, D. de (2007): *Escuelas y Educación para la Ciudadanía Global. Una mirada transformadora*.artzelona, Intermón Oxfam.
- Pérez Gómez, A.I. (1998): *La cultura escolar en la sociedad neoliberal*. Madril, Morata.
- PNUD (1992-2007): *Informe sobre Desarrollo Humano*. Washington, Garapenerako Nazio Batuen Programa.
- Polo, F. (2004) *Hacia un currículum para una ciudadanía global*.artzelona, Intermón Oxfam.
- POLYgone (2003): *Mosaico educativo para salir del laberinto. Red Internacional de Educación para el Desarrollo y Educación Popular*. Bilbo, Hegoa.

Agiriak

AECID (2005): *Espainiako Lankidetzarako Plan Zuzentzailea, 2005-2008*.

Diputatuen Kongresua (1992): *Garapenerako laguntzako eta lankidetzako Espainiako politikaren helburuei eta ildo orokorreari buruzko txostena*.

Europako Parlamentua eta Europako Kontseilua (2006): *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Gomendioa, 2006ko abenduaren 18koa, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzkoa*. “Etengabeko ikaskuntzarako funtsezkoak diren gaitasunak. Europako erreferentziako esparru bat” Eranskina. Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 394, 2006ko abenduaren 30ekoa. Hemen eskuragarri: http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/site/es/oj/2006/L_394/L_39420061230es00100018.pdf. Kontsultaren data: 2008ko abendua.

Europako Parlamentuaren Jarrera, 2006ko irailaren 26an lehen irakurketan hartua, etengabeko ikaskuntzarako funtsezkoak diren gaitasunei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren gomendio bat onartzeari buruzkoa. Hemen eskuragarri: www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P6-TA-2006-0365+o+DOC+XML+Vo//ES Kontsultaren data: 2008ko abendua.

Europar Batasuneko Kontseiluaren Ebazpena, Garapenerako Hezkuntzari eta Europako iritzi publikoa garapenerako laguntzaren alde sentsibilizatzeari buruzkoa (2001eko azaroaren 8koa).

Euskal Curriculum (2007): *175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Oinarrizko Hezkuntzako curriculum finkatzen eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena*. EHAA, 218. 2007ko azaroaren 13a.

Eusko Jaurlaritza, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (2008): *Garapenerako Lankidetzako Plan Zuzentzailea, 2008-2011*. Hemen eskuragarri: www.lankidetzeta.info/DefinitivoPlanDirectorEstrategico2008-2011.pdf Kontsultaren data: 2008ko abendua.

Kooperazioaren Euskal Legea (2007): *1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa*. EHAA, 48. 2007ko martxoaren 28a.

LCI (1998): *23/1998 Legea, uztailaren 7koa, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzkoa*.

Lisboako Kontseilu Europarra (2000): *Lisboako estrategia. Presidentziaren ondorioak. 2000ko martxoaren 23a eta 24a*. Hemen eskuragarri: www.europarl.europa.eu/summits/lis1_es.htm. Kontsultaren data: 2008ko abendua.

LOE (2006): *2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa*. Hemen eskuragarri: www.boe.es/boe/dias/2006/05/04/pdfs/A17158-17207.pdf Kontsultaren data: 2008ko abendua.

LOGSE (1990): *1/1990 Lege Organikoa, urriaren 3koa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko dena*.

Ortega, M^a L. (2008): *Espainiako lankidetzaren Garapenerako Hezkuntzako estrategia*. Madril, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa. Nazioarteko Lankidetzarako Estatuko Idazkaritza. Garapenerako Politiken Plangintza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusia.

Senatua (1994): *Garapenerako Lankidetzarako Espainiako politikari buruzko azterketaren txostena*.

Eranskinak



Mundilab. Zeharkakotasuna eta Garapenerako Hezkuntza lantzeko Laborategia

1. Erakunde arduraduna

Hegoa -Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua-.

2. Garapenerako Hezkuntzako esperientzia honen iraupena (hasiera eta amaiera)

1999-2003.

Denboraldi horretan Hegoa zuzenean arduratu zen Mundilab esperientzia koordinatzeaz, baina proiektuak jardunean jarraitzen du ikastetxeetan.

3. Garapenerako Hezkuntzako esperientzia honen bidez lortu nahi diren helburuak

Mundilab berrikuntza pedagogikoa, prestakuntza eta hezkuntza-arloko ikerkuntza lantzen dituen proiektu bat da, eta, haren bidez, Zeharkakotasunaren eta Garapenerako Hezkuntzaren praktika bultzatu nahi da ikastetxeetan.

Proiektuaren helburu nagusia da ezagutza kritikoa sustatzea eta lankidetzaren eta elkartasunaren balioak bultzatzea.

Ikastetxeetan jartzen den ikasgela-laborategi bat da. Gunea bereziki diseinatuta dago hezkuntza berritzatzeko hainbat proposamen egituratzeko, hala metodologia-, tresna- edo kontzeptu-aldeko proposamenak, nola

jakintzaren beste arlo batzuei buruzkoak. Proiektuak duen berrikuntzarik handiena da baliabideen eta metodoen multzo bat bateratzen duela, eta, horrenbestez, curriculumen edukiak eta ikuspegi orokorrak eta balioetako prestakuntza bateragarriak direla, eta ez direla bazterrean uzten zeharkako lerroen multzoan sartuta dauden helburuak.

Mundilab proiektuak oinarrizko hiru helburu hauek ditu:

1. Ikerkuntza. Ikasleek baliabide eta baldintza egokiak dituzte laborategian arlo bakoitzari dagozkion ikerkuntzako proiektuak garatzeko, zeharkako ikuspegi batetik joz. Horretarako, hainbat lan-metodo eta baliabide tekniko dituzte eskura, eta informazio-iturri desberdinetara sartzeko aukera ere bai. Ikasleek, ikertze-prozesua garatzean, jarraibide batzuk betetzen dituzte, eta irakasleen gidaritzapean aritzen dira.

Irakasleek ere oinarrizko osagaiak dituzte eskura ikasleak banaka nahiz taldeka behatzeko, aztertze, ebaluatze eta haien jarraipena egiteko. Laborategiko horniduraren artean, behatzeko eta ebaluatze jarduerak sistematizatzeko fitxak daude. Fitxa horiek oso material baliagarria dira irakasleek hausnarketa egin ahal izan dezaten bere eskolen gainean eta irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren abiadaren gainean.

2. Esperimentazioa. Mundilab proiektuak aukera ematen die ikasleei eta irakasleei hainbat informazio-iturri erabiltzeko, teknologia berriak erabiltzeko ohitura hartzeko, estrategia didaktiko asko praktikan jartzeko eta taldean lan egiten ohitzeko, hori guztia dagokien prestakuntzako alde garrantzitsu bat baita.

3. Komunikazioa. Laborategiaren bidez, neska-mutilek proiektuak aurkeztu ditzakete iturri dokumental ugari erabiliz, eta baliabide teknikoak erabil ditzakete beren azterketen emaitzak eskolan maketatzen, editatzeko eta azaltzeko. Horrez gain, gune fisikoa oso malgua denez, beste molde batzuk ere erabil daitezke komunikatzeko: antzerkia, dramatizazioak, eztabaidak, erakusketak...

4. Garapenerako Hezkuntzako esperientzia honetan landutako edukiak (generoa, herri indigenak, Ipar eta Hegoaren arteko harremanak, immigrazioa, giza eskubideak...)

Mundilab esperientziaren bidez, era askotako proiektuak garatu dira, hezkuntzako ziklo eta aldi desberdinei egokিতuta egon baitira, eta curriculumen arlo guztiekin izan baitute zerikusia. Proiektu horiek guztiak zeharkako ikuspegi desberdinetako proposamenen inguruan eratu dira; eta, haien bidez, errealitatearen ezagutza kritikoa eta zehatza lortu, eta lankidetzeta eta elkartasuna bezalako balioak bultzatu nahi izan dira. Besteak beste, alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- Neska-mutileen eskubideak (Haur Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko haurrenak).
- Globalizazioa (DBHko 4. maila. Hizkuntza eta Literatura).
- Kontsumoa eta osasuna (DBHko 1. zikloa. Natura Zientziak).
- Hegoaldetik Iparralderako emigrazioa (DBHko 2. zikloa. Ingelesa).
- Emakumeek kiroletan duten eragina (DBHko 1. zikloa. Gorputz Hezkuntza).

- Generoa eta matematikak (DBHko 1. zikloa. Matematika).

- Munduko familiak (Lehen Hezkuntzako 1. zikloa).

- *Cambia el Sur de tu coco* (Alda ezazu zure kaskoaren Hegoa). (DBHko 1. eta 2. zikloa. Matematika, Plastika, Eтика, Hizkuntza, Gizarte Zientziak eta Natura Zientziak).

5. Garapenerako Hezkuntzako esperientzia hau jaso duten taldeak

Esperientzia honetan bost talde daude sartuta:

Zuzenean:

1. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakasleak. Izan ere, irakasleak dira esperientzia honetako eragile nagusietako batzuk. Talde hau arduratzen da hezkuntzako programazioak egiteaz, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua ebaluatzeaz, esperientziak sistematizatzeaz eta gainerako ikastetxeekin esperientzien berri trukatzear.

2. Ikasleak. Ikasleak laborategira joaten dira ikerkuntzako proiektuak egitera, eta, hor, laborategiak eskura jartzen dizkien baliabide pedagogikoak eta teknikoak erabil ahal dituzte. Ikasleen taldea da programaren onura jasotzen duen taldea.

Zeharka:

3. Gurasoak. Hezkuntzako komunitatearen barruan daude, eta programa bide onetik ote doan jakiten dute. Eskolako eta eskolatik kanpoko jarduera jakin batzuetan parte hartzen dute.

4. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak eta gizarte-arloko mugimenduak. Mundilab programan esku hartzen duten ikastetxeek beren gain hartu dituzten konpromisoen artean, besteak beste, lanean aritu behar dute garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek eta gizarte-arloko mugimenduek egin beharreko hezkuntzako proposamenetan lankidetzan jardun dezaten errazteko eta bultzatzeko. Bestetik, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek gai jakin batzuei

buruzko material pedagogikoa eta testigantzak ekarzen dituzte, eta lantegiak prestatzen dituzte.

5. Berritzegunea (irakasleei laguntza emateko zentroak). Berritzeguneko aholkulariak Mundilab programaren barruan sartuta daude. Haien zeregin nagusia da aholkularitza eta orientabide pedagogikoa ematea hezkuntza-arloko programazioak egiteko eta irakaskuntza-ikaskuntzako jarduerak ebaluatzeko.

6. Garapenerako Hezkuntzako esperientzia honetan egin diren ekintza zehatzak

Programa honen esparruan ekintza hauek egin dira:

- Laborategiak diseinatu eta jarri dira ikastetxeetan. Honako hauek jarri dira guztira: Lehen Hezkuntzako 6 ikastetxetan, Bigarren Hezkuntzako 10 ikastetxetan eta Gasteizko Irakasleen Eskolan.
- Laborategien hasierako hornidura osatzen duten baliabide dokumentalak, teknikoak eta pedagogikoak aukeratu dira.
- Hezkuntza-arloko administrazioarekin -Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzarekin- eta ikastetxeekin harremanetan jarri da.
- Onartzeko aurkeztuko den proposamena prestatu da eta programan sartu da: ikastetxeko zuzendaritzaren konpromisoa lortu da, ikasgela zehatz bat bideratu da programa garatzeko, eta irakasleen talde bat eratu da esperientzia koordinatzeaz eta dinamizatzeaz -ikastetxean bertan, gainerako ikastetxeekin eta Hegoa erakundearekin-, ikasgelaren erabilera kudeatzeaz eta bultzatzen diren proiektuak sistematizatzeaz arduratu dadin.
- Mundilab programa oro har koordinatu da.
- Irakasleei prestakuntza eman zaie. Urtero, 45 orduko iraupena duen prestakuntzako ikastaro bat egiten da -30 ordu bertan egoteko dira eta 15 ordu, berriz, praktikoak-. Proposamen horren bidez, irakasleei prestakuntza eman nahi zaie laborategia erabiltzeko, zeharkakotasunari lotuta dauden proposamen pedagogikoen arloan, eta, oro har, hezkuntza-arloko berrikuntzarekin zerikusia duten gaietan.

- Irakasleei aholkularitza eman zaie programazioetan, eta, oro har, programa kudeatzeko eta koordinatzeko lanarekin zerikusia duten zeregin guztietan.
- Esperientzia ezagutzera eman da autonomia-erkidegoan, estatuan eta Europan barrena. 2000. urtean, Mundilab programak irabazi zuen Europako Kontseiluaren Iparra & Hegoa Zentroak Hezkuntza Globaleko proiektuetarako dituen sarietako bat.
- Esperientzia hau garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen artean eman da ezagutzera bereziki.
- Gidaliburu bat prestatu da laborategiaren erabilera errazteko.
- Programari buruzko web orri bat sortu da: www.ehu.es/mundilab

7. Garapenerako Hezkuntzako esperientzia honetan erabili diren baliabideak

Baliabide teknikoak (denak bateratuta, aldi berean erabili ahal izateko):

- Proiektioko kanoia.
- Ordenagailuak eta inprimagailuak.
- Interneteko konexioa.
- Opakuen proiektagailua eta aurkezpen-bideoa.
- Bideo-proiektagailua.
- Altzariak:
 - ✓ Mahai trapezoidalak eta aulkiak
 - ✓ Fitxategiak
 - ✓ Pantaila
 - ✓ Apalategiak
- Baliabideen zentroa:
 - ✓ Gida didaktikoak
 - ✓ Bideoak

- ✓ Multimedia-materiala
- ✓ Erreferentziako obrak
- ✓ Bibliografia

- Baliabide pedagogikoak:

- ✓ Peters proiektuaren puzzle-mapa
- ✓ Hiru dimentsioko grafikoak
- ✓ Haize-arrosa
- ✓ Irudi bat aztertzen

- Artxibo metodologikoa eta dokumentala

- ✓ Esperientziak sistematizatzeko fitxak
- ✓ Irakasleentzako fitxa teorikoak
- ✓ Ikasgelan erabiltzeko fitxak

8. Garapenerako Hezkuntzako esperientzia honetan kontuan izan diren ebaluazioko irizpideak

- Irakasleen inplikazio-maila.
- Ikastetxeak gero eta irakasle gehiago jartzea esperientzian aritzeko.
- Tartean izan diren ikasleen kopurua.
- Garapenerako gobernu kanpoko erakundeek eta gizarte-mugimenduek hezkuntzako programazioak garatzeko lanetan izan duten partaidetza-maila.
- Egindako esperientzien sistematizazioa.
- Programa garatzeko jarri diren baliabide teknikoak eta pedagogikoen egokitasun-maila.
- Egindako proiektuen tipologia eta proiektu horietan zeharkakotasuna sartzeko maila.
- Egindako esperientzien berrikuntza-maila -erabili den metodologia, ikasleen interesa, hezkuntza-arloko komunitatearen inplikazioa-.

- Esperientziarekin bat egiteko interesa duten ikastetxeen eskaria igotzea.
- Irakasleak gustura egotea programarekin, koordinazioarekin emandako aholkularitzarekin eta jasotako prestakuntza bereziarekin.
- Hezkuntza-arloko administrazioaren balioespena, batez ere, Berritzeguneko aholkularien bidez adierazitakoa.

9. Garapenerako Hezkuntzako esperientzia honetatik ateratzen diren ikaskuntzak

Gure iritziz, ikaskuntzarik garrantzitsuena da **zeharkakotasuna** eskolako curriculumean **sartu ahal dela**, eta, horretarako, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesu kritikoagoak eta berritzaileagoak jarri behar direla abian. Hori aurrerapen nabarmena da, sarritan zeharkakotasunaren auzia konpontzeko egin diren jardute bakartuekin eta aldizkakoekin erkatuta.

Mundilab proiektua “laborategi” gisa hartzeak **ikerketak eta esperientziazko** ideietara eramaten gaitu, eta bi proposamen horiek are erakargarriagoak eta eragingarriagoak dira hala ikasleentzat nola irakasleentzat.

Talde pedagogikoen **koordinazioko** lana, ikastetxeen arteko koordinazioa, Mundilab sarean esperientziak elkarri trukitzea eta antzeko jarduerak, berez, oso garrantzitsuak izan dira irakasleek egiten duten zereginari laguntza emateko. Egin diren ebaluazioetan, irakasleek sareko lan horrek duen garrantzia nabarmendu dute, segurtasuna ekarri baitie, eta zeharkakotasunari buruz zuten ezagutza eta jardutea hobetu ahal izan baitute.

Diziplina arteko lana eta egin diren esperientzia zehatzak **sistematizatzeko** jarduna erreferentziako gaiak izan dira beranduago sartu diren beste ikastetxe batzuentzat eta, oro har, antzeko programak bultzatzeko interesa izan duen edozein ikastetxerentzat.

Programari loturik **irakasleei eman zaien prestakuntza** funtsezko laguntza izan da esperientzietatik zentzu eta kohesio gehiago izan ditzaten.

Ikastetxeek **kanpoko eragileek** -garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek eta gizarte-mugimenduek- **partehartzea** ere laguntza handiko eragilea izan da, eta oso baliagarria izan da elkarren ezagutza hobetzeko, eta ikastetxeen bizitzan lankidetzan jarduteko dauden aukerak ikertzeko.

Bestalde, **baliabideak metatzea** -hala baliabide teknikoak nola pedagogikoak- garrantzi handiko eragilea izan da, irakasleen eta ikasleen lana errazago izan dadin.

10. Garapenerako Hezkuntzako antzeko esperientziak abian jarri nahi dituzten beste pertsona eta erakunde batzuei emango genizkiekeen gomendioak

Alderdi asko nabarmendu ditzakegu, baina, oroz gain, azpimarratu behar da “esportatzeko moduko” programa bat dela, baliabide gehiago edo gutxiago izanda gauzatu ahal baita, eta, era berean, baldintza eta testuinguru desberdinetara egokitu ahal baita. Dena dela, gomendio bat eman behar izanez gero, gomendio horrek zerikusia izango du ikastetxe bakoitzean prozesua dinamizatzeaz arduratuko den taldea osatuko duten kideekin. Izan ere, garrantzi handikoa da kide horiek zeharkakotasunaren eta hezkuntza-arloko berrikuntzaren esparruan nolabaiteko esperientzia duten irakasleak izatea. Orobat, kome-nigarria da irakasle horiek gai izatea ikastetxe osoko irakasle guztiak dinamizatzeke eta, halaber, beren kideei laborategiko material teknikoei eta pedagogikoei buruzko aholkuak emateko.

Bestalde, oso garrantzitsua da ikastetxeak eta ikastetxe-ko zuzendaritzak talde pedagogiko horrek egiten duen lanari onspena ematea eta tankera honetako proposamen batek duen izaera berritzailea onartzea, hartara, astean liberazioko ordu jakin batzuk eman ahal izan daitezen eginkizun horretan, eta, azken batean, programa koordinatzeko eta kudeatzeko lana baldintza egokiagoe-tan egin ahal izan dadin.

Azkenik, funtsezkoa da ikastetxeari kanpotik eman ahal zaion laguntza -Hegoa erakundeak programa honetan bete duen zereginaren moduan-.

11. Nabarmentzeko moduko beste alderdi batzuk

Guatemalan, Mundilab proiektuko bi zentro daude; bat Guatemala hirian dago, eta bestea Antigua hirian. Kasu honetan Prodesa garapenerako gobernuz kanpoko erakundea arduratu zen proiektua prestatzeaz eta aurkezteaz finantziazioa lortzeko, eta, halaber, tokiko ikastetxeekin harremanetan jartzeaz. Hegoa erakundeak aurretiatzko informazioa eman zuen, laguntza eman zuen proiektua prestatzeko, eta parte hartu zuen tarte-an sartuta zeuden irakasleei hasierako prestakuntza emateko lanetan.

Amanda. Iparrorratz agiria

Laguntza ematea Gasteizko Alde Zaharreko
Hezkuntza arloko normalizazioa lortzeko
(Hezkuuntza formalean eta ez-formalean)

Amanda

Hitz egiteko gune bat sortuko dugu, gure gizarte-ekintzako
guneak zabaldu ahal izateko estrategiak prestatze aldera

Kultura artekotasuna kontzeptua sakonago aztertuko dugu praktika oinarritzat hartuta. Egunero-egunero ikerketa egingo dugu

Bilera bereziak antolatuko ditugu, egunero izaten diren egoera jakin batzuk aztertu ahal izateko (bizipen pertsonalak, komunikabideetako albisteak...), hori lagungarria izan dadin erabakiak hartzeko, konponbideak bilatzeko, ondorioak ateratzeko.

Ahalegina egingo dugu hartzen ditugun erabakiak, konponbideak, iritziak eta ondorioak hainbat tokitan ezagutzera emateko (Internet-en, prentsan...).

Euskadin -edo, ahal bada, Euskaditik kanpo- kultura artekotasunari buruz antolatzen diren jardueretan parte hartuko dugu, erakunde bakoitzak dituen interesen arabera parte hartzeko duen eskubidea babestuko dugu eta gero edukiak elkarren artean trukatu ditugu bileretan edo blogean.

Ahaleginak egingo ditugu komunikabideren batean jardunean dauden kazetariekin harremanetan jartzeko, hartara, immigrazioari buruzko eta talde eta elkarte askok egiten duten lanari buruzko albiste on bat argitaratu ahal izateko.

Pertsonen eta erakundeen arteko elkarrizketa soziala bultzatuko dugu

Elkarrizketaren, parte-hartzearen, kultura artekotasunaren eta bultzatu nahi dugun sare-motaren definizio adostu bat finkatuko dugu.

Ezagutu nahi ditugun beste talde batzuk identifikatuko ditugu (“mapaketa” bat eginez), eta **Amanda** plataforman parte hartzera gonbidatuko ditugu.

Auzoko taldeetan eta jardueretan parte hartuko dugu: AZAO (Alde Zaharren Aldeko Oihua - Alde Zaharraren Aldeko Plataforma. Munduko arrozak, auzoko jaiak, gizarte-etxeko jaiak. Era berean, kultura desberdinetako jaietan parte hartuko dugu.

Behar bezala bermatuko dugu gure proiektuetan gune berezi bat egongo dela, konpromisoa hartu dugun talde horiekin gizarte-arloko elkarrizketa hori sustatzeko.

Proiektu berezien hartzaile diren taldeen parte-hartzea bultzatuko dugu auzoan xede horretarako eratzen diren guneetan.

Gure banakako proiektuen jasotzaileek plataforman parte-hartzea eta engaiatzea sustatuko dugu

Hausnarketa eta proposamenak egingo ditugu talde hartzaile bakoitzaren partaidetza-mailei buruz.

Bat etorri ondoren, zehaztuko dugu zein izango den gutxieneko inplikazio- eta partaidetza-maila.

**Laguntza ematea Gasteizko Alde Zaharreko
Hezkuntza arloko normalizazioa lortzeko
(Hezkuntza formalean eta ez-formalean)**

**Auzoa
Lanean arituko gara dagoen aniztasuna
kontu onuragarritzat har dadin**

**Baliabideak/zerbitzuak sustatuko ditugu Alde Zaharreko pertsonen auzoan
bertan egin ahal izan ditzaten beren jarduera guztiak**

Eskaintzen diren jardueren eta egiten ez diren jardueren azterketa egingo dugu, erabaki ahal izateko, jarduera horietatik guztietatik, zein diren gure gain har ditzakegunak.

Harremanetan jarriko gara dagoeneko finkatuta dauden taldeekin (gizarte-etxeetako jarduera-taldeekin, meskitekkin, ikasketa-edo kultura-arloko taldeekin...) zein gabezia dagoen eta zein zerbitzu ez dagoen jakiteko.

Proposamenak egingo dizkiegu hainbat erakunderi edo instituziori, zerbitzu/baliabide berriak abian jartzeari buruz.

Tresnaren bat sortuko dugu Alde Zaharrean egiten diren kontuak eta abian dagoen guztia agerian ikusgai jartzeko.

Ikastetxea indartuko dugu aldaketa lortzeko eragilea izan dadin

Ikastetxean egiten diren jarduerak eta lana ezagutzera emango ditugu.

Ikastetxea auzora zabalik dagoen gunere modura erakutsiko dugu.

Ikastetxeak eskolako eraikinetik kanpo egin ditzakeen jarduerak proposatuko ditugu, "ikasgelak kanpora aterako ditugu".

Ikastetxeari gure burua eskainiko diogu, laguntza emateko prest dagoen talde gisa.

Gure jarduerari buruzko informazioa bidaliko diogu.

Auzoak hirian eta auzoan bertan duen irudia hobetuko dugu

Alde Zaharra bizirik dagoen eta jarduerak eta jendea biltzen dituen gunere modura jarriko dugu ikusgai. Auzoa zaharra da, baina gogotsua.

Jarduerak egingo ditugu pertsonak auzora hurbil daitezen.

Auzoaren aldeko publizitate ona egingo dugu komunikabideetan. Erantzuna emango diegu albiste txarrei.

Alde Zaharreko biztanleek beren auzoari buruz duten irudia zein den aztertuko dugu.

Laguntza ematea Gasteizko Alde Zaharreko
Hezkuntza arloko normalizazioa lortzeko
(Hezkuuntza formalean eta ez-formalean)

Elkartek

Lagungarriak diren mugimenduak eta sinergiak sortuko ditugu
Alde Zaharra auzo normalizatu bat izan dadin lortzeko

Alde Zaharrean lan egiteko proiektuak bateratzeko sare bat finkatuko dugu
(tokikoa, autonomia-erkidegokoa eta mundu osokoa)

Elkarteen atari bat sortuko dugu.

Amanda bezalako taldeak bilatuko ditugu Estatuko edo munduko beste toki batzuetan.

Jardunaldi batzuk antolatuko ditugu Alde Zaharreko elkarteei eta taldeei zuzenduta.

Bilerak egingo ditugu etorkinen taldeekin eta immigrazioko gaiak lantzen dituzten erakundeekin.

Bilerak egingo ditugu Alde Zaharrean proiektuak egiten dituzten taldeekin.

Sare bat eratuko dugu erakunde horiek elkarren artean harremanetan jar daitezzen.

Baterako parte-hartzea bultzatuko dugu garapenerako proiektuetan edo aldizkako jardueretan.

Harremanetan jarriko gara kultura artekotasuneko gaiak lantzen dituzten ikastetxeetako proiektuekin.

Bizkaian, Gipuzkoan, Estatuan edo munduan barrena egiten diren antzeko esperientziak edo interesgarriak izan daitezkeen bestelako esperientziak aurkituko ditugu, eta informazioa trukatu dugu.

**Auzoan erreferenteak diren eta aniztasuna lantzen duten erakundeak
bultzatuko ditugu Alde Zaharrean dauden lan-esparru guztietan**

Ondo aztertu eta erabakiko dugu zein erakunde eta pertsona izan daitezkeen erreferenteak, eta nola sustatu ditzakegun.

Ahalegina egingo dugu kultura bakoitzak parte hartzeko dituen guneak zein diren jakiteko: meskitak, saltokiak...

Erreferenteak diren pertsona horiei gonbidapena egingo diegu eskura dituzten parte-hartzeko guneak ezagutu ditzaten, eta adorea emango diegu gune horiek erabil ditzaten eta, orobat, etorkizunean lan egiteko beste gune batzuk sor ditzaten.

Prestakuntza emango dugu (ikastaroak diruz lagunduko ditugu, pertsona horien laguntza izango dugu ordainduko diren proiektuak prestatzeko...).

Amanda. Denboraren lerroa

Abiaraztea 2006

2005				2006		
Apirila	Maiatza	Ekaina	Abendua	Urtarrila	Apirila	Ekaina
Alde Zaharra		Inmigrazioa		Dokumentu gidaria		
Kolektiboen arteko lehen hurbilpen-bilerak				HEGOA jardunaldiak: Hezkuntza-esperientzien trukea kulturantzatasuneko egoeretan		

Nortzuk

- **Saregun**. Bere zentzura zihoazen gazteentzako hezkuntza inguru egoki baten bila zen.
- **Landatxo gizarte etxea**. Gizarte etxeko hezitzaileek lan egiten zuten gazteentzako topaguneak sustatzea nahi zuen.
- **Irakasle Eskolako Praktika-Programa (EHU)**. Ikastetxeekin harremanetan jarri nahi zuen, hainbat “pertsona bidaiaririkin” harremanetan jartzeko asmoz.
- **Ramón Bajo LHiko Guraso elkarte**. Laguntza beharra, ikastetxean aldaketak eragin ahal izateko (egoera kritikoa: ikasleen %100 familia etorkinetakoak dira, eredu linguistikoa euskaldunik ez dago, klaustroan pertsona-aldaketa etengabeak dira, baliabide gutxi dituzte arazo horiei aurre egiteko..) Aldaketa unea, zuzendari berria.
- **Ramón Bajo LHiko eskolaz kanpoko jardueren programa**. Orientazio beharra dute.
- **HEGOA**. Kulturartekotasunaren kontzeptu eta ikuspegietan sakondu eta ikastetxeetako errealitatearekin kontrastatzea nahi du.
- **Bizi Gaia. ???**

Eztabaidak:

- Helburu konpartituak.
- Funtzionamendua: Elkartea ↔ Plataforma.
- Mugak: Koordinazioa ↔ Elkarren arteko lana.

Asmoak / Itxaropenak:

- Kolektibo bakoitzaren hezkuntza-lana norabide bat eta berean bultzatzea
- Talde bakoitzak bere isolamendutik ateratzea.
- Ehun soziala indartzea, beti ere parametro hezitzaileetatik abiatuta.

Arazoak:

- Talde berriak hurbildu izan dira etengabe, → eta horrek moteldu egiten du lan-eritmoa.

Hausnarpn teorikoa eta proiektuen aurkezpena

2006		2007		
Iraila	Abendua	Urtarrila	Martxoa	Uztaila
Yenik utzi egin du taldea		Hausnarketa teorikorako egutegia		Dokumentu gidaria
	GHko III Kongresua (Hegoa)			
<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuaren aurkezpena (ACD Campillo-ren bitartez) Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio Zuzendaritzara. Ez da onartu • Bizi Gaia proiektuaren onespina • Bloga: http://amanda.elkarteak.net • Ramón Bajo LHI: aldaketak zuzendaritza taldean 		<ul style="list-style-type: none"> • Mapa egiteko proiektuaren aurkezpena Electra-ra • Saregunek, Irakasle Eskolak eta Ekilorek <i>Enredando escuelas</i> proiektua sustatzen dute 		<ul style="list-style-type: none"> • Ramón Bajo LHIn aldeko sostengu gutuna • Mapa egiteko proiektuaren aurkezpena (ACD Campillo-ren bitartez) Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio Zuzendaritzara • Artikulua Hika aldizkarian • Parte hartzea "Hemen bizi naiz, hemen bozkutzen dut" (Aquí vivo, aquí voto) kanpainan
Munduko arrozak				
<ul style="list-style-type: none"> • Análisi teorikorako eta gure praktikak analizatzeko tresna batzuk sortu ditugu. • Areagotu egin da kanpo-presentzia. • Guraso elkartearen eta Ramón Bajo LHI ez dira egon <i>Amandan</i>. • Bilerak Ramón Bajo LHIn egiten dira. • Barne eztabaida eskasa. • Batzuen eta beteen jardunaldien aprobetxamendua. • Arazoak Ramón Bajo LHIn egindako Irakasle Eskolako ikasleen praktikekin, ez da ulertzen zentroaren berezitasuna. 				

Proiektuen garapena

2007		2008			
Iraila	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Maiatza	Ekaina
<ul style="list-style-type: none"> • Pilar kontratatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Pilarren baja • Inés kontratatzea • Festa Gaztetxean (Ekilore) 	<ul style="list-style-type: none"> • Etorकिनen botoaren aldeko kanpaina 	<ul style="list-style-type: none"> • Ekiloreren Jardunaldiak 	<ul style="list-style-type: none"> • Mapa egitearen amaiera • Pilar berri ere kontratatzea 	
				<i>Arroces del mundo</i>	
<ul style="list-style-type: none"> • Hegoaren mintegia 				<ul style="list-style-type: none"> • Mapa egiteko bigarren proiektuaren aurkezpena Eusko Jaurlaritzara 	
<ul style="list-style-type: none"> • Gaekoak 				<ul style="list-style-type: none"> • Centros de Cultura Popular sartu da <i>Amandan</i> • Alde Zaharreko frontoia zaharberritzeko prozesua 	

ENREDANDO ESCUELAS. Proiektua.

Asmoa: *Amanda* erakunde hezitzaile formal eta ez formalek, eta lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeek bat egingo zuten sarea izateko asmoa zuen... beti ere teknologia berrien laguntzaren bitartez.

Arazoak:

- Hasieran Ramón Bajo LHik interesa erakutsi zuen, baina egiatan 07-08 ikastaroan hartu izan du parte, eta hori irakasle bolondres baten bitartez, eta eskolaz kanpoko jarduera gisa. Ez zuten sentitzen beste herrialde batzuetan bizi diren beste kultura batzuetako ikasleekin harremanetan jartzea ikastetxearen lehentasunetakoa zenik; gehiago interesatzen zitzairen Gasteizko autoktonoekin edo/eta beste zentro batzuetakoekin harremana. Ez dute parte hartu proiektua sortzeko prozesuan, eta dira *Amandan* parte hartzen ari (arrotz zaie proiektua sortzeko prozesua). Pilar joaten zen *Amandako* bileretara bere kasa, baina ez zion lan hori klaustroari transmititzen, eta Guraso Elkarteak (Joseba) Eskola Kontseiluan urtean behin eragin zezakeen bakarrik.
- Proiektuak ez ditu beste ikastetxe batzuk erakarri, baina, gainera, Gineako, Guatemalako eta abarretako kontraparteak utzi egin dute pskanaka. Proiektuak ez zuen parte hartuko zuten aktoreak aurretiaz inplikatzeko baldintzak sortzen asmatu (ez maila lokalean, ez eta nazioartekoan).
- *Amandan* ohiko dinamikarekin jarraitzen dugu; ez da proiektua formalki gureganatzeak eskatuko zuen txip aldaketarik egin. Benetan aukera askoko proiektua den arren, herrialde askorekin harremanetan jartzeko aukera ematen duena, gainditu egiten du *Amandaren* eta antzeko erakundeen egitura.
- *Amandan* dauden erakunde guztiek ere ez dute proiektuaren filosofia %100ean konpartitzen.
- Ekilorek neurri handiago batean hartu izan du proiektuaren ardura. Nardi liberatu egin da, baina erakundea bera hainbat krisitan sartuta dabil.

Amanda. Ikaskuntzen Dokumentua

Laguntza ematea Gasteizko Alde Zaharreko Hezkuntza arloko normalizazioa lortzeko (Hezkuuntza formalean eta ez-formalean)	2005-2006 ikasturtea <i>Amanda</i> abian jartzea	2006-2007 ikasturtea Hausnarketa teorikoa eta proiektuak aurkeztea	2007-2008 ikasturtea Gure proiektuak garatzea	Ikasketak Nola antolatu nahi dugu?
<p>1. maila: AMANDA</p> <p>Helburua: Hitz egiteko gune bat sortzea, gure gizarte-ekintzako guneak zabaldu ahal izateko estrategiak prestatze aldera</p> <ul style="list-style-type: none"> Sareko taldeek egiten dituzten jarduerak bata bestearen gainean ez jartzea eta koordinazioa erraztea 				
<p>Aurrera egin dugu "kultura artekotasuna" kontzeptuarekin eguneroko jarduean:</p> <ul style="list-style-type: none"> Partekatutako esparru teorikoak sortzea. Sarean ditugun proiektuak indartzea. 	<p>(+) <i>Iparrorratz Agiria</i> prestatu zen. Agiri hori lagungarria izan zen talde bakoitzak <i>Amanda</i> plataformari buruz zituen itxaropenak, helburuak eta xedeak batera ikusteko.</p> <p>(-) Helburuekin eta estrategiarekin bat etortzeko prozesua motel joan zen.</p> <p>(-) Bilerak goizez izaten ziren. Hori oztzopoa zen langile liberaturik ez zuten erakundeek parte har zezaten.</p>	<p>(-) Denbora gutxi eman zen hausnarketa egiteko. Taldeka eztabaidatzeko guneak etengabe utzi ziren beste baterako, eta aukerak sortzen zirenean ez zegoen erakunde guztietako ordezkaririk.</p> <p>(+) Proposamen desberdinak egin ziren taldeen jarduerak aztertzeko...</p> <p>(-) ...baina ez zen proposamen horien azterketarik egin eta ez ziren batera eztabaidatu.</p> <p>(+) Oso aberasgarria da esperientzia gehiago duten beste pertsona batzuekin partekatzea erakunde bakoitzak kultura artekotasunari buruz dituen kezak eta lan-plangintzak.</p> <p>(+) Hegoa eta Ekilore erakundeek kultura artekotasunarekin zerikusia zuten bi jardunaldi egin zituzten; eta baliagarriak izan ziren topagune gisa eta prestakuntza jasotzeko, baita Amanda plataformako erakundeentzat ere.</p> <p>(+) <i>Iparrorratz Agirian</i> jarduera eta helburu aldetik zeuden lehentasunak finkatu ziren, (-) baina ez ziren beti kontuan hartu.</p>	<p>(-) Sarearen jarduerak abian jartzean, lehentasuna eman zitzaion jardunaldiak eta proiektuak antolatzeari, eta bazter utzi ziren hainbat eztabaida eta jarduera, <i>Iparrorratz Agirian</i> horiek lehentasunekotzat jo ziren arren. Erakundeen sare gisa, ez zegoen jauzi hori egiteko behar zen egitura.</p> <p>(-) Talde batzuen agerpena "formala" zen, ez baitziren sarearen eguneroko lanean eta bileretan egoten; hortaz, aurrez uste behar zen berretsi egingo zituztela egunero egiten ziren jarduerak eta hartzen ziren erabakiak. <i>Enredando escuelas</i> izeneko proiektua era bateratuago batean prestatu beharko zen, erakundeek erritmo aldetik izan zituzten aldaketekin bat etorrira.</p>	<p><i>Iparrorratz Agiriak</i> baliagarria izan behar du gida modura, hartu diren konpromisoei buruzko ikuspegia ez ahazteko. Ez du mugatu behar, baina, tresna lagungarria izan behar du lehentasunak eta adostasunak zehazteko, sarearen ekintza-esparruan dagoena eta erakunde bakoitzak esparru horretatik kanpo bilatu behar duena bereizteko.</p> <p>Antolakuntzako praktiken eta teoriaren arteko eztabaida berreskuratu behar da. Lehentasuna eman behar zaio horri, eta denbora eskaini behar zaio bileretan.</p>

<p>Pertsonen eta erakundeen kultura arteko elkarrizketa bultzatu dugu</p>	<p>(-) Bilerako bakoitzean erakunde berri bat azaltzen zen; hala, bere burua aurkeztu behar zuen, eta gainerako erakundeek geure burua aurkeztu behar genuen. Elkar ezagutzen joatea oso prozesu motela izan zen.</p> <p>(+) Konfiantza osoko giroa zegoen.</p>	<p>(+) Sarearen barruan, bi aldeko harremanak sendotzen hasi ziren, esate baterako, PEC (Kaleko Hezkuntza Proiektua) eta Saregune artekoak, edo Javiki eta PEC erakundeen artekoak. Horrek areago indartu zuen erakunde bakoitzak egindako lan praktikoa, eta, horren ondorioz, baterako proiektuak prestatu ahal izan ziren.</p> <p>(+) Denboraldi horretan, sinergia ugari sortu ziren erakundeen artean. Konfiantza handiko giroa sortu zen, eta jendea prestutasun handiz azaltzen zen ideiak partekatzeko eta eztabaida egiteko.</p>	<p>(+) Aurrera egin zen bi aldeko harremanekin, eta, hala, PEC eta Ekilore, Saregune eta Ekilore edota Javiki eta PEC erakundeen arteko eguneroko lana bultzatu zen.</p> <p>(+) Bi aldeko lankidetzen ondorioz, sare osoaren laguntza jaso zuten proiektuak sortu ziren, baina erakunde batzuek inplikazio zuzenagoa izan zuten beste batzuek baino.</p>	<p><i>Amanda</i> plataforma abian jartzean erakunde bakoitzari buruzko diagnostiko bana egin zen, egiten zuten lan-mota eta horrelako alderdiak jasotzeko. Diagnostiko hori gaurkotu beharra dago. Oinarriak bateratu behar dira.</p> <p>Bilerak goizez egiten dira. Hori oztopoa da langile liberaturik ez duten erakundeek parte har dezaten.</p>
<p>Gure banakako proiektuak hartzen dituzten pertsonen (eta taldeen) plataforman parte-hartzea eta engaiatzea sustatu dugu</p>	<p>(-) Auzoko talde gutxi bertaratu ziren, Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxeko Gurasoen Elkartea alde batera utzita (<i>Amanda</i> plataforma osatzen zuten gainerako elkarteek jarduerak eta baliabideak antolatzen zituzten auzoko pertsonentzat).</p> <p>Bestalde, normalean ez zuen parte hartzen beste kultura batzuetakoa zen inork. Hasieran, Bizi Gaia erakunde emakume magrebtar bat etortzen zen bileretara.</p>	<p>(-) Auzoko pertsonen eta taldeen ordezkapen txikia dute oraindik <i>Amanda</i> plataforman.</p> <p>(-) Era berean, beste kultura batzuetako pertsonen gabezia dago.</p>	<p>(-) Auzoko pertsonen eta taldeen ordezkapen txikia zuten <i>Amanda</i> plataforman.</p> <p>(+) Saregune erakundeak ziren bi lagun atzerritar hasi ziren parte hartzen.</p>	<p>Neurri handiagoan edo txikiagoan, erakunde bakoitzak harreman zuzena izaten du kulturako gutxiengoekin; egiten diren proiektuetan agertzen dira, gutxi gorabehera, baina oraindik ez dira jardunean sartu, normalizatutako jardueretan (berezi etorkinentzat prestatutakoak diren horietan).</p> <p>Talde horiek erakartzeko, haiek dituzten beharriak eta kezkei eman behar zaie erantzuna, eta, era berean, aditzera eman behar zaie taldearen nortasuna eraikitzeke lanean parte har dezaketela.</p> <p>Bileren ordutegia ez da batere lagungarria horrelako taldeak erakarri ahal izateko.</p>

2. maila: AUZOA

Helburua: Lanean aritzea dagoen aniztasuna kontu onuragarritzat har dadin

- Erakundeek bat egitea proiektu aldeaniztunetan

<p>Baliabideak/ zerbitzuak sortu ditugu Alde Zaharreko pertsonen auzoan bertan egin ahal izan ditzaten beren jarduera guztiak</p>	<p>(+) Alde Zaharrak zituen baliabideak zein ziren jakiteko interesa zegoen, eta mapaketa bat egitea proposatu zen.</p> <p>(+) Tarte handia uzten zen albisteak denen artean eztabaidatzeko, bai eta nortzuk ginen, auzoan zer gertatzen ari zen, nola geunden eta antzeko kontuak azaltzeko ere.</p> <p>(+) Esate baterako, erakundeak bateratu zirenean, Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako kirol-gune bat jarri zen abian, PEC eta Javiki erakundeen sustapenari esker.</p> <p>(-) Kultura artekotasunari buruzko gradu ondoko ikasleak hurbiltzen ziren, praktikak egiteko toki bila zebiltzala, baina ez zegoen behar adinako lekurik haiei harrera egiteko.</p>	<p>(+) Alde Zaharreko baliabideen mapaketa egiteko Electra-ri aurkeztu zitzaion proiektua onetsi zen.</p> <p>(+) Bizi Gaia erakundeak Eusko Jaurlaritzaren finantziarioa lortu zuen, kultura askotako emakumeen talde batekin dantzaren bidez genero-arloko gaiak lantzeko.</p> <p>(+) Sostengua eman zitzaion Gauekoak erakundearen barne hausnarketako prozesuari (Udaleko gazteentzako gaueko aisialdiko jardueren programa). (-) Alabaina, bi lagunek dute ardura eta erantzukizuna.</p> <p>(+) <i>Amanda</i> plataforma barruko erakundeek proiektuak gauzatu zituzten, besteak beste, PEC eta Saregune, PEC eta Javiki erakundeek...</p> <p>(-) Gaztetxeko emakume batzuek ekimen bat jarri zuten abian, Ramón Bajo Ikastetxeko Gurasoen Elkarteko kideen laguntzaz, auzoan astialdiko talde bat sortzeko, baina ekimenak ez zuen aurrera egin.</p>	<p>(+) Lanean jarraitu zen Gauekoak taldeko barne hausnarketako prozesuari laguntza ematen.</p> <p>(+) Mapaketaren proiektuaren bidez, harremanak izan ziren 30 erakunderekin, eta fitxa bat prestatu zen haiekin.</p> <p>(+) <i>Amandako</i> plataformako erakunde batzuek baterako proiektuak egin zituzten: PEC eta Ekilore erakundeek,..</p> <p>(+) Aurrera jarraitu zen PEC eta Javiki erakundeek Lehen Hezkuntzarako bultzatzen zuten kirol-gunearekin.</p>	<p>Interesgarria izango litzateke eskura dauden baliabideei buruzko diagnostiko bat prestatzea, eta bultzatu edo berriz aztertu behar diren alderdiak ikertzea eta dauden gabeziak aurkitzea.</p> <p>Ikusten denez, estrategiak aurkitu behar dira auzoko beste talde batzuegana hurbiltzeko.</p>
--	---	---	---	---

<p>Ikastetxea indartu dugu aldaketa lortzeko eragilea izan dadin</p>	<p>(+) Hegoa erakundeak jardunaldi batzuk antolatu zituen Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxean, kultura artekotasuneko hezkuntzako esperientziak trukatzeko.</p> <p>(-) <i>Amanda</i> plataformak sumatu zuen Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxea auzoko gunerik garrantzitsuena zela kultura artekotasunari lotutako gaiak lantzeko, baina astiroago ibili behar zen ikastetxearekin harremanetan jartzeko.</p> <p>(+) Javiki eta Bizi Gaia erakundeak lanean aritu ziren auzoko hainbat talderekin Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxean.</p> <p>(+) Ahalik eta laguntzarik handiena eman zitzaion ikastetxeko Gurasoen Elkarteari eta proposamenak, kritikak eta bestelakoak egin ziren.</p> <p>(+ eta -) Irakasleen Eskolak Ekuadorren, Ginean, Guatemalan eta beste herrialde batzuetan praktikak egiteko zuen programaren barruan, lankidetzaren proiektu bat jarri zen abian Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxearekin batera. Gutun-trukea egiten hasi zen Ikastetxeko eta beste herrialde batzuetako ikasleen artean.</p>	<p>(+) <i>Amanda</i> plataformak gutun bat idatzi zuen Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxearen 2007-2008ko esku-hartzeki globaleko proiektuari laguntza emateko.</p> <p>(+) Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak proposamena egin zigun bilerak ikastetxean egiteko, hartara, haien errazago izan zedin bileretara joatea. (-) Hala ere, haiek bileretan duten parte-hartzea ez da erregularra, eta, hortaz, harremana astiroago doa.</p> <p>(+) “Enredando escuelas” izeneko proiektua proposatu zen, hiriko eskolak Ekuador, Ginea eta Guatemalako eskolekin harremanetan jartzeko. (-) Hala ere, ikastetxea beste barne-prozesu batean sartuta zegoen, eta beste lehentasun batzuk zituen.</p>	<p>(+) Hegoa erakundeak mintegi bat antolatzen du urtero (Mundubildu izeneko), inguruko beste erakunde batzuekin lankidetzan, kultura artekotasunari buruzko gaiak ikastetxeetan lantzeko. Besteak beste, <i>Amanda</i> plataformako eta Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxeko hainbat lagunek hartzen dute parte. Eztabaidatzen jarraitu zen arlo formala eta ez-formala areago bateratze aldera nola lan egin zitekeen jakiteko.</p> <p>(-) Desadostasunak sumatu ziren “Enredando escuelas” proiektuaren eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak benetan zituen beharrezan artean. Ikastetxeak lehentasuna ematen zion Gasteizko eskolekin harremanetan jartzeari eta ez hainbeste kanpoko eskolekin egoteari.</p> <p>(+) Ikastetxean bilerak egiten jarraitu zen. (-) Dena dela, jende gutxiak parte hartu zuen.</p> <p>(+) Blog-a erabiltzen hasi zen harremanetan jartzeko eta informazioa trukatzeko tresna moduan.</p> <p>(+ eta -) Irakasleen Eskolako eta Soin Hezkuntzako Euskal Erakundeko praktikak: Garrantzizkoa zen ikastetxea lankidetzan aritzea praktiketako programekin, baina desadostasunak izan ziren itxaropen aldetik.</p>	<p>Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak aldaketa handiari ekin dio urte hauetan. Besteak beste, aldaketa haiek egin ditu: aldaketak klaustroan, irakasle egonkorragoak, kultura artekotasuneko koordinatzailea agertu da, ikastetxea irekiago dago gizarte-eragileek parte har dezaten. Ikastetxean aldaketa horiek izan dira, alde batetik, irakasleen klaustroan izan den jardueraren ondorioz, eta, bestetik, Gurasoen Elkarte asko engaiatu delako eta eraginkortasunez aritu delako ikastetxea eraldatu nahian.</p> <p><i>Amanda</i> plataforma ere aldatu da: talde batzuk heldu dira, beste batzuk desagertu dira, lan-fluxu irregularrak izan dira...</p> <p><i>Amanda</i> plataformaren eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxearen arteko aldaketaren eritimoak oso desberdinak izan dira eta desorekatuta egon dira, ez delako gune egonkor bat egon solasean aritzeko. Horrek desilusioak piztu ditu “Enredando escuelas” izeneko proiektuan. Ikastetxeak prozesu motelagoak behar ditu bere egitura instituzionalagoa delako; <i>Amanda</i> plataforman egiten diren eztabaidek, berriz, arinago egiten dute aurrera. Horrez gain, jakin beharko genuke ikastetxeak gertatzen diren aldaketen motorra izan nahi duen edo ez. Aldaketa horiek soilik egingo dira ikastetxeak eskatzen baditu; inoiz ez dira kanpotik atzemandako beharrezan gisa iritsiko.</p> <p>Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxea ez da Alde Zaharrean irakaskuntza-arloan dagoen erreferentzia bakarra. Era berean, barne hartu behar ditugu Landazuri, Santa María, Haurtzaro, Samaniego...</p> <p>Oso interesgarria izango litzateke harremanetan jartzea ikastetxe horietako kultura artekotasuneko koordinazio-arloan dauden pertsonekin.</p>
---	--	---	--	--

<p>Auzoak hirian eta auzoan bertan duen irudia hobetu dugu</p>		<p>(+) Ekarpen batzuk egin ziren, esate baterako, artikulatu batzuk eta komunikabideetan izandako elkarrizketak: Ramón Bajo Ikastetxeko Gurasoen Elkarteko kidea den Amelia Barquín-ek artikulatuak idatzi zituen El Correo egunkarian eta Hika aldizkarian; eta Hegoa erakundeko Alicia López de Munain-ek Hika aldizkarian idatzi zituen.</p> <p>(+) Sortutako proiektuen eta jardueren aurkezpenak eta, orobat, Munduko arrozak bezalako ekitaldien antolakuntzak oso balorazio ona izan zuten.</p>	<p>(-) <i>Amanda</i> plataformako erakundeen hainbat ekimen bultzatu ziren, hala nola, Ekilore elkarteak Gaztetxean egin zuen Kultura arteko Jaia, Sartu elkarteak prestatu zuen <i>Munduko arrozak</i> ekitaldia, eta, orobat, Alde Zaharreko beste talde batzuen ekimenak, adibidez, pilotalekua birgaitzea.</p> <p>(-) Interesgarritzat jotzen zen harremanetan jartzea hirigunea eraberritzeko agentziarekin, plana ezagutzeko eta nolabait horretan eragina izateko, baina azkenean hori guztia ezertan geratu zen.</p>	<p>Alde Zaharreko irudia oso estereotipatuta dago. Zaila da jakitea auzoko irudia hobetu den edo ez. Hori balioesteko, zehaztuta ez dauden adierazle soziologikoak beharko genituzke. Irudi hori hobetu behar den edo ez zabalik dagoen eztabaida baterako gaia da, eta ondo zehaztu beharko litzateke. Eztabaian gehienbat nabarmendu da baztertuta dauden taldeen normalizazioa eta gizarteratzea lortu dela, eta auzoaren hobekuntza “aseptikoa”, berriz, ez da hainbeste azpimarratu. Hori garrantzitsua da, bertan bizi diren pertsonen bizitza aldatzen den heinean. Garrantzitsua da jakitea norengana hurbilduko garen eta nor entzungo dugun proposatu ahal den hirigunearen eredia zehazterakoan; hau da, edukiaren gainean lan egin behar da, baina ez “erakusleiho” baten irudia bilatzeko.</p> <p>Komunikabide alternatiboetan artikulatuak idatziz eta elkarrizketak eginez, betiko jendearengana hurbiltzen jarraitzen dugu, sentsibilizatuta dagoen jendearengana.</p>
--	--	--	--	--

3. maila: ELKARTEAK

Helburua: Lagungarriak diren mugimenduak eta sinergiak sortzea Alde Zaharra auzo normalizatu bat izan dadin lortzeko

- Berezko proiektuak sortzea

<p>Sare bat finkatu dugu Alde Zaharrean aritzen diren proiektuak bateratzeko (tokikoa eta mundu osokoa):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sareko lanaren eboluzioa • Parte hartu duten eta parte har dezaten engaiatu nahi ditugun erakundeak 	<p>Aldi honetan egon diren erakundeak: Irakasleen Eskolak txirotutako herrialdeetan duen praktiken programa, Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxeko Gurasoen Elkarte, Bizi Gaia, Javiki, ACD Campillo, Saregun, Hegoa. Bestalde, nabarmendu behar da pertsona batzuek, banan-banan, askotan parte hartu zutela taldea definitzeko hasierako aldi, esate baterako Shantik eta Gorkak. (+) <i>Amanda</i> plataforma sortu zenetik, batera etabaidatu izan dira Alde Zaharrean dauden era askotako proiektuak, auzoari buruzko ikuspegiak, kultura artekotasuna ulertzeko moduak eta horrelako gaiak. (+) Blog bat sortu zen erakundeen arteko informazio-trukea errazteko eta kanpoaldeari begira “aurpegia” erakusteko.</p>	<p>Aldi honetan egon diren erakundeak: Irakasleen Eskolak txirotutako herrialdeetan duen praktiketako programa, Bizi Gaia, Javiki, ACD Campillo, Saregun, Hegoa, Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxea, Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxeko Gurasoen Elkarte. Aldi honetan, Javi lankidetzan aritu zen gurekin. (+) Alde Zaharrean zeuden proiektuei eta erakundeei buruzko ezagutza sakondu zen. (+) Saregunekoek bloga dinamizatu zuten, baina kezka azaldu zuten taldeek gutxi erabili zutelako tresna hau taldeen barneko harremanetarako.</p>	<p>Aldi honetan egon diren erakundeak: Irakasleen Eskolak txirotutako herrialdeetan duen praktiketako programa, Ekilore, PEC, Saregun, Dunia Topaketa, Hegoa, Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxea, Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxeko Gurasoen Elkarte. Ikasturtearen amaieran Centros de Cultura de Paz erakundea ere sartu zen. Save the children eta Al Indimay erakundeek gune bat eskatu zuten harremanetan jartzeko, baina ezin izan genuen aurkitu. (-) Bizi Gaia erakundeak laguntza eskatu zuen barneko krisia gainditu ahal izateko, eta <i>Amanda</i> plataformak ezin izan zion laguntza hori eman. Sareak ez zuen ahalmenik taldeen barneko dinamiketan sartzeko, eta gainerako erakundeek ere ez zuten zeregin hori beren gain hartu. (+) Harremanetan izan ginen 30 erakunderekin, eta erakunde horien fitxa bana prestatu genuen mapaketa egiteko. (-) Blogak dinamismo gutxi zuen artean. (-) Javiki erakundeak bertan behera utzi zituen eskolaz kanpoko jardueren programa eta plataforma.</p>	<p>Gutxi gorabehera aski iraunkorra den erakundeen talde bat finkatu da. Hiru urte hauetan pertsona asko ibili da bertatik. Erabakiak eta erantzukizunak hartzeko eta bestelako kontuetarako dagoen protokoloa eta egitura-mota dela-eta, erraztu da langile liberatuak eta barruko egitura sendoa dituzten erakundeen partaidetza. Txikiagoak ziren erakunde horiek inplikazio gehiagoko gune bat nahiago izango zuten, hor bultzada gehiago jasoko baitzuten, baina pixkanaka plataforma uzten joan dira (esate baterako, Bizi Gaia edo Javiki). Bileren ordutegia eta funtzionatzeko sistema direla-eta, une jakin batzuetan parte hartzeko gogoia izan zuten beste talde batzuk ez dira hurbildu, adibidez, Hika Ateneo edo Gasteizkoak.</p>
<p>Auzoan erreferenteak diren eta aniztasuna lantzen duten erakundeak bultzatu ditugu Alde Zaharrean dauden lan-esparru guztietan</p>			<p>(-) Auzoan dagoen Bizi Gaia erakundearen kultura-arloko gutxiengoak daude; erakunde horrek laguntza eskatu zuen barruko antolakuntza egiten ari zen une batean, baina <i>Amanda</i> plataformak ez zuen horri erantzuteko gaitasunik izan. (+) Urte honetan, <i>Munduko arrozak</i> auzoko hainbat erakundek antolatu zuten batera, ohi bezala Saregunek antolatu beharrean. Horrek esan nahi du auzoko elkarteak gune horretaz jabetu zirela.</p>	

Barneko funtzionamendua

<p>Lanaren eta erantzukizunen banaketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erantzukizun morala eta operatiboa • Erabakiak hartzea • Barneko komunikazioa 	<p>(+) <i>Amanda</i> plataforma sortu zenetik, batera eztabaidatu izan dira Alde Zaharrea dauden era askotako proiektuak, auzoari buruzko ikuspegiak, kultura artekotasuna ulertzeko moduak eta horrelako gaiak.</p> <p>(+) Konfiantzazko giroa sortu zen, eta hori egokia izan zen kezkek, zailtasunak eta beharrezkoak elkarri adierazteko, instituzioen mesfidantzarik izan gabe eta apaingarriekin ibili gabe.</p> <p>(-) Ibilbide luzeagoa eta egitura instituzionalizatuagoa zuten erakundeek ikuspegi mugatuagoa zuten sareari buruz, zer eskatu ahal zen eta zer ez zehazterakoan. Ikuspegi hori nagusitu zen, eta ez, berriz, orain dela denbora gutxiago eratu diren erakundeena. Erakunde berriago horien ustez, <i>Amanda</i> gune egokia izan zitekeen hobeto babestuta eta zainduta egoteko, eta berezko entitate juridikoa ere izan zezakeen.</p> <p>(+) <i>Amanda</i> bloga sortu zen eta Saregunean prestakuntza ematen hasi zen.</p>	<p>(-) Pertsona eta erakunde guztiek ez zituzten erantzukizunak modu berean beren gain hartu. <i>Amanda</i> plataformaren gunean ilusioz sortutako proiektuek ez zuten eragin berbera izan erakundeetan, garatu behar ziren jardueren arabera. Dena dela, denei eman zitzaizen laguntza morala, ez baitzegoen argi nork hartu behar zituen bere gain jardura batzuk, eta zein erantzukizun hartu behar ziren. Horren ondorioz, proiektuak ez ziren behar bezala eskuratu.</p> <p>(-) Pertsona bat liberatu zen, mapaketaren proiektua egin zezan, eta, hortaz, bere esku utzi genituen ordura arte bileretara joaten ginenen artean banatzen genituen jarduerak.</p>	<p>(-) Pertsona bat liberatu zen, mapaketaren proiektua egin zezan, eta, hortaz, bere esku utzi genituen ordura arte bileretara joaten ginenen artean banatzen genituen jarduerak.</p> <p>(-) <i>Amanda</i> plataformak proiektuen alde formala hartu zuen bere gain, baina ez zuen argi erakunde bakoitzari zein erantzukizun zegokion.</p>	<p>Protokolo bat finkatu behar da, erabakiak hartzerakoan jarraitu behar diren urratsak zehazteko. Ahal dela, ez da erabakirik hartu behar, erabaki horiek erakunde batzuei bakarrik badagozkie, eta “moralki” erakunde guztien bultzada jasoko dutela uste bada.</p> <p>Eraginkortasunak lehenatasuna izan arren, ez da alde batera utzi behar erakunde desberdinak garela, eta guztion proiektuei laguntza emateko gure erakundeek horretaz “konbentzita” egon behar dutela.</p> <p>Proiektuak hartu ondoren, argi finkatu behar da nork duen halako erantzukizuna eta zein diren erantzukizunak.</p> <p>Sare gisa, bi aldetatik ondo ibili diren proposamenak eraiki dira.</p>
---	--	--	--	---

<p>Kanpoko komunikazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Amanda</i> plataforma eratzea, kultura artekotasunari lotutako gaietan erreferentea izan dadin • Agiriak, iritzi publikoa, gure artikulua, gaur eguneko albisteei emandako erantzunak eta antzekoak sortzea 	<p>(+) Aldi honetan, gehienbat, barneko hausnarketa eta taldearen definizioa egin zen.</p>	<p>(+) Aldi honetan, hainbat gune publikotan parte hartzen hasi zen <i>Amanda</i> gisa; hona hemen gune horietako batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kirolaren Kontseilu Sektoriala. • Gauekoak. • Gazte Plana. • Etorkinen botoaren aldeko kanpaina. <p>Horrez gain, plataformak artikulua batzuk idatzi zituen eta elkarrizketaren bat izan zuen komunikabide alternatiboetan.</p>	<p>(+) Aldi honetan, <i>Amanda</i> gisa parte hartzen jarraitu zen Gauekoak gunean, laguntza eman zitzaion barneko krisia izan zen une batean, eta, era berean, etorkinen botoaren aldeko kanpaina parte hartu zen. Horrez gain, Alde Zaharreko Gaztearen <i>Txorionak</i> izeneko urtebetetze-ospakizunean parte hartzea erabaki zen.</p> <p>(-) <i>Amanda</i> plataformaren berezko dinamikatik kanpoko jardueraz arduratzeko gaitasunik ez zegoenez, Gazte Planean, Berdintasunerako Planean eta etorkinen botoaren aldeko kanpaina parte hartzea erabaki zen.</p>	<p>“Kultura artekotasunaren” arloko erreferenteak falta dira, eta erakundeek multzo gisa sortu denez, <i>Amanda</i> hartu da gai hauetako erreferentetzat, baina hori behar bezala aztertze eta eratzeko prozesurik egin gabe. Gaur egun dagoen balioa da sareko pertsona eta erakunde batzuk, banaka hartuta, berez direla erreferenteak, eta hori ahalmen handia da.</p> <p>Konfiantza handiz lan egin da beti, eta horrek askatasun handia eman digu; hala, bada, kideek askatasunez hartu dugu parte elkarrizketetan edo artikulua egin ditugu, taldearen onarpena izanda.</p> <p>Ahalegin gehiago egin da barneko kontuetan, geure proiektuak egiteko; aitzitik, uste zena baino lan gutxiago egin da komunikazio-arloan eta gai zehatz batzuei, iritziko artikuluei edo instituzioen planei erantzuteko esparruan.</p>
---	--	--	---	--

<p>Amanda plataforman egindako eztabaiden eta lanaren berri ematea kide den erakunde bakoitzari</p>	<p>(+) Lehen aldi honetan, eztabaida ugari izan ziren eraiki nahi zen sare-, plataforma-, edo talde-motari buruz, eta, era berean, eztabaidatu zen berezko erakunde juridikoa eratu behar zen edo erakundeak batzea aski ote zen. Eztabaida horretan aditzera eman zen pertsona bakoitzaren atzean zegoen erakunde-mota eta instituzio aldetik lortuko zen laguntza-mota.</p>	<p>(+) Aldi honetan, erakundeetako batek aurkeztu zituen lehenengo proiektuak; hala, sumatzen hasi ginen instituzioek emango zuten laguntzak, gehienbat, zerikusia izango zuela <i>Amanda</i> osatzen zuten erakundeetako pertsonen plataforman banaka izandako parte-hartzearekin eta laguntza "moral" ematearekin; hortaz, instituzioek ez zioten laguntzarik emango <i>Amanda</i> plataformako erakunde bakoitzari, eta ez zuten erantzukizunik beren gain hartuko. Horrek nolabaiteko askatasuna eta arintasuna ematen zuen alderdi batzuetan aurrera egin ahal izateko, erakundeek berresten ibili behar izan gabe.</p>	<p>(-) Aurreko aldiko eredu errepikatu zen, baina oraingoan proiektuak abian jartzeari eman zitzaion garrantzia. Horretarako laguntza batzuk behar ziren, eta taldeek erantzukizunak hartu behar zituzten beren gain.</p>	<p>Hezkuntza formaleko instituzioak erakarri beharra dago, haiek engaiatzea zailagoa baita, egitura-mota dela-eta.</p> <p>Erakundeek <i>Amanda</i> bezalako proiektuak bultzatzen dituzte, oso interesgarriak baitira. Pertsonak bileretara joaten dira, eta benetan engaiatzen dira, baita emozio-aldetik ere, baina erakunde bakoitzaren berrespen instituzionala izan gabe...</p> <p>Bestetik, dirudienez, sarean izaten diren eztabaidak ez dira jasota agertzen erakundeen agirieta edo ikaskuntzetan; hala, beraz, bileretan parte hartzen duen pertsonak alde egiten badu, erakundeak eta <i>Amanda</i> plataformak ikaskuntza horiek galduko ditu.</p>
<p>Sustatutako hizkuntzak</p>	<p>Gaztelania.</p>	<p>Gaztelania.</p>	<p>Gaztelania.</p>	<p>Erabili den hizkuntza gaztelania izan da. Ez dugu ardurarik hartu euskara erabiltzeko; eta, era berean, web-eko eduki eta agiri batzuk ez ditugu itzuli arabierara, ingelesera edo frantsesera, nahiz eta hainbat aldiz hori egiteko asmoa erakutsi.</p>
<p>Tentsio utopia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Utopia teorikoa testuingurura egokitzea • Gure eztabaidak ekarpenen bat egin al dio kultura artekotasunari? • Gure jardutea kultura artekotasunaren barruan al egon da/dago? 		<p>(-) Proposamen batzuk egin ziren bakoitzak egindako proiektuak aztertzeko, baina ez ziren erabili, ez eta partekatu ere.</p>		<p>Bakoitza antolatzen ari zen jarduerak partekatu ditugu, eta bestean iritziak eta proposamenak onartu ditugu; hori ikaskuntza egokia izan da, eta, horrez gain, bakoitzaren jardutea berriz hautatzeko gune bat izan da, nahiz eta batzuetan bideratuta edo berariaz adierazita ez egon.</p> <p>Berataratzen garenok erakundeko lanetatik liberatuta gaude, eta gaiari buruz egiten ditugun hausnarketan gaia aski akademikoa da. Mugak jarri dira beste mota bateko erakunderik edo pertsonarik hurbil ez dadin.</p>

<p>Hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko harremana</p>	<p>(+) Erakundeek (Ramón Bajo Lehen Hezkuntzako Ikastetxeko Gurasoen Elkartek ere bai) abiaburu gisa hartu zuten ikuspegiari jarraiki, ikastetxea gunee zabala zen eta irekiago egon behar zuen auzoko erakundeek lana jasotzeko. Alabaina, ikastetxea ez zen oso irekia. Dena dela, pixkanaka-pixkanaka eta barruan eztabaida ugari egin ondoren, zerbait irekitzen hasi zen.</p>	<p>(+) Klaustroa aldatzean, aldaketak izan ziren. Teorian, argi ikusi zen erakundeek parte hartzeko gune bat zegoela; (-) hala ere, praktikan, zailtasunak zeuden, zentroa oso astiro ari baitzen eraldatzen.</p> <p><i>Amanda</i> plataformak argiago ikusi zuen zein zen bere zeregina, eta arinago jokatu zuen aldeko erabakiak gauzatzekoan.</p>	<p>(+) <i>Enredando escuelas</i> izeneko proiektuak islatu zuen hobeki bakoitzak zituen erritmoak zaindu behar zirela eta elkarri entzun behar geniola.</p>	<p>Garrantzi handia du erritmoak zaintzea...</p>
---	--	--	---	--